


**puntua**  
 TRANSTRANSTI  
 BISEXUALAK  
 BISEXUALAK

+

Harrotasun  
 Egunaren gaineko  
 erreportajea

Iodo faltaren  
 ondorioak  
 Debagoiengan

Agorrosin igerilekua jendez  
 beteta oraingo astean.



## FRESKATZEKO LEKU BARIK

Oraingo astean ilara luzeak izan dituzte Bergarako igerilekuan bainua hartzeko / 20

AMAIA TXINTXURRETA

## Suek piztuko dute gaua

Usadio zaharrak bizi-bizi izango dira suaren bueltan, San Juan bezperan / Ikus 'Herriak' saila



**ESKORIAZAKO ETA  
 ELGETAKO JAIK / 23**

### SINADURAK

	MIGUEL LAZPIUR / 21
	IÑAKI UGARTEBURU / 6
	ESTEBAN IRUSTA / 35
	PAULA AMILBURU / 18
	IDOIA ETXEBERRIA / 48

## SANJUANAK ZUZENEAN!

**MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA ZUZEN-ZUZENEAN**

- PLAZAKO PANTAILA ERRALDOIAN
- STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS-EN ETA ARRASATE.EUS-EN.
- GOIENA TELEBISTAN

**EKAINAK 23, OSTIRALA**

**18:00ETAN MAKALAREN IGOERA**

**21:30EAN ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA**





# "Talentua" faltan igarri dute

Lanbai V. Enplegu eta Formazio Azokan 175 lagun izan ziren elkarrizketak egin edo curriculumak lagatzen atzo, eguena. Kopurua asko jaitsi da, baina besteak beste, horietako biri azoka bukatu eta berehala, lanerako deitu zieten



IK4ren mahaia izan zen bisitari gehien jaso zuenetako bat. UBANE MADERA

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Aurtengo Lanbai azokak ezusteko datua eta irudia utzi zituen atzo, eguena: bertaratu ziren enpresa askotako mahaiak hutsik egon ziren azokak iraun zuen tarte batzuetan. Parte-hartze datua ere esanguratsua da: 175 pertsona izan ziren elkarrizketak egiten edo curriculumak lagatzen –lehen edizioan, 800–. Orokorrean, nabarmen gutxiago gerturatu dira, bada.

Horren azalpena zein izan daitekeen azaldu du ekimenaren

antolatzaileetako bat den Mondragon Unibertsitateko Susana Azpilikueta komunikazio arduradunak: "Horrelako lekuetara gero eta jende gutxiago dator; zorionez, orain, enpresek langileak behar dituzte eta badirudi gaituta dagoela krisiak gogorren jo zueneko egoera (...). Horren adierazle da, kopuruaz gainera, aurtengo azokara gerturatu diren gehienak gazteak izan direla, lehen enplegurako salto hori ematera doazenak; nahiz eta etorri diren helduago

direnak ere, lana aldatzeko goz, edo momentuan lana behar dutenak. Hala ere, enpresa batzuek komentatu dutenez, arazo handiekin dabilta talentua aurkitzeko; ez formazio altukoa, gainera, ezagutza berezirik behar ez den postuetarako ere jende faltan ibili dira; adibidez, banaketa enpresa batzuetan, harakinak, arrandegirako jendea-eta bilatzen ari direnei ere kosta egiten zaie langileak aurkitzea. Bestalde, argi eta garbi ingeniari eskari zabala dago, eta ez

daude behar beste ingeniari dauden postuak bete ahal izateko (...). Eta Lanbaireren lehen edizioan, berriz, bikoteak ume txikiekin ere etorri ziren, egundoko ilarak sortu ziren... (...). Zorionez, badirudi hori gaituta dagoela".

## Unibertsitatekan kanpokoak

Kopuruan ez ezik, profilari dago-kionez ere aldaketa antzeman dute: "Unibertsitateko eta kanpoko jendea baloratuta, aurreko

urteetan baino oreka handiagoa izan da aurtun. Unibertsitateetatik etorri izan zaigu jendea baina akaso esan liteke unibertsitatekoa ez den jende kopurua altuagoa izan dela aurtun", adierazi du Azpilikueta. "Guri, adibidez, gertatzen zaiguna da, Bixente Atxa errektoreak azokaren inaugurazioan komentatu duen moduan, Mondragon Unibertsitateko ikasleek %91 lanean daudela; ondorioz, Mondragon Unibertsitatekan

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN

# "Zibersegurtasuna garatzen lagunduko zaie enpresei"

AINHOA AIZPURU SUSTAPEN EKONOMIKORAKO DIPUTATUA

## Zibersegurtasun Zentro Aurreratua izango du Gipuzkoak; zer izango da?

Estatu mailan, zibersegurtasunaren alorrean, punta-puntako enpresak ditu Gipuzkoak. Gainera, lurraldeko industria digitalizazioaren aldeko apustu sendoa egiten ari da eta, hori gutxi balitz, makina-erremintaren sektoreak garrantzi berezi du gure lurraldean –gainontzeko industrietarako makinak egiten dituen sektorea–. Gipuzkoak, beraz, baldintza ezin hobekak eskaintzen ditu halako zentro bat sortzeko. Eragile ezberdinen arteko kolaborazio gune gisa sortu nahi genuke zibersegurtasunaren zentroa, non enpresa txiki eta ertaine lagunduko zaien zibersegurtasuna garatzen bere sistemetan eta gai honi lotutako berrikuntza, talentua eta sentibilizazioa landuko den.

## Foru Aldundiak lehentasunen artean du proiektua; zergatik?

Legealdi hasieran, lurraldeko enpresek eta ekonomiaren alorreko eragileekin hartu-emanetan hasi ginenean, berehala ikusi genuen beharrezko egitasmoa zela honako hau. Gure industria eraldatzen ari da, fabrikazio eta kudeaketa sistemen zein

produktuen digitalizazioan sakontzen ari da azken urteotan, eta horrek zibersegurtasunaren desafioei aurre egin beharra dakar. Makinak elkarren artean eta sarera konektatuta egoteak kanpoko erasoaren aurkako zaurgarriago, ahulago bihurtzen zaitu. Horregatik da beharrezkoa babes-sistemak zabaldu eta garatzea. Desafio horri aurre egiteko zailtasun gehien izan dezaketen enpresek, tamaina txiki eta ertainekoek, alegia, desafio horri aurre egin diezaioten, baliabideak eta laguntza bideratu nahi ditugu zentroaren bitartez.

## Gipuzkoan garatuko den proiektu horrek zeini eskainiko dio zerbitzua, industriari bakarrik?

Esandako arrazoiengatik, hasiera-hasieratik industriara bideratutako zibersegurtasun zentro batean jarri dugu jomuga. Ez bakarrik digitalizazioak arriskuak dakartzalako eta horiei aurre egin behar zaielako, baizik eta gure industria ehunari aukera berriak ekar diezazkiokeelako ere bai. Horregatik, zentroak zertifikaziora bideratutako gune bat izango du. Gure enpresek beren produktu eta zerbitzuei zibersegurtasun zigitu moduko bat erantsi badieziaiekete,

beren lanari balio erantsi garrantzitsu bat ematen ariko dira. Hor ere lagundu nahi genieke enpresei. Zibersegurtasunaren gaia lehiakortasun faktore izango da etorkizuneko industrian.

## 4.0 industriaren eta digitalizazioaren barruan kokatzen da?

Esan bezala, digitalizazioak eta 4.0 industriak berekin dakar zibereraso arriskua. Gure helburua da enpresei laguntzea eraso horiei aurre egiten eta, gainera, beren produktu eta zerbitzuei balio erantsi bat ematen alor honetan. 4.0 industriaren olatua dagoeneko hemen da, eta eraldatzen horretara egokitzen jakin behar dugu. Industria baita gure lurraldeko ekonomiaren eta lanpostuen iturburu nagusia; gure ongizatean eta gizarte politikan zuzeneko eragina du industriaren egoerak. Horregatik, 4.0 industriaren kontzeptuak bereganatu eta lehiakortasun



## "BABES SISTEMAK ZABALDU ETA GARATzea BEHARREZKOA DA"

faktore horietan sakontzea oinarrizkoa da gure enpresen etorkizunerako.

## Gipuzkoako zelan uztartuko da Euskadiko Zibersegurtasun Zentroarekin?

Bi proiektuak uztargarriak izan daitezke. Euskadiko Zibersegurtasun Zentroak, bereziki, azpiegitura publikoetan jartzen du azpimarra. Gipuzkoak planteatzen duenak industriarako zerbitzu espezializatuak eskaini nahi ditu eta, hein horretan, proiektu osagarriak izan daitezela lan egingo dugu.

ORAIN GIPUZKOA



Informazio gehiagorako, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

poko jende gehiago etorri da", esplikatu du hark.

#### Bukatu eta berehala, lanera

Elkarrizketetarako hitzordu eskari gehien izan dituzten enpresak, berriz, izan dira: Eroski, Kirolbet, Manpower, CAF, AMPO, IK4 eta San Viator ikastola... "Horietan guztietan elkarrizketetarako hitzordu guztiak bete egin dituzte". Beraz, zentzu horretan, azoka ondo joan dela adierazi dute. Fagor Arrasaten, adibidez, ingeniariak behar dituzte eta "curriculum asko" jaso dituztela azpimarratu dute, eta azokaren une askotan etengabe jardun dutela.

Anekdotaren bat zein beste ere utzi ditu Lanbaik: "Bada Hondarribitik etorri denik ere; eta azoka bukatu eta berehala bi lagun deitu dituzte lanean ahalik eta lasterren hasteko".

Lanbaik erakundeen babes handia du. Horren adierazle da, besteak beste, azokaren inaugurazioan izan zirela Lanbideko zuzendari Borja Belandia, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eta Mondragon Unibertsitateko Bixente Atxa errektorea eta Jon Altuna errektoreordea.



San Martzialen egoera. BERGARAKO UDALA

#### Basurdeek San Martzialgo zelaia hankaz gora jarri dute

Oraingo astean eta joan denekoan, basurdeak sartu dira Bergarako San Martzialen, eta zelaian kalteak eragin dituzte. Kontuan izanda uztailearen 2an dela San Martzial eguna eta herritar askok lekuak hartzen dituztela bazkaritarako, Bergarako Udalak gertakariaren berri eman nahi izan du, inork ezustekorik har ez dezan. Esan du gunea txukuntzen ahalgintzako dela.

## Artilea batuko du Debagoieneko Mankomunitateak uztailean

25-30 tona artile batzeko beharra izango dela aurreikusten dute, 10.000 ardi inguru daude-eta Debagoiengan

U.M. DEBAGOIENA

"Artileari gaur egun ez zaio irteera komertzialik ematen; gure artilea oso lodia da eta lehengai moduan, alfonbrak-eta egiteko bakarrik erabili izan da. Baina artilea ezin da naturara bota, piloa kostatzen zaio-eta desagertzea. Erretzea asko kostatzen zaio, eta errefus moduan tratatzeak kostu handia dauka; eta errefusa izatea ere...". Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen arduradun Lander Arregik emandako arrazoi horien gatik guztiengatik erabaki du

Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko artilea batzeko zerbitzua eskaintzea.

Batu eta, hasiera batean, artile hori Mutrikuko gestore bati saltzea da asmoa. Eta etorkizunera begira, berriz, GHKrekin -Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa- elkarlanean, "Gipuzkoan koordinatu nahiko genuke hau guztiau, artileari irteera komertzial egokia eman ahal izateko", esplikatu du Arregik. Batu ere, kopuru esanguratsua batuko lukete Gipuzkoa osoan: 300-350 tona artile.

#### Euria bada, data aldaketa

Oraingo, baina, eta Debagoienari dagokionez, inguruko artilea ondo itxitako 50 litroko zakuetan sartuta, ondoko zutabeaz azaltzen diren lekuetan eta egunetan utzi behar da -artilea bezperan aterata utzi behar da, lehor utzi ere-. Hori horrela, euria eginez gero, artilea batzeko egunak aldatu egingo dituzte: uztailearen 5ekoa uztailearen 12ra eta uztailearen 6koa, berriz, uztailearen 13ra pasatuko dira.

Bestalde, aurrez derrigorrez telefonoz deitu beharra badago zenbait lekutatik artilea batzen pasa daitezen: Aretxabaleta: Aozaratzako ekarpen gunean; Arrasaten, Garagartza auzoan, Elgetan eta Leintz Gatzagan.

Edozein abisu eman eta zalan-tzak argitzeko, telefono honetara dei egin daiteke: 943 50 47 21.

## Biltze egunak eta lekuak

### UZTAILAK 5

#### Bergara

- Ugarrixa, granja parean.
- Muinondo, trenbide ondoan.
- S. Juan auzoko eliza aurreko plazan.
- Olako minigunean.
- Labegaraieta, eliza ondoan.
- Osintxu (Bergara aldera).

#### Oñati

- Zanartu, Zuazola inguruan.
- Murgialdai, Asentsio ermitan.
- Olabarrieta, bus geltokia.
- Musika Eskola, gaineko aldea.
- Araotzeko minigunean.
- Urrintxoko minigunean.

### UZTAILAK 6

#### Antzuola

- Ekarpene gune ondoan.

#### Arrasate

- Udala auzoan.
- Bedoña auzoan.

#### Aretxabaleta

- Lausita, Izurieta bidegurutzetik 100 m-ra.
- Bañuete, Mendiolako bide parean.
- Oroko bidegurutzean.

#### Eskoriatza

- Zarimutzeko bidegurutzean.
- Apotzagako minigunean.
- Maringo minigunean.

Lagunekin edonora.



Ondo pasa jaietan!

CITROËN  
SPACETOURER  
BUSINESS  
THE WELCOME CAR

9 PLAZA / ALBOKO ATEAK ESKU LIBREKO  
IREKITZEAREKIN / 3 LUZERA ALKERAN / 1,90 M GARAI

CITROËN ADVANCED  
COMFORT-en abantailak ditu

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN profeta TOTAL  
KONTSUMO MISTROA (L/100 KM):  
EMISIOA CO<sub>2</sub> (G/KM):  
CITROËN SPACETOURER: 5,1-6,0 / 133-159



DEBAGOIENeko CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA:  
TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

## Transfobiaren aurkako borroka nabarmendu nahi dute aurten

LGTBI+ Harrotasun Egunaren harira, manifestazioa deitu dute ekainaren 28rako, Bergaran

Amaia Txintxurreta DEBAGOIENA

*Nire identitatea ez dago hanka tartean! Transfobiarik ez!* leloarekin, eguaztenean, ekainaren 28an, 19:30ean abiatuko da, Bergarako San Martin plazatik, Debagoieneko Koordinadora TransMarikaBolloFeministak deitutako manifestazioa, LGTBI+ Harrotasun Egunaren harira. "Transexualak diren pertsonak gizakia gizaki denetik existitu arren, hau da, transexualitate kontu natural eta erreala izan arren, oraindik ezikusiarrena egin nahi duten begi eta pentsamolde

asko dago, baita herria ganoraz hezteko edota informatzeko asmorik ez duten erakunde zein norbanakoak"; berba horiekin, transexualitatearen eta transgeneroaren aldeko eta transfobiaren aurkako borrokari eman nahi diote garrantzi berezia aurten ekimenaren antolatzaileek.

#### "Hezkuntza duina"

Transfobiaren adibidetzat jarri dut Hazte Oir elkartearen autobusa: "Pertsona transexualak eta maite gaituzten pertsonak iraindu nahian, ez dira ohartu bizi



TransMarikaBolloFeminista koordinadorako kideak, prentsaurrekoan. A. T.

osoa, idazteko gaitasuna dugunetik, testuliburuetan azaltzen diguten gezur berbera hedatzen ari zirela, ezer berririk esan gabe", adierazi zuen Ixotz Louyestek koordinadoraren izenean. Modu horretan, hezkuntza sistemak eta

testuliburuak gizonezkoek zakila eta emakumezkoek alua dutela zabaltzen jarraitzen dutela salatu zuten, eta, "gizartearentzat hezkuntza duina" aldarrikatzeko, manifestaziorako gonbita egin zieten debagoiendarrei.



# Gernikan lurperatutako gudari haiei aitortza

Joan den zapatuan, Gernikako hilerriko hobi komun batean lurperatutako 82 gudariari omenaldia egin zieten, 36ko gerran eroritakoei. Eta Eusko Jaurlaritzak erositako lurretan lurperatu zituzten arren, frankismo garaian gorpuok bertatik ateratzeko agindua eman zuen orduko alkateak. Kanposantuko Fermin Lejarraga langileak ez zuen agindua bete, eta hilerriko lurretan hobi komun batean sartu zituen.



M.T.

## "Garrantzitsua da memoria historikoa lantzea"

EDURNE ITURBE ETA ARANTZA ITURBE MARTIN ITURBEREN ILOBAK

Edurne eta Arantza Iturbe ahizpa arrasatearrak Martin Iturberen ilobak dira. Eurek diotenez, etxean ez zuten gerra kontuez askorik berba egiten, baina, osabaren gorpu agertu izanaren harira, liburuetan begiratzeko eta batarekin eta bestearekin egoteko lan egin dute egunotan, istorio horri buruz gehiago jakin guran. Osaba Asturiasen jausi zela jakinik, *Areces. Memoria de una búsqueda* liburuan edota Octubre taldearen *Arrasate. Una generación cortada* liburuek gehiago jakiteko aukera eman diete.

### Zer zenekiten osaba Martin Iturberi buruz?

E.I.: Osaba Martini gertatutakoagatik pentsa ze mina izango zuen gure aitak, ez zuen ia ezer kontatzen, ezin zen horretaz hitz egin. Gerora jakin izan dugu, adibidez, Amaiur batailoiko gudaria zela osaba. Frankismoa duela 40 urte bukatu bazen, zer gertatu da urteotan, ez dugula orain arte ezer jakin izan? Gainera, guri orain nork eskatu behar digu barkamena? Barkamena, edo eskerrak. Izan ere, gudari eta miliziano haiek guztiak Euskal Herri libre eta demokrata baten alde egin zuten borroka, eta begira gaur egun nola jarraitzen dugun. 40 urteotan izan duguna al da demokrazia?

A.I.: Aramaion badugu lehengusina bat osaba Martin ezagutu zuena. Hark gogoratzen du nola gerra garaian euren etxera joan ziren "oporraldi" baten bezala Martin eta Rufo, beste osaba. Itxuraz, kanoikadak entzuten ziren inguruan, baina Aramaion sekulako bakea zegoen.

### Bazenekiten haren gorpu non zegoen?

A.I.: Nik entzun izan dut Gernikan lurperatuta zegoela, baina gainontzeko anai-arrebek ez zuten horren berririk. Asturiasen erori zela jakinda, gorpu bertan egongo zela uste zuten. Jakin ahal izan dugunez, orain jarri dutenaren aurretik ere bazen beste plaka bat Gernikako hilerrian, Sabin Garitagoitia soraluzetarraren izenarekin. Haren amak bazekien semea han zegoela, Lejarraga ehorzleak esanda; urtero loreak eramaten zituzten Domu Santu egunez. Familia horri esker jakin ahal izan dute hobia bertan zegoela.

**Asturiasko Areces herrian jausi zen osaba, beste gudari eta miliziano euskaldun asko bezala.**

A.I.: Areces hogei biztanleko herria zen, eta han gelditu ziren hildakoetako asko. Hortaz, hango herritarrei tokatu izan zitzairen han jausitako gudari guztien gorputzak lurperatzea. Pentsa, lur zati hari *El pradón de los vascos* esaten zioten (Euskaldunen zelaia). Bertako herritar batek jakinarazi zuen non zeuden gorpuok.

### Omenaldia bera nola joan zen?

E.I.: Ondo egon zen, uste dut garrantzitsua dela memoria historikoa lantzea eta hemen gertatutakoak ez ahaztea.

A.I.: Daukagun pena da aitak eta osabak hau bizi ez izana. Izan ere, beranduegi datoz aurkikuntza eta aitortza hauek. 40 urte luzez itxaron behar izan dugu.

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!

## Kreditu-txartel Berria

**EROSKI club**

Bazkide izatearen onurak.

Egin ezazu orain eta metatu dirua zure txartelean

10€

Doakoa eta EROSKI gehiago aurrezteko pentsatua



Eskudirua komisio barik

300 euroraino egunero, txartelaren muga erabilgarria kontuan hartuta, zure ohiko ordainketa eran.

Aurreztu Eroskitik kanpoko erosketetan: zapatak, zinemarako sarrerak...

Txartel bakarra EROSKIIn!

itzultzen dizu

%1<sup>(1)</sup>

Zure ordainketak egiteko eta Eroski Cluben abantailekin: bazkideentzako eskaintzak, aurrezpen-txartelak, Travel Club puntuak Eroskin, eta askoz gehiago.



Entzuten zaitugu

944 942 962



www.eroski.es/contacto

(1) Ez dira sartzen establezimendu hauetako erosketak: hipermerkatuak eta haien gasolindegia, supermerkatuak eta haien gasolindegia, elikagai-dendak, jokoari edo apustuei lotutako erabilerrak eta dirua ateratzea edo kuxetan eskudirua eskatzea -ez direlako ondasunak edo zerbitzuak erosteko eragileak-. Itzuli beharreko zenbatekoa erosketa gabietan oinarrituta kalkulatzen da -abanuak eta itzulketak kenduta-, salbokiak jakinarazten duen jardueraren arabera.

Santander Consumer Finance S.A. jaulkitako txartela, inolako urteko mantentze-kuotarik gabe, 10 euroko eskaintza ekainaren 1etik uztailearen 31ra arte igorritako txartel guztietan, irailaren 17a baino lehenago Eroski Club Mastercard kreditu-txartelarekin erosketa bat egitean. Eroski 10 euro sartuko dizkizu epea igaro ondoren.

**EROSKI**

ARRASATE

Muskola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30



## "Gure pena da aitak ezin jakin izatea bere anaia non zegoen"

MIREN URIBETXEBARRIA MODESTO URIBETXEBARRIAREN ILOBA

Miren Uribetxebarria eskoriatzara Modesto Uribetxebarriaren iloba da. Amaiur batailoiko gudaria zen osaba, eta haren gorpua Gernikako hilerriko hobi komunean dago.

### Zer moduz joan zen zapatuan Gernikako ekitaldia?

Oso ondo, oroitzapen politarekin geratuko naiz. Une hunkigarriak ere izan ziren, familiarterko batzuek testigantzak irakurri zituztenean, adibidez. Eskerrak eman nahi dizkiet bilaketa lan horretan eta memoria historikoa lantzen aritu izan diren elkartei.

### Aurrez bazenekiten osaba Gernikan zegoela?

Duela bizpahiru urte jakin genuen, kontu honen harira gurekin kontaktuan jarri zirenean; lehenago ez genekien. Nire aitak esaten zuen Santoñan hil zela, baina berak ez zuen jakingo Gernikan lurperatuta zegoenik, bestela esango zuen. 2009an hil zen gure aita, eta hori da gure pena, berak ezin jakin izatea anaia non zegoen. **Lurperatzaileari esker daude gorpuok Gernikako hilerrian.**



M.T.

Bai. Itxuraz, orduan eraturako Eusko Jaurlaritzak Gernikan hilobiratu zituen gudariak, nor bere hilobian. Gerra ostean, baina, gorputzok hilerriatik kanpo ateratzeko agindua eman zuen alkateak. Baina hilerriko langile Fermin Lejarragak hobi komun batean lurperatu eta guztien izen-abizenekin zerrenda bat egin zuen. Harrapatu izan balute, hil egingo zuten, ziur. Beste batzuek ez dute halako zortetik izan, eta, nahiz eta bila aritu, ez dute lortu haien desagertutako familiarterkoak non dauden jakiterik. Eta Gernikan lurperatutako hainbaten familiarterkoak topatzerik ere ez dute izan, itxuraz.

### Zuen etxean berbarik egiten zen gerrako kontuez?

Oso gutxi. Azken urteetan, agian, gehixeago, baina, gehienbat, gose kontuei buruz-eta... Orokorrean, gutxi hitz egiten zen.

## "Kapitulu bat ixteko balio izan digu osabaren gorpuaren aurkikuntzak"

IZASKUN LAZPIUR HILARIO BILBAOREN ILOBA

Loiola batailoiko kide izan zen Hilario Bilbao Bazargoitia gudari bergararraren iloba da Izaskun Lazpiur. Amaren anaia 22 urte zituenetik desagertutatz zuten, non zegoen jakin barik.

### Zer dakizu zure Osaba Hilariori buruz?

Etxean entzunda, beti jakin izan dugu gerran hil zela, baina gerora, duela urte pare bat, Aldunditik nirekin kontaktuan jarri ziren, eta horren harira jakin dugu gehixeago. Egia da, baina, nire seme-alabak txikiak zirenean nire amak egunero esaten ziela etxean genuen osaba Hilariorren argazki bati musu emateko. Hortaz, etxean beti izan dugu gogoan osaba.

### Zer moduzkoa izan zen omenaldi ekitaldia?



M.T.

Zoragarria, oso polita. Hilobira loreak eramateko aukera izan genuen, eta ekitaldi serioa eta polita izan zen. Gainera, honek bizitzako etapa edo kapitulu bat ixten lagundu digu. Bergarako alkatea ere ekitaldian izan zen, eta gertutasuna erakutsi zigun bergararroi; eskertuta gaude

horregatik, eta pozik omenaldi ekitaldiarekin.

### Aurkikuntzari dagokionez, zer da zuendako?

Egia da, aukeran, berandu samar datorrela, urte mordo pasatu dira eta. Horregatik, pena daukat nire amagatik; zenbat urte bere anaiari buruz entzuten, eta, azkenean, ez zuen jakiterik izan Gernikan lurperatuta zegoela. Beti esaten zuen: "Nire anaia koitadua, 22 urterekin joan zen, eta zer izango zen berataz?". Desagertu egin zela esaten zieten. Gerora, begiratzan hasi ziren, eta jakin ahal izan dugu ospitalean hil zela. Frontean gaixotu egin omen zen, eta, horregatik, ospitalera eramane zuten, eta hil egin zen bertan. Orain, behintzat, badakigu zer gertatu zitzaion eta non dagoen lurperatuta. Eskerrak hilerriko langile hari, bestela sekula ez genuke-eta hau guztia jakingo!

## Debagoieneko gudariak

Gernikan lurperatutako 82 gudarietatik 71 gipuzkoarrak dira. Horien artean, hamar debagoiendar daude.

- Casimiro Aguirrezabala Azcarate (antzuolarra, Saseta batailoia).
- Francisco Zabaleta Guerrico (aretxabaletarra, Loiola batailoia).
- Telesforo Galdotz Ugarte (arrasatearra, Amaiur batailoia).
- Martin Iturbe Uribe (arrasatearra, Amaiur batailoia).
- Jose Fernandez Palacio (arrasatearra, Loiola batailoia).
- Hilario Bilbao Bazargoitia (bergararra, Loiola batailoia).
- Luis Elortza Zabaleta (bergararra, Loiola batailoia).
- Modesto Uribechevarria Galdos (eskoriatzara, Amaiur batailoia).
- Nicasio Letamendi Elizburu (oñatiarra, Loiola batailoia).
- Esteban Ugarte Urcelay (oñatiarra, Loiola batailoia).

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### ATXEN MUNGIA /

#### NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.eus

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10  
Tel.: 943 71 21 12  
www.zenbaki.eus  
zenbaki@zenbaki.eus

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@uribesalgo.es



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

## Bergarako kirolaren plan estrategikoa

2017an, hurrengo lau urteetarako Bergarako Kirolaren Plan Estrategikoa idazten dihardugu.

Herriko kirolaren norabidea birdefinitzeko ahalegina egiten ari gara, helburu eta lan ildo nagusiak markatzeko eta ditugun baliabideak modu egokienean erabiltzeko asmoarekin.

Eguneroko dinamikan murgilduta gaudenean, lanak aurrera ateratzen eta ohiko arazoak konpontzen, ez dugu izaten astirik etorkizunera begiratzeko.

Batzuk eroso daude aipatutako dinamikan, baina, duda barik, noizean behin, geratu, hausnartu eta erabakitzea komenigarria izaten da.

1975eko eta 1992ko Europako kirolaren gutunetan, kirola egiteko eskubidea onartzen bazen ere, ordutik hona gauzak asko aldatu dira.

### BALIOETAN HEZI, LODITASUNA EKIDIN, INTEGRAZIOA ERRAZTU, DENBORA LIBREAZ GOZATU...

Gaur egun, jarduera fisikoa/kirola premiazkoa dela esan dezakegu, eta erakunde publikoetatik ahaleginak egin behar ditugu gizarteak eta herritarrek dituzten premiei erantzuteko.

Gure gizartearen bilakaera gero eta azkarragoa da eta

kirola ere ez da atzean geratzen, etengabe aldatzen ari da, eta prest izan behar gara planteatzen zaizkigun erronkei aurre egiteko.

Gaur egun, kirolaren bidez makina bat helburu lortzeko ahaleginak egiten ditugu: balioetan hezi, osasuntsu-zoriontsu izan, loditasuna ekidin, integrazioa erraztu, berdintasuna sustatu, denbora libreaz gozatu, giza harremanak sustatu... Ez dira helburu makalak, ezta errazak ere.

Oraingo honetan, gure kirola hobetzeko plan estrategikoa berria egiten ari garela, saio ireki eta interesgarria izan genuen herritarrekin aurreko astean.

Izan ere, ezin dugu ahaztu herriko kirol-dinamika beste eragile askoren eskuetan ere badagoela: elkarte, eskola, osasun-zentro, guraso, zale...

Guztiei eskerrak eman nahi dizkizuet eta, honekin batera, zuen konpromisoa, lana, ekarpenak eta exijentzia mantentzera gonbidatu nahi zaituztet.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Hautematu

#### GOIZALDE LANDABASO

[HTTPS://LABUR.EUS/5NUXF](https://labur.eus/5NUXF)

*Hautematu* zen gure filosofia irakasleak behin eta berriro errepikatzen zuen berba. Irakaslearen jardunaz ez genuen ezertxo ere ulertzen, dena gogaikarria begitantzen zitzaigun; [...] Ez genekien zer esan nahi zuen, eta errepikatzearen errepikatzeaz berba zainetan sartu zitzaidan. Hiztegia begiratu nuen azkenean. Gure filosofiako irakasleak mundua hauteman genezan nahi zuen, baina ez zuen asmatzen zelan azaldu; mundua iheskorra zen bere atzamar arteetan. [...] Kant, Rousseau edo Platonengan ez

nuen ezelango interesik, baina onartu behar dut gizon horiek guztiek (gizonak baitziren denak) eta batzuetan esaten zituzten gauzek nigan zerbait piztu zutela. Irakasleak, ordea, ez zuen asmatu.

Akordatu naiz honetaz *Filosofaren defentsak* liburua irakurri ostean. Ez dira filosofiaren garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara, errutinaren morroiak-edo bihurtu gara, filosofia lehen baino lehen aska gaitezen. Hori pentsatu ei zuten Espainiako Hezkuntza Ministerioan filosofia batxilergotik bazterterakoan. Filosofia suntsitu. Zein bitxia, e!, gizatasuna dakarrena, pentsamendura hurbiltzen

gaituena, hausnarketarako bideak zabaltzen dituen, bestea ulertzeko gakoak ematen dizkiguna, izaki kritikoak hazten eta hezten dituen, suntsitu. Beharbada, dana lanbrotute ikusten dut, baina a ze kasualitate, e! Zertarako balio dute filosofiak eta humanitate diziplinek orokorrean? Zertarako nahi ditugu gizabanakoak humanoideak lor baditzakegu? [...] herri modernoa, aurreratua, etorkizun handikoa eta bla eta bla eta bla nahi dugu. Benetan? Egun beltzenetan pentsatzen dut ez ote garen androide etorkizun bat eraikitzen ari. Eta nik ez ditut ejerzitoak maite, batere ez.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amala Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.  
Erredaktore burua  
Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
Zuzendari komertziala  
Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa

arduraduna Marta Leturia.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## PROTAGONISTA

# "Ahots baxuen abesbatza erronka pertsonala izan da"

**AITOR GARITANO ABESBATZA ZUZENDARIA**

**Mireia Bikuña BERGARA**

Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren udako ikastaroan lortu zuen zuzendari izateko lehen mailako titulazioa Aitor Garitano bergararrak. Ikasitakoa praktikan ipintzeko, abesbatza propioa ipini du martxan: Sutargi abesbatza. San Juan egunean egingo dute lehen emanaldia. **17 urterekin zuzenduko duzu Sutargi abesbatza. Oso gazte!** Udako ikastaroan landutakoarekin zerbait egin behar nuen. Hori horrela, martxo hasieran, Bergarako abesbatza guztiei gonbidapen gutun bana bidali nien nire proposamena aurkezten: ahots baxuen abesbatza.

**Eta zer-nolako erantzuna izan duzu?**

Oso ona. Orfeoiko, Alai taldeko, Aritzetako, San Joxepeko eta parrokiako koruko kideak daude. Zaharrenak 80 urte ditu eta gazteenak 35. Egia esan, gustura nago.



Aitor Garitano zuzendari bergararra. XABI URZELAI

**Zortzi pieza aukeratu dituzue zapaturako. Erronka izan da horiek ahots baxuetara egokitzea?**

Lan mardula izan da. Kantuak lau ahots mistoren abesbatzetarako moldatuta

zeuden. Nik egin dudana izan da horiek moldatu ahots baxuetara, harmoniak, sonoritatea eta akordeak kontuan hartuta. Berriak gara, eta, hala, hutsetik hasi behar izan dugu.

**Aita Madina, Xabier Lete, Urretxindorrek, Mikel Laboa... Indartsu hasiko duzue ibilbidea.** Pieza ezagunak aukeratu ditugu. Horregatik, erronka handia izango da. Handia eta polita. Kontuan izan behar da hamabi entsegu bakarrik egin ditugula. Hortaz, taldeko kideek aurretik dugun esperientzia baliatu beharko dugu lehen kontzertuan.

**San Juan eguna aukeratu duzue estreinaldirako.**

Udako soltzioaren harira egin gura nuen. Suak eta argiak bat egiten duteneko. Nahasketa horretatik sortu zen taldearen izena: Sutargi.

**Aurrera begira, ze bide izango du taldeak?**

Oraingoan, urtean bi egingo ditugu: sanjuanetan eta Gabonetan. Kontuan hartu behar da taldeko kideak beste abesbatza batzuetako kide ere badirela. Ez dut beste abesbatzen dinamika apurtuko.

**Aurten ere egingo duzu zuzendaritza ikastarorik?**

Asmo hori nuen, baina uztailean Munduko Gazte Abesbatzaren entseguetan egon behar dut. Otsailean egin nituen probak, eta udako oporretan Budapest aldean ibiliko naiz abesbatzarekin kontzertuak egiten. Beste erronka handi bat niretzat.

## HAU BE BADOGU!

**'#Adarrasaria' Fermin Muguruzarendako**



Fermin Muguruzak jaso zuen, eguaztenean, Donostia Kulturaren Adarra Saria. Gaztetxeei eta Le Bukowski aretoari eskaini zien saria musikariak.

@muguruzafm: "Eskerrik asko. Zuek zarete nire ibilbidearen saria"

@foteropano: "Bikain baino bikainago @muguruzafm eta Kataluniako Big Band. #adarrasaria".

@BeatBeitia: "Gaurkoa... Itzela. Onena heltzeaz badago, zer dator! Zorionak Fermin Muguruza #AdarraSaria".

**Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna**

Sare sozialetan oihartzuna izan zuen ekainaren 20an izan zen Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna, eta #OngiEtorriErrefuxiatuak trending topic izan da aste osoan zehar.

@aidazelig: "Bizimodu duin eta baketsua izateko eskubidea dute errefuxiatuek. Harrera egiteko ardura dugu #OngiEtorriErrefuxiatuak".

@CEAREuskadi: "Gaur Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean ozenki esaten dugu #OngiEtorriErrefuxiatuak!".

**SGAE, berriz ere 'trending topic'**

SGAEren hainbat bazkide eta telebista ikertu dituzte asteon, ustezko ustelkeria kasu bat dela eta. Gauerdian emititzen zen musikari esker ustez milioiak irabazi zituen autore eta argitaratzaileen elkarteak.

@nenasub2: "SGAE, Mourinho, Cristiano Ronaldo, Messi ere Ogasuna dira? Edo bakarrik txiroak gara?" (itzulita).

@X\_net: "Baina gogoratu, musika Interneten entzutea lapurtzea da! SGAEko adituek hori diote..." (itzulita).

## ITURRI ONETIK

## Belceblues, festibalez festibal


Begarako Belceblues musika taldeak atzera ere ekin dio martxari eta hitzordu esanguratsuak lotu ditu udarako. Uztailaren 13an, esaterako, Hondarribiko Blues Jaialdian izango dira. Bi kontzertu eskainiko dituzte: goizean didaktikoa gazteentzat eta iluntzean agertoki nagusian. Horrez gain, Diablues&Bluecifer bikoteak Donostiako Jazzaldian joko du uztailaren 22an -Belceblueseko abeslariak eta lagun batek osatutakoa-. Tokiko taldeen hautatze prozesuan sailkatu ziren, Tabakaleran kontzertu bat egin ondoren.

## GORA ETA BEHERA



## Bertakoa balioan jartzearen garrantzia

Badatoz oporrak. Bidaia garaia askorendako. Urrutiko altxorrek ikusteko beharra sentitzen da askotan, gainera. Ba, justu kontrako jarrera txalotu du irakurle batek: "Asko gustatu zait Ez dago urrutira joan beharrik ekimena, Joxefe Diaz de Tuestak Goienako blogean abiarazi duena. Uste dut sarri ez garela jabetzen bertan dugunaz, eta halako ekimenez balioan jartzen dute".



JOXEFE DIAZ DE TUESTA

## Hegoak oinetan

**LEIRE MARTIN PINEDA**

MARTIN PINEDA FAMILIAREN IZENEAN BERGARA

Zaila egiten zaigu hemen labur adieraztea nola sentitzen garen hainbeste jaso ondoren eta hainbeste jende ezberdinengandik. Eta are eta zailagoa eskertu ahal izatea Leireren alde eta egoera berean dauden pertsonen alde egin den gutzia. Azken hilabeteetan askotan izan dugu buruan momentu hau; bagenekien ezinezkoa izango zela paragrafo gutxi batzuetan adieraztea zer-nolako emozioak bizi izan ditugun denbora honetan zehar.

Gaitz honekin bizi diren familiek errutina guztiak aldatu behar izaten dituzte gaixoari laguntza emateko, eta Leire bezalako pertsonen egunero kementsu borrokatu behar izaten dute euren adineko gaztetxoaren pareko bizitza bete-betea izateko. Eurentzat, ikastea, jolastea, lagunekin ondo pasatzea edo kontzertu batera joatea, agian, zailagoa izan daiteke, baina adoretzu jaio direnentzat ia ez dago gainditu ezinezko oztoporik.

Denborarekin, eta zailtasunak zailtasun, gauza pilo bat deskubritzen ari gara; eta, ziur aski, egoera gogor hau izan ez balitz, ez genituzkeen inoiz jakin izango.

Horrela ikasi dugu aingeru ezberdinak daudela; alegia, Leireren lau aingeruek hegoak hanketan dituzte, eta basamortuetan zehar edo

mendietan gora ibiltzen dira beti arrazoi solidarioen alde, IGAM siglaren azpian ezkutatuta. Ikusi dugu pertsonaia ospetsuak telebistaz kanpo gu bezalako pertsonak direla, hurkoaren gaitzaren aurrean sufritzen dutela, eta eskatzen zaien guztietan hor daudela behar den guztirako. Orduak eta orduak konpartitu ditugu talde antolatzailearekin; euren onena eman dute dena ondo baino hobeto irten dadin, eta horrela izan da, ezin hobea.

Ikusi dugu, baita ere, milaka pertsona anonimo euren laguntza osoa eskaintzen, honen moduko arrazoi noble baten alde: sendabidea gero eta gertuago duten gaixotasunen ikerketa sustatzea.

Eta jakina, lekuko izan gara, ikusi egin dugu, Bergarak, herri osoak, dena ematen duela beharra duenari laguntza eskaintzeko orduan.

Gure betiereko esker ona guzti-guztiei, Leireekin batera aurrera jarraitzeagatik!

### Eskerrik asko!

**JUAN MARI SANSIÑENA, ITXASNE LAZKANO, VICKY MATEOS, NURIA SANTAMARIA, AMAIA MENDIZABAL AITZIBER ARRIETA, ZIHORTZA MARZAN ETA BILAITZ MARZAN**

JAIALDIAREN ANTOLATZAILEAK BERGARA

Bergarako Glutenik Gabeko Taldearen izenean, maiatzaren 26an egindako jaialdira agertu ziren herritar guztiei gure eskerririk beroenak eman nahi dizkiegu beraien laguntzagatik.

Jaialdi hau ez litzateke posible izango ondorengo

laguntzailerik gabe: Eroski, Super Amara, Miner Ardoak, Eki-lur parafarmazia, Aspil, Magora Bakery, La Oriental gozotegia eta Bergarako Udala.

Ez ditugu ahaztu nahi jaialdia aurrera eramaten lagundu zigutenak: Xabier Mujika eta Agustin Larrañaga herriko gozogileak; Ion Unamuno hizlaria; Josu Leturiari, globoflexiagatik; eta Bergarako Erraldoi Taldea, musika eta erraldoiak ekartzearen.

Mila esker guztioi eta datorren urtean elkar ikusiko dugulakoan agurtzen gara.

### Mila esker, bihotzez!

**ION ANDER GARITANO**

IGAM TALDEAREN IZENEAN BERGARA

Ezinezko egiten zaigu beste modu batera hastea eskutitz hau. Mila esker Bergara, Antzuola eta inguruko beste herri batzuetatik etorri zintaten guztioi! Zapatuan eman zenuten erantzuna izugarria izan zen, aurreikuspen guztiak gaindituta, egun osoan ibili zen jendetza eta sortu zen giroa ikusteak hitzik gabe utzi gintuen. Emozioz beteriko eguna izan zen, hunkigarria.

Bergara herri eskuzabal eta solidarioa dela argi geratu da, elkarlanean gauza handiak lortzeko kapaz dena. IGAM taldea osatzen dugunoi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen herritar, enpresa, erakunde eta proiektu honetarako gure alboan izan zaretan lagunei. Leirek duen gaitza ezagutaraztea lortu

dugu, jendearengana heldu eta norberak ahal zuen heinean laguntzea Leireren eguneroko bizitza erraztu eta inbestigazioan aurrera egiteko laguntza lortzeko. Gure lana amaitu da, baina herrian sortutako olatu erraldoi hau baliatu behar dugu inbestigazioak aurrera egin dezan Leireren eta gaixotasun bera dutenen ametsa egia bihurtzeko.

Bihotz-bihotzez, IGAM Taldea osatzen dugun kirolari eta laguntzaileen eta proiektu honetarako izan dugun kolaboratzaile taldearen izenean, mila esker guztioi! Aupa Leire!

### Andoni Elejalderi erantzuna

**RIKAR AYASTUI APEZETXEA**

JUBILATUA ETA ZIKLOTURISTA OÑATI

Egubakoitzeko GOIENAn, 732. zenbakian, Aramaioko atalean, argitaratutako iritzi baten harira idazten dut. Andoni Elejaldek ondorengoak esan zituen *Errepide nagusien erabilera* testuan: "Bizikletan ari den jende gehiena denbora librean dago eta hauetako asko jubilatua dira (...) Batzuen gozamenerako beste batzuen beharrak oztopatzen dira, eta hori errespetu falta da...". Ondorio honetara iristen da bailarako errepideetan daukagun egoera aztertuta.

Bizikletan eta automobilen arteko elkarbizitzan, bizikletek autoak oztopatzen omen dituzte... Errepide sarea auto-gidariena soilik dela


usteko du honek... Lanera kotxez joaten diren beharginek bakarrik erabili ditzaketela... Txirrindulariek ezin omen ditugu errepideak gure gozamenerako erabili... Lanera bizikletan joaten denik ez dagoela usteko du honek... Baina zer uste duzu zuk: zurea bakarrik dela errepidea, edo? Guztiok ordaintzen ditugu zerga berdinak eta errepideen mantentzea. Bide sarea publikoa da, autoz, bizikletaz zein traktorez ibili! Eta zure proposamenarekin, berriz, jota geratu naiz: "Astegunetan, soilik entrenatzen ari diren txirrindulari autorizatuei zabaltzea errepideen erabilera...". Bailaran bizikletan ibiltzen garenotatik, zenbat dira profesionalak? Lanera bizikletaz doazenak zuk eramango dituzu lanera?

Ni ere jubilatua naiz eta nire denbora librean, nire gozamenerako erabiltzen ditut bailarako errepide eta bidegorriak. Kontua da, zoritxarrez, ez dela horrenbeste inbertitu bidegorri sareetan, zuk esaten duzunaren kontra. Bidegorri sarea ez da beharko genukeen bezain zabala. Ez daukagu bizikletarako kultura eta balore transmisio egokirik. Zure iritzia da horren erakusle. Askotan hartzen dut Aramaioko bidea, trafikoko gutxiago egongo delakoan. Hemendik aurrera, Aramaion bizi zarela suposatuz eta lanera kotxez mugitzen zarela pentsatzean, birritan pentsatuko dut bertako bidea hartu ala ez. Ez naiz arriskatuko!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





# 1.000 lagun izen emanda 'Zeuk iñ, zeuk jan'-erako

Ekainaren 15ean zabaldu zen izena emateko prozesua udal webgunean, eta 90 minutuan agortu ziren hasiera batean jarritako ia 600 plazak. Hori ikusirik, BAZen izena emateko aukera jarri zen, eta astelehenera arte egon da apuntatzeko tartea

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Urtetik urtera etengabe hazten ari den ekimena da *Zeuk iñ, zeuk jan* herri bazkaria. Lau urtez jarraian Portaloi inguruan egin zen, Maisu Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kaleen artean, baina, lekua txiki geratzen zela ikusita, iaz Azoka Plazan egin zen lehendabizikoz.

## Ezbairik gabeko arrakasta

Herri bazkari berezi horren harreara ona neurtzeko adierazle garbiena urtero jatun kopurua gorantz doala da, baina ez da bakarria. Izen emateak ere badira herritarrengan ilusio berezia pizten duen erakusle garrantzitsu bat. Iaz, 731 lagunek eman zuten izena alde aurretik, horietatik 222 erreserban zeudela; azkenean, denek izan zuten Azoka Plazan bazkaltzeko aukera. Aurten, aldiz, ekainaren 15eko 08:00etan zabaldu zen izen ematea udal webgunean, eta 09:30etarako jada agortuta zuden eskuragarri jarri ziren ia 600 lekuak.

Iaz izen ematea 700 lagundik gora egin zuten arren, kopuru baxuagoa batu zen bertan bazkaltzera. Gehiegizko izen emateen esperientzia ikusita, udal langileak lanean ari dira aurtengo kopurua ahalik eta gehien zehaz-



Iaz egin zuten lehen aldiz bazkaria Azoka Plazan. GOIENA

teko. Kultura Saileko langileak erreserba egin dutenei deika ari dira egunotan, zehazki zenbat lagun elkartuko diren jakiteko, eta horren arabera neurriak hartzeko.

## Hainbat aukera

Azkenean, kopurua 600-700 lagun buektakoa bada, azoka eremua ahalik eta gehien baliatzea izango litzateke Udal Gobernuaren baloratzen ari den aukeretako bat.

Horrez gain, azokari itsatsita dauden Ferixalekuko etxeen

azpiko espaloiak baliatzea da beste konponbide bat. Baina kopurua 1.000tik gertu badago, azoka inguruko kaleetan edota Ferixalekuko aparkalekuaren zati bat erabiltzea baloratzen ari dira.

Udala badabil mahai eta su gehigarriak alokatzeko enprekin harremanetan, arrasatear guztiek herri bazkaria gozatzeko aukera izan dezaten. Behin zenbatzea eginda, egubakoitzean, beranduenez, erabakiko da zenbat mahai gehigarri eta non jarriko diren.

## Gazteluondoko ikasleek 453 euro batu dituzte Harremanentzat

Arizmendi Ikastolaren eguneko merkatu solidarioan saldutakoari esker lortu dute dirua 6. mailako ikasleek

## X.G. ARRASATE

Ekainaren 9an ospatu zuten Arizmendi Ikastolaren eguna. Biteri izan zen jaiaren erdigune, tailerrekin eta askotariko zuzenekoekin, baina, horrez gain, merkatu solidarioa ere jarri zuten. Bertan, plastika ikasgaien sortutako eskumuturrak eta giltzarriak jarri zituzten salgai, ondoren bildutako dirua helburu solidario batera bideratzeko.

## Dirua, Mozambikera

Guztira, 453 euro batu zituzten 6. mailako ikasleek, eta ostean,

Harreman GKEko kideekin batu ziren bildutako dirua entregatzeko.

Ekitaldi horretan, Javier Ruiz de Munain Harremaneko presidentea ikasleei zuzendu zitzaion, diru hori Mozambiken duten proiektura bideratuko dela esateko, eta esker oneko hitzak pertsonalki emateko.

Ostean, proiektu horren zuzendari Beñat Arzadunek hartu zuen hitza. "Mozambiken lanean ari gara, bertako familiak miseriatik pobrezia pasatu daitezkeen", adierazi zuen Arzadunek.



XABI GOROSTIDI

## Uda denboraldirako aparkaleku

Ekainetik irailera bitartean kiroldegi alboko aparkalekua txiki geratzen dela ikusita, iaz egin bezala, Arrasateko Udalak Arruena parkeko berdegunean aparkatzeko baimena emango du baina denboraldia amaitu bitartean. Igerilekua zabalik dagoen denbora tartean izango da aparkatzeko aukera, 10:00etatik 20:30era.

**eya**

Ondo pasatu  
sanjuanak!

Etxetresna elektrikoak  
eta dekoraziorako lanparak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51  
ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

*harategia*

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28



Kiroldegiko sarrerako oroigarriak zabaldu zuten eguna irudikatzen du. XABI GOROSTIDI

# 40 urte herriaren zerbitzura

Bihar San Juan eguna izateaz gain, Musakolako kiroldegiak izango du jairako arrazoirik, lau hamarkada beteko dira-eta inauguratu zutenetik. 1977ko ekainaren 24an zabaldu zituen atek eta denbora tarte honetan aldaketa handiak izan ditu

## Xabi Gorostidi ARRASATE

40 urte betetzea depresioaren sinonimo izaten da batzuentzat, baina ez da Musakolako kiroldegiaren kasua, urteak aurrera joan arren zerbitzu duina ematen jarraitzen du eta.

Egun, osasuntsu dago, eta horren erakusle da momentu honetan 5.900 abonatu dituela eta

herriko hogeiki kirol talde inguruk erabiltzen dutela, talde guztien %80ren bueltan.

## Atzera begira

Jose Antonio Altuna *Txatillo* zen Arrasateko alkatea inauguratu zutenean, eta garbi gogoratzen du herrian ilusio handia piztu zuen proiektua izan zela.

"Garai zailak ziren politikoki eta ekonomikoki. Baina ilusio handiz egin genuen lan amets hura gauzatzeko, eta herritarren erantzuna bat-batekoa izan zen. Egarririk handia zegoen".

## Denentzako igerilekua

Kiroldegia eraiki aurretik Zerajerako igerilekua bakarrik



Inaugurazio egunean. ARRASATEKO UDALA



Kafetegia, gimnasioaren lekuan. A. UDALA



Kiroldegia, duela 40 urte, airetik ikusita. ARRASATEKO UDALA

zegoela gogoratu du *Txatillo*-k. "Langileen semeen erabilerara mugatuta zegoen, baina Gaspar Ezkurra bezalako presidenteez eskuzabal jokatu zuten, eta langileen semeak ez ginenok ere erabili genuen".

Ekainaren 24ean inauguratu bazen ere, egun bat lehenago Altuna bera izan zen igerilekua probatzen lehenetakoa. "Denbora luzea pasatu genuen inaugurazio egunerako dena prest izateko. Eta horretan ari ginela, egun bat lehenago probatzea erabaki genuen. Egia esan, luzea egin zitzaidan igerilekuko 50 metroak zeharkatzea".

## Oharra

San Juan jaiak direla-eta ordutegi berezia izango du Musakolako kiroldegiak.

Ekainaren 23an 19:00etan itxiko ditu atek eta ekainaren 24an itxita egongo da. Ekainaren 25etik aurrera, udako ordutegiarekin hasiko da, 09:00etatik 21:00ak arte; eta kanpoko igerilekuen kasuan, 10:00etatik 20:30ak arte.



## AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN  
• BIOERAIKUNTZA

Zarugalde kalea 6 - 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 08 27 39  
607 95 79 11  
[www.asreformak.net](http://www.asreformak.net)

Aurrera gure tradizioak! Aurrera Arrasate!  
Bihotz-bihotzez! Aupa San Juan Jaiak!

Gora,  
San Juan  
jaiak!



## ARPE

Ile apaindegiko artikulua

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
  - Aholkularitza.
  - Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09





Bizipoz proiektuaren aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten kideak. XABI GOROSTIDI

## Hiru proposamen nagusi Bizipoz proiektuan

Bizipoz proiektuak bete du bere zikloa Arrasaten eta astelehenean egin zuten agur emanaldia. Bertan sortutako hiru taldeek euren proiektuak aurkeztu zituzten: ibilaldi osasuntsuak, nagusien kontseilua eta udalerriko immigrazioari buruzko aurreiritziak

### Ane Vitoria ARRASATE

Bizipoz proiektuaren funtsa zahartzaro aktiboa sustatzea dela kontuan izanik, proiektuaren koordinazio lanetan Arrasateko erretiratu talde bat izan da. Parte hartzaile guztien interesak zeintzuk diren jakitea funtsezkoa izan denez, proiektua martxan jarri zenean, partaide bakoitzari elkarrizketa pertsonalak egin zizkioten. Behin gustuak zeintzuk ziren jakinda, horien araberrako lantaldeak sortu ziren, eta, guztira, hiru izan dira garatu diren proiektuak: ibilaldi osasuntsuak, nagusien kontseilua eta Arrasateko immigrazioari buruzko aurreiritziak.

### Aurkezpen ekitaldia

Proposamen bakoitzaren nondik norakoak azaltzeko, aurkezpen ekitaldia egin zen astelehenean Kulturaten. Eta bertan, besteak beste, Amaia Aspiazu Gizarte Ongizateko zinegotzia izan zen. Ibilbideak sustatzea izan zen astelehenean aurkeztu zen proiektuetako bat. Horren helburu nagusia, "kolesterolaren ruta" alde batera utzita, bestelako

ibilbideak antolatzea da, eta, horretarako, Besaide Kirol Elkarteko kideen laguntza izan dute. Gainera, ibilbide horiei balio erantsia emateko asmoz, Arrasate Zientzia Elkartekoekin batzartzeko asmoa adierazi zuten aurkezpen ekitaldian.

Bigarren taldeak nagusien kontseilua eratzeko proposamena azaldu zuen. Horren xede nagusia 60 urtetik gorako herritarren egoera nolakoa den aztertzea da, eta, horretarako, Ordizian aurretik garatu izan den eredu batez baliatu dira.

Azkenik, hirugarren proposamena Arrasateko immigrazioari buruzko aurreiritziak nolakoak diren aztertzea izan da, eta, horretarako, errealitatea datuekin hornitu dute. Modu horretan, herriko immigrazio tasa EAEkoa baino baxuagoa dela ikusi ahal izan dute (EAEn %9; Arrasaten %6,5). Baita diru sarrera jasotzen duten immigrazio tasa %13,8koa dela. Horrez gainera, kanpotik datozenen ongietorri protokoloa aztertu dute, eta, irailatik aurrera, Txatxilipurdi eta AED elkarteekin batera hura hobetzeko bileretan izango dira.

### EMUNek egun osoko jardunaldia antolatuko du laster

Euskara eta berrikuntza soziala sustatzen du EMUN kooperatibak. Aurtengo udazkenean emango diren berrikuntza sozialen gaiari helduta, egun osoko jardunaldia antolatuko du, eta, horren nondik norakoen xehetasunak azaltzeko –eguna, gaiak, hizlariak eta egitarau osoa, zehazki– agerraldia egingo du laster EMUNek.

**kapikua**  
MODA NEURRI HAUNDIAK  
OSAGARRIAK OPARIAK

**Ondo pasa jaiak!**

Doctor Bañez 4, Arrasate  
kapikua\_arrasate@hotmail.com  
www.facebook.com / kapikua

**Hazkunde eta garapen pertsonala**

Nafarroa etorbidea 19, 8ZM  
Arrasate • 690 79 21 55

SADHANA  
Yoga

San Juan jai zoriontsuak!

Gora, sanjuanak!

**Adara**  
ILE-APAINDEGIA

Tel.: 943 08 10 68  
Biteri etorbidea 15 behea  
adaraileapaindegia@gmail.com  
Arrasate

Ondo ibili sanjuanetan!

sarrailagintza  
**RAUS** -24h- RAOS

**SARRAILAGINTZA-LANAK**  
**24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.**  
**OINETAKOEN KONPONKETA**  
Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

Bañez dokorea 6, behea • Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57  
raoscerrajero24horas.com

**erreka**  
t a b e r n a - j a t e t x e a

Ondo ibili sanjuanetan!

Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate  
Tel.: 943 53 32 72  
erreka@errekajatetxea.eu





Street boulderrak irudi ikusgarriak utziko ditu, eskalada maite ez dutenentzat ere. IMANOL SORIANO

# San Juan jaietan kirol ikuskizunak nonahi

Urteroko hitzorduek ez dute kalerik egingo, eta, beste urtez batez, goi mailako eskupilota partiduak, skateboard erakustaldiak eta herriko kaleak rokodromo bihurtuko dituen boulder txapelketa izango dira jaietako kirol ekitaldi nagusiak

## Xabi Gorostidi ARRASATE

San Juan jaietan, parrandak, gastronomiak eta musikak berebiziko garrantzia izaten dute, baina ez dira festetako osagai bakarrak izango. Kirola ere izango da osagai horietako bat.

## Goi mailako eskupilota

Ekainaren 25ean goi mailako pilotariak Uarkapeko kantzara etorriko dira. Lehen partidua eskuz binakakoa izango da eta Dario-Erostarbe eta Elordi-Irusta bikote gazteen artean jokatuko dute. Partidu nagusia, aldiz, sanferminetako lau terdiko txapelketakoa izango da eta Julen Retegi eta Erik Jaka arituko dira nor baino nor gehiago.

## Skatearen festa handia

Frontoitik frontoira salto eginez, Patxi Matxin skate jaialdiaren beste edizio bat egingo dute zapatuan Zaldibarren.

Aurreko urteetan bezala, skate eskolarekin beteko dute goiz partea, gazteei eta ez hain gazteei skate munduan lehen urratsak egiteko aukera emanda. Arratsaldean, ostera, txapelketen txanda izango da. Hiru proba mota egongo dira: denbora tarte batean trukorik onenak egiten dituen sarituko duena, leku konkretu batean egindako trukorik onena sarituko duena eta, azkena, letren jokoarena. "Urte tik urtera nesken parte hartzea handitzen joan da eta hala ja-

rraitzea nahiko genuke", adierazi du Aitor Akizu antolatzaileak.

## Street Boulder Txapelketa

Zortzigarren urtez jarraian alde zaharretako paretak rokodromo bihurtzeko asmoz egingo dute zapatuan Street Boulder Txapelketa.

Bost edo sei blokez osatuta egongo da, eta horietako gehienak berriak izango dira. "Alde zaharreko paretak nahiko esplotatu ditugu aurreko edizioetan; beraz, denak ez dira berriak izango", azaldu du Kepa Bruña antolatzaileak. Berrien artean, udaletxeko arkupean eta Izozkitekigo terraza alboan egingo dituztenak daude.



Pasa den egubakoitzean udaletxean ateratako familia argazkia. XABI URZELAI

## Eneko Carrascalentzat 2017ko kirolari finenaren saria

Herrero familiako kideek kirol ibilbidearen saria jaso zuten, herrian eskubaloia errotzeko egindako lanagatik

## X.G. ARRASATE

"Arrasaten dauden kirolari trebe guztien artean neu aukeratu izana ohorea da. Asko baloratzen dut aitortza hau".

Hitz horiek erabili zituen Eneko Carrascal jauzilariak saria jasotzeko unean. 17 urteko gaztea izendatu dute urteko kirolari onena, salto hirukoitzean eta luzera-saltoan egindako lanagatik; hain zuzen, Espainiako kategorian absolutuan hamargarrena da salto hirukoitzean. Iaz lesio bat izan bazuen ere, aurreko 15,21eko marka egin du.


Hain gaztea izanda, ibilbide oparoa du aurretik atletismo munduan. "Saria gazte jaso dut, eta oraindik hobetzeko gaitasuna daukat. Hala ere, azpitik badatoz ondo prestatutako gazteak; beraz, lanean jarraitu beharko dut era honetako sariak jasotzen jarraitu ahal izateko" adierazi zuten.

## Italiara begira

Uztailean Italian egingo duten Europako Atletismo Txapelketan egon gura du Carrascalak. "Oraindik ez dut bertan aritzeko txartela, baina horretan ahalegin-duko gara. Lesio bat gainditu berri dut, baina orain arte saltatu ez dudan hori guztia saltatzeko gogoz nago".

## Momentu hunkigarria

Kirol ibilbidea saritzerakoan heldu zen kirolaren galako unerik bereziarena. Arrasate Eskubaloi Taldeko presidente Ines Azpiazu eta haren seme-alaba Ane Herrero eta Josu Herrero omendu zituzten, eta gogoan izan zuten euren aita zen *Pitxi* Herrero ere. Hain zuzen, hirurek hartu zuten aitaren erreleboa: ama presidente, seme-alabak jokalaria, baita entrenatzaile ere, Anek lehenengo taldea gidatu zuten eta.



## Izozkitegia

Gozotegia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia

**San Juan jai zoriontsuak!**

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

## Nua

ESTETIKA ZENTROA

GORA, SANJUANAK!

Sebero Altube plaza 7  
ARRASATE  
943 79 62 14

oihane@nuaestetika.com



**Zaindu maite duzun hori!  
Ondo pasau sanjuanetan!**

Ferrerias 28C - Arrasate  
Tel.: 943 79 96 55





# Musika eskaintza zabala herriko festetan

Esne Beltzak, Mikel Urdangarinek eta Gatillazok kontzertuak eskainiko dituzte San Juan jaien barruan. Hala, oholtza gainean, estilo ezberdinak jotzen dituzten musika taldeak izango dira eta herritarrek horietaz disfrutatzen aukera izango dute

## Ane Vitoria ARRASATE

Dagoeneko bost disko plazaratu ditu Esne Beltza musika taldeak. 2007an sortutako talde horren lehenengo lana *Made in Euskal Herria* izan zen, eta, geroztik, lau disko gehiago argitaratu ditu: *Freedom 3 kolpetan* (2011), *Gora!* (2013), *Esna bat* (2015) eta *Esna 2* (2016), hain zuzen ere. Azkeneko biek disko bikoitza osatzen dute, eta, orain, *Esna 2* diskoaren *Don't give up the fight* biran murgilduta dago taldea. Eta hori izango da, zehazki, aurkeztuko dutena, domekan, hilaren 25ean, txosnagunean (23:00).

Esne Beltzak hip hop, reggae, soul, rock eta folk influentziak jaso ditu; oso estilo fusionatua du. Bira horren barne, musika jaialdi askotan izango da taldea; esaterako, Hatortxu Rock, Egafest, Biorritme, Revenidas... Horiek dira musika taldeak aurreratu dituenak, eta udan beste hamaika kontzertu eskainiko ditu: Zornotzan, Aian, Deban, Bilbon...

## Rock-punka entzungai

2005etik hona, guztira, sei disko atera ditu Gatillazo taldeak eta *Cómo convertirse en nada* da taldearen azkena. Hura joan den urteko apirilean plazaratu



Mikel Urdangarin kontzertu batean. GOIENA

zen eta, guztira, hamalau abestiz osatuta dago. Disko horretan, bizitza triste eta ilunak islatzen dira eta ironiaz zein amorrus jositako kantak dira guzti-guztiak. Evaristoren zigilu ukazina duten kantak ikusteko aukera astlehenean izango da, arratsaldeko zortzietan, Herriko Plazan.

## Taldeko kontzertua

Apirilean argitaratu zuen Mikel Urdangarinek hamalaugarren eta azken lana. *Margolaria* izena du zornotzarraren azken

diskoak, eta, aurrekoan ez bezala, lan horretan taldearekin itzuli da Urdangarin. Musikalki taldearen ekarpena asko nabaritzen da lan horretan, soinua oso zuzeneko formatuan grabatu delako. Estudioan grabatua izan arren, biolinaren doinua eta ahotsak kenduta, beste guztia zuzeneko delako. *Margolaria* lanaren helburua euren aspaldiko soinua islatzea zen. Aukera bikaina egongo da zapatu gauean (23:15) abeslari bizkaitarra eta bere taldea entzuteko.

## Danborren oihartzunak

Arrasateko txikitxoek, kaleak giroteaz gain, San Juan festetan murgildu zuten herria joan den zapatuan eskaini zuten danborradari esker. Haurrek udalerriko erdigunean egin zuten ibilbidea, Biteri plazatik Herriko Plazaraino, eta, ibilbide horretan zehar, ehunka lagun bildu ziren umetxoek emanaldia ilusioz ikusteko asmoz.



ANE VITORIA

## Arrasateko Bandak San Juan kontzertua eskainiko du

Urtero bezala, San Juan egunean, ekainaren 24an, hain zuzen, Arrasate Musikaleko bandak kontzertua eskainiko du. Eta hura bihar bertan izango da, 13:00etan, Monterron parkean; bandak, guztira, zazpi abesti eskainiko ditu. Hala ere, goizeko hamaiketan kalejira ere izango da bandaren eskutik Arrasateko kaleetan zehar.

**ZUBI-LAN**  
KONPONKETAK ETA SALMENTAK

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!



**TRESNAK**  
Nekazaritza  
Lorezaintza  
Basogintza



**MOTORRAK**  
Salmenta  
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia  
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com  
Arrasate

**emaús**

Arropa, liburu, bazar, objektuen... etxez etxeko bilketa  
Bigarren eskuko artikuluen salmenta

Enpresa inklusiboa  
Tef: 943 77 18 71 • Bidekurtzeta, 2 (Arrasate)  
arrasate@emaus.com • www.emaus.com

**San Juan jai zoriontsuak**

## PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa  
Psikoterapia:  
umeak, gazteak eta helduak  
Arreta psikologikoa  
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak  
Estimulazio goiztiarra  
Logopedia  
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

**JOSE MARI SALEGI**  
HARATEGIA • URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu  
(txorizo, tripakiak...)

943 79 45 55  
Olarte kalea 20  
ARRASATE

**SAN JUAN  
JAI ZORIONTSUAK!**

# Usadio zaharrak gogora ekartzeko egunak

Udako solstizioari ongietorria egingo diote herritarrek gaur, ekainak 23, San Juan bezpera ospatuta. Dantzak izango dira protagonista arratsalde partean, eta sua eta tantaia ilundu ondoren; bihar, oster, irek apainduta agertuko dira atarte guztiak

**Mirari Altube** ARETXABALETAK

Ekainaren 23an bat egiten dute udari ongietorria egiteko antzinatek datorren jaiak eta kristauen ospakizunek; hala, uztak babestu, espiritu gaiztoak uxatu eta bedeinkapenak jasotzeko gaua izango da gaurkoa.

Arratsaldean hasiko dituzte ekitaldiak, Kultura Sailak antolatuta; dantzak eta umeendako kontuak izango dira orduan. Unerik esanguratsuen, baina, San Juan suaren bueltakoa izango da. Dantzariak eta txistulariak Mitarte kaletik irtenda gerturatuko dira Herriko Plazara, eta han, sanjuanetako zortzikoa dantzatu ostean, su emango diete pilatutako abarrei. Su-garrak indartu bitartean, kantuan egingo dute Aretxabaleta Abesbatzako kideek herritarrekin batera, San Juanen omenez.



Herritarrek San Juan suaren bueltan elkartuta jaz. MIRARI ALTUBE

Sua itzali ostean, tantaiaren txanda izango da; 1999an jaiotako 50 bat gaztek altxatuko dute aurten.

Eta bihar, San Juan egunez, herriko atarte guztiak iratzeekin

apainduta agertuko dira. Baita gurutzearekin ere zenbait. Aspaldiko ohiturari eutsi guran herritar gutxi batzuk jardungo dute horretan eguna argitu baino lehen.

## Egitaraua

- **18:00** Leizarra musika eskolako emanaldia: *Plaza dantza*. Musika eskolako dantzariak gain, bertaratutako guztiek ere parte hartu ahal izango dute.
- **Jarraian** Buruhandiak eta erraldoiak, txistularien laguntzarekin.
- **21:00** Dantzaldia Imuntzo eta Beloki taldearekin.
- **22:20** Sanjuanetako kalejira txistulari eta dantzariekin Mitarte kaletik Herriko Plazaraino.
- **Jarraian** Sanjuanetako zortzikoa.
- **22:30** San Juan sua.
- **Jarraian:** Dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin.
- **Bukatze**ko Tantaiaren igoera.

## San Juanen eresia

Aretxabaleta Abesbatzako abesten duen San Juanen omenezko kantua.

*Igez ere San Juan San Juan zan eta aurten ere San Juan Bautista (bis).  
Jesukristoren lehengusua zan  
San Juan San Juan Bautista (bis).  
Hau da egia, dana guztia kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).  
Ibai guztiak agortu dira arrai gaixoak egarri (bis)  
datorren urtian mutikotxuak nun egingo dute igeri (bis).  
Hau da egia, dana guztia kontsolatutzeko Euskal Herria (bis).*

## Tantaia 1999an jaiotakoek

Aurtengo tantaia 1999an jaiotako gazteek altxatuko dute. 50en bat neska-mutil dira, eta astean aukeratu zuten gaur, ekainak 23, gauerdian bueltan Herriko Plazaren erdian jarriko duten pinua; Oro ingurutik ekarriko dute.

Pinu hori ezingo da izan hamabi metro baino luzeagoa, eta gaur eguerdian udaltzainek neurtu egingo dute ziurtatzeko. Ohitura den legez, aza, kipula eta berakatzak jarriko diote puntan, ikurrinarekin batera, eta, altxatu ondoren, pixa egingo diote. Bukatutakoan, herritarrei gazta, ogia eta ardoa eskaintzeko ohitura dute.



Indigaztainondoaren eta pinuaren erdian zedroa, Felix Iñurrategi lorategian. M.A.

## Udaletxe alboko zedroaren adina eta garaiera asmatzeko porra

Azterketak dagoeneko eginda daude eta orain herritarren artean sortu gura du ikusmina Kultura Sailak

**M.A.** ARETXABALETAK

Udaletxe alboko Felix Iñurrategi lorategian dagoen zedroaren adina eta garaiera asmatzeko *Zedroaren porra* jarri du abian Kultura Sailak. Uztailaren 15a arte bota ahal izango dira proposamenak Arkupen eta hainbat tabernatan, euro baten truke. Gehien hurbiltzen denak, pasatu gabe, saria izango du.

**Atlasko zedro osasuntsua**

Herritar askorendako esanguratsua den zuhaitza Atlasko zedroa da, eta katalogatzea erabaki du Udalak: "Behintzat, jakin zein adin duen, zein garaiera, eta hori artxibatuta utzi", dio Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Katalogatze-lan horiek dagoeneko eginda daude. Adinaren neurketa martxoan egin zuen Irungo Arkeolan fundazioak, mostra batzuk hartuta zuhaitzari. Eta garaieraren neurketa he-

rritar bik egin dute: Hirigintza Saileko Jose Mari Segovia teknikariak eta Jesus Osinagak. Angeluak neurtu eta trigonometria erabili dute horretarako. "Osasuntsu dagoela ziurtatu digute", dio Uribarrenek.

**Irabazleak 100 euroko bonua**

Horren guztiaren berri herritarren artean zabaltzeko antolatu dute orain *Zedroaren porra* apustua, eta solidaritate ukitua eman gura izan diote. Izan ere, jasotako dirua Saharako eskoletarako materiala erosteko izango da.

Irabazleak –gehien hurbiltzen dena, pasatu gabe– 100 euroko bonua jasoko du Aretxarteko dendetan erabiltzeko. Adingabeek behar balde parte hartu ahal izango dute, eta irailean egingo den Magia Asterako bonua jasoko dute. Parte hartzaile guztien artean, gainera, bertako produktuen otzara zozketatuko dute.

## Uztailaren 7an egingo du UDAK batzar orokorra

Ezohiko eta ohiko batzar orokorrak egingo ditu UDAK uztailaren 7an, Arkupen, 18:30ean. 2016-2017 denboraldiaren berri emango dute, eta 2017-2018 denboraldia aurkeztu. Zuzendaritza batzorde berria izendatuko dute; hain zuzen, hautagaitza bakarra aurkeztu da, Agurtzane Elkoro buru duena. Eta ohorezko jokalarik eta bazkideak eskertuko dituzte.

## Beinke Loramendi dantza ikastaroa astelehenean hasita

Loramendi elkarteak Beinke Loramendi dantza ikastaroa antolatu du, beste behin. Hastapen ikastaroa izango da, eta bost egun izendatu dituzte; hona hemen: ekainak 26 eta uztailak 10, 12, 17 eta 19. Udaletxe zaharrean izango dira saioak, 19:00etatik 20:00etara, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik, nahikoa da bertan agertzea.





Urbaltz elkarte zuzendaritza batzordeko hainbat kide martitzenean. MIRARI ALTUBE

## Gaur inauguratuko dute Urbaltz elkarte berria

Mitarte plazan egoitza duen elkartearen itxura goitik behera aldatu da; besteak beste, sukaldea handitu dute, lokala berregokitu eta komunak berri irisgarritasun arauak beteta. Dantzariekin eta bertsolariekin ibilbide berriari ekingo diote gaur iluntzean

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Hogeita hamar urtetik gora dituen Urbaltz elkarte goitik behera berri dute azken hila-beteotan, eta gaur, ekainak 23, inauguratuko dute. Ekitaldia 19:00etan izango da, eta dantzarien, bertsolarien eta musikarien laguntzarekin ospatuko dute elkartearen itxura berria. Atean, era sinbolikoan, jarriko dituzten kateak Anita Aretxagak ebakiko ditu, hura da-eta emakumezko bazkide nagusia, eta, horrela, ibilbide berriari ekingo diote.

**Sukalde handiagoa**

Aurpegi garbiketa sakona egin diote Mitarte plazako elkarteari: "Beharra ere bazuen, apenas egin da-eta ezer 30 urteotan. Gaur egunera egokitu dugula esan genezake", jakinarazi du Aitor Irurek, zuzendaritza batzordeko presidentea.

Sukaldea handitu egin dute, eta lokal guztia berregokitu; mostradorea txikitu eta mahaien

antolaketa aldatu ere bai: "Antolaketa berriarekin, sei edo zortzi leku gehiago izango ditugu", dio Irurek. Komunak ere berri dute, irisgarritasun arauak beteta: "Kanpoko atek zabalera berezia du orain. Eta Udalaren baimenaren zain gaudere arrapala egiteko". Azken asteotan buru-belarri dabilta, garbitze eta txukuntze lanetan, gaur iluntzerako gertu izateko.

**Gaztetu egin den elkarte**

1985eko irailean sortutako elkarteak 96 bazkide ditu gaur egun: "Azken urteotan gaztetu egin da Urbaltz; izan ere, bazkide heldu batzuek seme-alabei pasatu diete bazkidetza. Ondo kokatuta dagoela ezin ukatu,

**MAHAIEAN ANTOLAKETA ALDATU EGIN DUTE, ETA SEI EDO ZORTZI LEKU GEHIAGO DAUDE ORAIN**

eta joan-etorri handia izaten da bertan, bai astean zehar, baita aste bukaeretan ere".

Lehenengo zuzendaritza batzordean ere egon zen Irure; bodegaren ardura izan zuen orduan: "Sortu zen garai hartan, 90 bat bazkide ginen, baina 100dik gora ere izan gara". Emakume bazkideak hasiera-hasieratik egon dira, eta gero eta gehiago daude: "Sekula ez da egon inolako oztoporik. Hain zuzen, lau emakumezko eta lau gizonezko gaudere orain zuzendaritza batzordean".

Elkarteak hainbat gorabehera bizi izan ditu urteotan: "Ikerketapean egon zen, eta enbargo-mehatxua zela-eta kezka handiarekin bizi izan ziren hainbat urte; horregatik, hain zuzen, atzeratzen joan zen egoitzaren obra. Dena den, itxita sekula ez da egon". Urte askoan izandako nahia gauzatu da, eta beste hainbeste urtean aurrera egiteko asmoarekin sartuko dira gaur, bazkideak, Urbaltz berriuan.

## Joseba Irazokiren kontzertua Loramendiren eskutik

Musika emanaldien egitasmoa jarriko du, horrela, abian; ekainaren 28an, eguaztena, izango da, Kixkor tabernan

**M.A.** ARETXABAETA

Udarekin batera kontzertu eskaintzarekin dator Loramendi elkarte. "Ekainean eta uztailean bi egingo ditugu eta irailean beste bi egiteko asmoa dugu; horiek lotzen gabiltza", jakinarazi du Martin Berrizbeitiak, Loramendiko teknikariak. Herriko tabernak aukeratu dituzte, gainera, musikarien eta herriarren arteko topaleku izateko.

**Uztailaren 12an Jasan**

Joseba Irazoki (Bera, 1974) da lehen gonbidatua; luxuzko gonbidatua izan ere. Datorren eguaztentean, ekainaren 28an, Kixkor tabernan izango da, 19:30ean. Atom Rhumba taldeko kideak, folk, rock eta psikodelia doinue-tan aditua denak eta esperimentazioa oso gustuko duenak, saio errepikaezina eskainiko die aretxabaletarrei.



Joseba Irazoki. GOIENA

Uztailaren 12an, ostera, Jasan talde gaztearen txanda izango da, Haizea tabernan, 19:30ean. Gari Barandiaran eskoriatzarrak eta Ixak Sarasua, Asier Mongelos eta Jokin Uribebarria aretxabaletarrek rock doinuek eskainiko dituzte.

## '7x7' ekimenari agur 28an

7x7 kultura kalean ekimenaren seigarren saioa izan zuten umeez eguaztentean, eta *Dantza Kasting* ikuskizunarekin kantuan eta jolasean jardun zuten Mitarte kalean.

Ekimen hori hilaren 28an agurtuko da, Gorka ipuin kontalariaren saioarekin. *Itsasoan* ikuskizuna eskainiko du Santa Ritako lorategian.



M.A.

## Bihar zabalduko dute Ibarra kiroldegiko solariuma

Bukatu dituzte Ibarra kiroldegiaren lanak, eta, astean, solariumeko belarra aldatu dute. Hori horrela, bihar zabalduko dute igerilekuaren alboan dagoen eguzkia hartzeko gunea.

Bestetik, ekainaren 17a ezkeror, ordutegi berria dute zapatuetan eta domeketan: 09:00etatik 20:00ak arte zabalik. Ordutegi jarraitu hori izango da uztailaren 30a arte.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA



2000. urtean jaiotako gazteak aurtengo tantaia zuritzen, atzo, eguna. IMANOL BELOKI

## Tantaia altxatzea eta sua piztea, gazteen esku

Duela 17 urte jaiotako 37 gazteek gaur goizean jaitsiko dute tantaia herrira, Bolibar auzotik. Egun osoz, Zarauztarra taberna parean izango da herritarrentzat ikusgai eta gauean, berriz, denen artean jaso ostean, San Juan sua ere eurek piztuko dute

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, ekainaren 23a, San Juan bezpera da, eta, ohiturari jarraituz, Fernando Eskoriatza plazan tantaia altxatu eta sua piztuko dute datorren urtean kintoak izango diren gazteek.

Aurten, 2000n jaiotako gazteek izango dute tantaia jasotzeko ardura, baina, hori egin aurretik, bota egin beharko dute lehenbizi. Hala ere, ez dute eurek botako, Bolibar auzoko Agiña baserriko Javier Zabalak baizik, eta gazteek zuritu ostean herriraino jaitsiko dute. Behin tantaia Eskoriatzara jaitsi ostean, egun osoz Zarauztarra taberna aurrean utziko dute, herritarrek ikus dezaten, eta gauean altxatzeko prest izateko.

### 2000. URTEAN JAIOTAKO 37 ESKORIATZARREK ALTXATUKO DUTE TANTAIA

### Ekainaren 23ko egitaraua

Arratsaldean hasi eta gaueko ordu txikiak bitarteko eskaintza dago.

- **18:00** Txorimaloaren *bila* eta datorren urterako lore-sendorra prestatzeko irteera egingo da.
- **19:00** Buruhandiak.
- **22:00** 2000n jaiotako herriko gazteek altxatuko dute tantaia.
- **22:30** San Juan sua. Aurtengoa 2000n jaiotakoek piztuko dute. Ondoren, txistu doinuaren laguntzarekin, erromeria izango da.

San Juan bezperako eguneko ekintza guztiak plazan izango dira.

### 37 lagun tantaia jasotzeko

Elaitz Iregi da 2000n jaiotako kintoetako bat, eta tantaia jasotzeko gogoz daudela azaldu du: "Gure kintadan 37 lagun gara, eta tantaia guk ez bota arren, lana izango dugu hau herrira jaisten. Bolibartik behera jaitsiko dugu, ondo zuritu ostean, eta, horretarako, Agiñako Javier Zabalak traktorearekin behar den moduan utziko digu...".

### Sua piztea

San Juan sua pizteko ardura ere tantaia altxatuko dutenek izango dute. Hala, 2000n jaiotako gazteenak –Jorge Perea– eta nagusienak –Irati Moto– piztuko dute aurtengo sua, hain zuzen ere.

Ostean, berriz, agian, aurrekoa dantzatuko dutela azaldu du Iregik: "Ez dakit aurrekoa dantzatuko dugun, baina txistularien doinuekin hainbat bira emango dizkiogu suari denok eskutik helduta; hori, seguru...".



Iaz, San Pedro jaietako Euskal Jai Eguneko bazkarian. GOIENA

## Kuadrillen eta Euskal Jaiko bazkarietarako txartelak salgai

Sanpedroetako egitaraua prest dago; ekainaren 28an hasiko dira jaiak eta uztailaren 1era arte iraungo dute

### I.B ESKORIATZA

Herriko festa nagusiak, sanpedroak, ate joka datoz, eta aurten ere egitarau oparoa antolatuko dute, 41.998 euroko aurrekontuarekin. Musika emanaldiak nabarmendu arren, orotariko eskaintza zabala prestatu dute eta jaietan murgiltzeko prest daude herritarrek.

Ekainaren 28tik uztailaren 1era bitartean ospatuko diren jaietan, adin guztietakoei zuzendutako ekintzak egongo dira aurten ere. Jaien batzordeak betiko haritik antolatutako jaiak izan arren, hainbat berrikuntza izango dira, eta, besteak beste, danborradan, txosnagunean eta umeentzako ekintzetan izango dira nabarmenenak.

**Bazkarietarako txartelak salgai** Kuadrillen arteko bazkaria ekainaren 30ean izango da, Santa Marinan, 14:30ean, eta dagoene-

ko salgai daude txartelak. Domezkan izango da horiek erosteko azken eguna, eta, horretarako, hamabi euro ordaindu beharko dira Inkernu tabernan.

Bestalde, Euskal Jai Eguneko bazkaria uztailaren 1ean izango da, Fernando Eskoriatza plazan, 14:30ean, eta bertara joan nahi duenak ere aukera du dagoeneko txartelak erosteko; Inkernun eta Goxo Txikin.

14 urtera artekoentzat menu bat izango da hamar eurotan: makarroiak, hanburgesa, flana, jogurta edo natillak, ura eta freskagarriak. 15 urtetik gorakoentzat, berriz, 16 eurotan: udaberriko entsalada, biribilkia saltsan txanpinioekin, San Markos tarta, ardoa, sagardoa, ura, kafea eta txupittoa izango dira. Lekua erreserbatu nahi duenak kultura etxera deitu dezake, eta txartelak erosteko azken eguna domeka, ekainak 25, izango da.

### Establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak

Dagoeneko zabalik dago hutsik dauden lokalak balioan jarritz merkataritzan edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak eskatzeko epea, eta aurtengo abenduaren 31ra arte egongo da eskatzeko aukera.

Bi motatako laguntzak emango dira: batetik, alokatuko lo-

kaletarako. Lehenengo urtean, alokairuaren %30 emango du Udalak, gehienez ere, 200 euro hileko; eta bigarren urtean, %20 Udalak emanez, eta, gehienez ere, 100 euro. Bestetik, erosita-kokala, katastroaren balioaren %2, eta gehienez 2.000 euro. Diru laguntzak jasotzeko oinarriak eta xehetasunak Eskoriatzako udal webgunean kontsultatu daitezke, eta informazio gehiago Ibarraundi museoa eskatu daitezke.



# Parte-hartze aparta izan da 'Txikirri-Txikirri'-n

Bi urtetik behin egiten den martxaren hamaikagarren edizioa izan da aurtengoa, eta 261 pertsonak hartu dute parte. Eskoriatzako bideak eta bidexkak ezagutzeko asmoarekin antolatuta, balorazio positiboa egin dute antolatzaleek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Hildako mendizale eskoriatzaren oroimenez bi urtean behin antolatzen duten *Txikirri-txikirri* mendi ibilaldian pentsa baino jende gehiagok hartu du parte, hamaikagarren edizioan. Ibilbide ezberdina egin da aurtengoan, eta giroa, berriz, ezin hobea izan da.

Fernando Eskoriatzako plazatik 07:30ean abiatu ziren parte-hartzaileak Leten gora, 24 kilometroko bidea aurretik izanda. Mendiolatik gorako pagadian gora, Mugarriluzeko eolikoetara heldu, handik Lexargaratera eta Atxorrotzetik Eskoriatzako plazara.

261 parte-hartzaile, ibilbideko hainbat puntutan hogeita bost boluntario inguru laguntzen, eta eguraldi apartarekin, martxa ederra burutu zen. Antolatzaleek balorazio positiboa egin dute aurtengoak emandakoaz. Honela azaldu du Iñaki Agirianok, antolatzale taldeko kideak: "Oso



Aurtengo martxa. TXIKIRRI-TXIKIRRI

ondo joan da aurtengo martxa. Gure aurreikuspen guztiak bete dira, eta gainezka egin digu. Izan ere, parte-hartzaile kopuru aurreikuspena 200 pertsonakoa zen, baina 261 pertsona agertu dira, eta hasieran larritu egin

garen arren, erosketak... eginda genituelako, ederto irten da. Parte hartu duten horietatik bost-sei lagun izan ezik, guztiak bukatu dute martxa".

## Bertako paraiek ezagutzen

Agirianok azaldu duenez, martxara datozenek bertako bideak ezagutzea du helburu *Txikirri-txikirri*-k: "Gure asmoa, lau eta sei orduko tartean, goizez egiteko martxa bat egitea izaten da, eta, horrekin batera, bertako paisaia, senda eta bide berriak erakusteko izan dadila".

## Errotzen ari den martxa

*Txikirri-txikirri* hildako mendizale eskoriatzar batek esaten zuen hitz batetik dator. Honela azaldu du Agirianok: "Garai batean, elkarrekin aritzen ginen mendian, eta berak beti esaten zuten: 'Goazen, txikirri-txikirri egin bijuau, pixka bat takarraran...'. Eta hortik dator martxa horren izena.



JOSE MARI LEGORBURU

## Giza barraskiloa irudikatuz

EskoZap taldeko kideek antolatutako Aste Zapatistaren barruan hainbat ekintza izan dira, eta aipagarrietako bat pasa den egubakoitzean irudikatu zuten giza barraskiloa izan da. Jose Arana zaharren egoitzako egoiliarak, Luis Ezeiza eskolako ikasleak eta Tximeleta gelako haurrek eskolako patioan *Beste mundu bat posible da* leloa sustatuz goiz ederra pasa zuten.

## Zapatuan jokatu da Kontzejupe pilota txapelketa

Atxorrotz Kultur Elkarteak antolatutako Kontzejupe pilota txapelketaren 15. edizioa izango da zapatu honetan, eta, urtero moduan, pilota txapelketa bi modalitatean banatuko da: haurrak, alde batetik, eta nagusiak, bestetik.

16 urtetik beherako haurrek 10:00etan jokatu dituzte partiduak eta helduek, berriz, 15:00etatik aurrera. Txapelketan parte hartu nahi duenak egunean bertan, partiduen aurretik eman beharko du izena, kontzejupean. Iaz, gazte mailan zortzi bikote lehiatu ziren eta helduetan beste zortzi. Hala, ohitura mantentze aldera, herritarrei gonbidapena egin diete antolatzaleek.

# LEINTZ GATZAGA | 17

## Andramaixetarako kartel lehiaketa martxan da

Kartelak uztailaren 6ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Gatzagako udaletxean, euskarri fisikoan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Irailaren 7tik 10era bitartean ospatuko dira Leintz Gatzagako Andra Mari jaiak, eta oraindik udako oporrak igaro behar diren arren, martxan jarri dute jailetarako kartel lehiaketa eta opor aurretik kartela zein izango den erabaki nahi du Udalak.

Kartelaren gaiari, motari eta formatuari dagokionez, honako ezaugarri hauek hartu beharko dituzte kontuan parte-hartzaileak: *Andramaixak 2017* testua agertu beharko da kartelean, kartelaren irudia gai librekoa izango da eta DIN A-3 neurrian egin beharko da, nahi diren kolore eta teknikak erabilita. Irabazleak 100 euroko saria lortuko du.

## Uztailaren 6a, azken eguna

Kartelak aurkezteko azkeneko eguna uztailaren 6a izango da; hain zuzen, 14:00ak baino aurretik entregatu behar dira Leintz Gatzagako udaletxean; kartel bakoitza, kartazal itxi batekin, eta kartazalean lelo bat jarrita. Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa jarri beharko dira.

**Sariduna, uztailaren 10erako**

Epaimahaia Leintz Gatzagako jai batzordeko sei kidek osatuko dute, eta uztailaren 10erako erabakiko dute zein den aurtengo kartel lehiaketako irabazlea.

Hala, epaimahaia hainbat ezaugarri hartuko ditu kontuan kartel sariduna zein den erabakitzeke orduan; edozelan ere, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek ez badute nahikoa kalitate, saria eman gabe geratu daiteke.

## Lanen erakusketa eta jabetza

Saritu gabeko egileek hamar eguneko epea izango dute, uztailaren 10etik aurrera, euren lanak erretiratzeko. Epe horren ostean, erreklamatu gabeko lanak Leintz Gatzagako Udal Artxiboan geratuko dira. Jatorrizko lan guztiak euren egileentzat izango dira, saritutakoa izan ezik; Udalarentzat geratuko da hura, erakusketa jartzeko, argitaratzeko, zein erreproduzitzeko eskubide osoarekin.

Hala, lehiaketa horretan parte hartzen duen orok ontzat hartu beharko ditu aurrez aipatutako kartel lehiaketarako ezarritako arau guztiak.



AGURTZANE TELLERIA

## Oihal-akrobatak Leintz Gatzagan

Agurtzane Telleriak ematen duen oihal-akrobazia ikastaroan aritu diren ikasleek erakustaldia egin zuten domekan, Leintz Gatzagako Dorleta santutegiko zelaian. Ikasleen lagunez eta familiez gain, herritar ugari ere batu zen emanaldian. "Oso ondo joan da ekitaldia, ikasleak oso gustura aritu dira eta ikusleek emanaldiaz gozatu dute", adierazi du Telleriak.

# Suaren bueltako jaietan murgilduko da Azkoaga

Aramaion egiten den San Juan surik popularrena Azkoaga auzoan egiten da eta lbarratik ere jende ugari hurbiltzen da Santa Agedatxo ermitaren aurrean pizten duten sua ikustera; gaurko egunaz gain, bihar eta etzi ere hainbat ekintza egongo dira

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Urteetako tradizioari jarraituz, San Juan jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Aramaioko Azkoaga auzoan. Bertan egiten da herriko San Juan surik herrikoiena. "Tradizio handia dago gure auzoan San Juan suaren bueltan. Baserrietan su asko egiten dira gaurko egunez, baina Aramaion egiten den surik popularrena da Azkoaga auzo-koa", adierazi du Juanito Saizar auzo-alkateak. Beraz, esan daiteke herri osoa ordezkatzeko duela bertako suak San Juan bezperan. "Ibarratik ere jende asko gerturatzen da sua ikustera. Badago jendea oporrak atzeratu egiten dituen, umeak sua ikustea nahi dutelako. Jende asko batzen da urtero suaren bueltan", azaldu du Saizarrek.

Azkoagako plazatik Santa Agedatxo ermitara kalejiratxo bat egingo dute -150 metro inguru-, ohiturari jarraituz, eta bertan egingo dute sua.

## Sorginaren debatea

Duela 35 urte inguru hasi ziren kalejiran sorgin bat eramaten, eta ondoren erre egin izan dute, San Juan suan. Hala ere, auzoan debata ekarri duen gaia izan da, eta aurten ez erretzea erabaki dute. "Iaz entzuten hasi ginen inkisizio garaia aspaldi pasatu zela eta sorgin bat erreteak mezu negatiboa ematen duela. Urte osoan debate hori izan dugu, eta, beste aukerarik aurkitu ez dugunez, sorgina eramanez egingo dugu, baina erre gabe, izan dezakeen balizko mezu negatibo hori ekiditeko eta kontzientzia hartzen goazela erakusteko", nabarmendu du Saizarrek.

## Asteburu osoko festa

San Juan egunaren bueltako festa izaten da Azkoagako, eta, alkatearen esanetan, "urteko jairik garrantzitsuenak" da auzo-



Santa Agedatxo ermitaren inguruan pizten dute San Juan sua. ARAMAIOKO UDALA

## "URTEKO FESTARIK GARRANTZITSUENAK DIRA SANJUANAK AZKOAGAKO AUZOTARRENTZAKO"

tarrentzako. Hala, gaurkoaz gain, bihar eta etzi ere hainbat ekintza egongo dira. Gaur makala altxatuz emango diete hasiera jaiak, eta bihar, zapatua, ekintza nagusia herri afaria izango da. Azken urteetan, gainera, kantu afari bihurtu da afari hau, eta, liburuxka batzuekin, kantatuz afaltzen dute. Saizarrek onartu du afari hau harremanak eguneratzeko eta sendotzeko baliatzen dutela. Bertan parte hartzeko, 661 27 63 60 telefonora deitu beharko da aurrez (Saizar). "Komeni zaigu jakitea zenbat izango garen; beraz, ahal izanez gero, aurrez izena ematea gusatuko litzaiguke", dio.

Azkenik, asteburu honetan Azkoaga auzora hurbiltzea eta jaietan murgiltzea eskatu die auzo-alkateak auzotarrei, herri-tarrei, baita kanpotik bertaratu gura duen edonori ere.

## Azkoagako jaien egitaraua

### Gaur, egubakoitza

- 18:00 Gora txopue.
- 20:00 Parrilladie.
- 21:00 Aramaioko gazte batzuen kontzertua.
- 22:00 Kalejirie eta San Juan sue.
- Ondoren, Su artifizialak.

### Bihar, zapatua

- 13:00 Mezie.
- Ondoren, Parrilladie.
- 18:00 Mus eta briska txapelketak.
- 21:30 Kantu afaixe eta erromerixie.

### Etzi, domeka

- 13:00 Hildakuen aldeko mezie.
- 17:00 Puzgarri eta jolas dibertigarriak.

## Ekainaren 30a da udalekuean izena emateko azken eguna

Uztailaren 5ean, 7an, 10ean, 11n, 12an eta 14an egingo dira aurten gazte udalekuak. 12 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta egongo dira udalekuak eta ekintza gehienak goizetan izango dira. Udalletxean eman daiteke izena, 25 eurotan, eta izena ematerako momentuan ordaindu beharko da. Iker eta Markel Arriolabengoak gidatuko dituzte saioak.

## Hobi septikoen garbiketa Onaindia enpresari esleitu diote

Onaindia enpresa arduratuko da hurrengo bi urteetan hobi septiko publikoen garbiketaz, baita tasa ordaintzen duten hobi pribatuen garbiketaz ere.

Kontratua 9.300 eurotan esleitu dute. Baina ondoren beste gastu bat ere egin beharko du Udalak, garbiketa egin ostean araztegiko tratamendua ere ordaindu behar da eta.

## Film labur lehiaketa egingo dute San Martin jaietan

Gazte Asanbladak film labur lehiaketa antolatu du herriko jaietarako. Filmak derrigorrez izan beharreko elementuak polainak, katiuskak, kantinplora eta *veranoski* dira. Aurkeztutako lanek *mp4* edo *avi* formatuan egon beharko dute, eta bost minutuko iraupena izan. Txosnetan aurkeztu beharko dira, uztailaren 1a baino lehen.

## Fitosanitarioen aplikazioari buruzko ikastaroa uztailean

Gorbeialdeko Kuadrillak produktu fitosanitarioen aplikazioari buruzko ikastaroa antolatu du -intsektuen, eta abarren aurkakoak-. Saioak uztailaren 4an, 5ean, 6an, 11n eta 12an izango dira, Izarrako kultura etxean. Ikastaroan parte hartzeko, *ekonomia@gorbeialdea.eus* helbidera idatzi beharko da, edota 945 43 01 67 telefonora deitu.

## NIRE USTEZ



PAULA AMILBURU

## Txirrindularirik ez, eskerrik asko

Txirrindulariek haien gozamenerako gure beharrak oztopatzen dituzte. Hori egia borobila. Azkenaldian lanera berandu iristen naiz haien erruagatik. "Altxatu lehenago", esaten didate. Zergatik altxatu behar naiz ni hamar minutu lehenago? Haiak ez doaz lanera eta. Jubilatuek, eta abarrek ez al daukate denbora libre gehiago bizikleta hartzeko? Noski, jada lan guztia egin dutenez, orain besteena izorratzera dedikatzen dira.

Baina txarragoa ere bada hau. 90 km orduko abiaduran kurba bat hartzean nola ez dut, ba, txirrindulari bat joko? Baina hori haien errua da, ze nik, normalean, horrela gidatzen dut eta ez daudenean ez dut arazorik izaten. Nire ustetan, bizikleta gauez bakarrik erabili beharko litzateke, inor oztopatzen ez dutenean. Azken finean, horrela istripu gutxiago egingo lirateke eta ni beti goiz iritsiko nintzateke lanera. Total, ni pozik banago, ze inporta zaizkit besteen eskubideak?

## "ZERGATIK ALTXATU BEHAR NAIZ NI HAMAR MINUTU LEHENAGO? BERAIEK LANERA EZ DOAZ ETA"

## Azkaiter Pelox taldeak itxiko du ekaina Sastiñan

Ekaineko azken kontzertua Azkaiter Pelox taldeak eskainiko du gaur, egubakoitza, 20:00etan. Orain artekoa "oso ondo" joan dela adierazi du Cristina Etxenausiak, Kultura zinegotziak. "Jendea oso gustura egon da aurreko hiru kontzertuetan; musikariak ere bai. Maila oneko kontzertuak izan dira, eta ea gaurkoa ere hala den", dio.



**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ekainaren 16an bete ziren bost hilabete Bolua auzoan mendia behera etorri zenetik. Udalak amaitutzat eman zuen joan den astean emergentzia egoera, mendi maldari eusteko sarea jarrita dagoelako eta arriskuen jarraipen eta segurtasun plana "aspalditik" martxan dutelako.

Bada, bizilagun gehienendako egoera normalizatu bada ere, etxerik kaltetuena bizitzeko moduan egoteko beste zenbait hilabete pasatuko dira. Etxea hankaz gora dute oraindik. "Dena lokaztuta dago, ez dakigu, oraindik, zer salbatuko den eta zer ez. Kalte materialez harago, amarendako oso gogorra ari da izaten, bere bizitzako etxea da eta. Egunero du buruan etxearen kontua eta etortzen den bakoitzean negarrez irteten da", dio etxe kaltetueneko jabe den Dolores Santosen seme Pedri Zafrak. Mendia eraikin barrura sartu zenean euren etxeko atearen azpiko partetik sartu zitzaizen guztia: "Harrigarria da. Bost hilabeteren ondoren, lokatzaren arrastoak sabaian ikus daitezke".

#### Udalaren erantzunarekin pozik

Kalte handiak izan arren, Udalaren zein aseguru-etxeen partetik erantzun ona izan dutela diote. "Eskerrak eman behar dizkiogu Udalari. Oso ondo portatu dira. Mapfre aseguru-etxearekin ere pozik gaude; pazientzia izan dugu eta badakigu eurak ere borrokatzen ibili direla Bergarako bulegoan", dio Zafrak.

Hori bai, euren etxearen kasuan, aseguruaren arteko konkurrentzia dago; hau da, etxearen kontinentea –eraikinaren elementu estrukturalak– mugitu ezin daitezkeenak –bi aseguru-etxerekin dituzte: "Mapfrek ordaindu du berea eta orain beste aseguru-etxearekin, Generalirekin, negoziatzen ari gara. Jarrera ona dute, baina ez dute azken hitza eman. Espero dugu etxeko kontinentearen beste erdia ordainduko digutela. Hori bai, etxeko kontinentea, altzariak eta beste, gure kontu joan beharko da".

**ETXE KALTETUENEO JABEAREN SEMEA: "LOKATZAREN ARRASTOAK SABAIAN DAUDE ORAINDIK"**

# Etxera itzultzeko itxaron beharra

Mendia behera etorri eta bost hilabetera emergentzia egoera gainditu bada ere, etxebizitza kaltetuena hankaz gora dago oraindik eta atari horretan obra egin beharko da; kaltetuak pozik daude Udalak zein aseguru-etxeek emandako erantzunarekin



Dolores Santosen etxea –ezkerretik laugarrena– hankaz gora dago. Irudian, seme-alabekin, bi bizilagunekin eta Karlos Etxanizekin.



Sukaldea, lokatzez josita.



Egongelatik irten zen lur-jausia beste aldera.



Logela bat; zoria egurrezkoa zenez, aldatu egin beharko dute.



Lur-jausi aurretik berritutako komuna. ARGAZKIAK: J. BEREZIARTUA

#### Gaia patxadaz hartzea, gakoa

Emergentzia egoera gainditu bada ere, atari kalteturako sarrera nagusia hesi batekin itxita dago oraindik. Bizilagunek sartzeko aukera dute, baina sartzearekin batera nabarmenak dira duela bost hilabetezko lur-jausiak eragindako kalteak: mendiaren sarrera izan zen zulo erraldoia estali beharra dago, apurtu ziren eskaileretako barandak konpondu, kristalak... Obra handia egin beharko dute, komunitateko presidente Karlos Etxanizen arabera: "Orain arteko prozesua luzea izan da eta oraindik ez dakigu zenbat denbora emango digun atariko obra guztia egiteak. Data bat ematea zaila bada ere, espero dugu uda osterako lanak bukatuta egotea". Komunitateak kudeatuko du obra hori herriko Ibaralde enpresaren laguntzarekin.

Etxanizek ere esker on hitzak izan ditu Udalarendako: "Hasierra-hasieratik babestu gintuzten. Etxe bloke osoa ebakuatu zenean, aukera eman ziguten hotelera edo bestelako etxetara sartzeko. Ordutik aurrera eman diren urratsetan ere Udala egin da kargu. Oraingo, behintzat, malda aseguratu dago eta etorkizunean ere beste interbentzio batzuk egingo dira".

Amaitzeko, Etxanizek uste du hasieratik gaia patxadaz hartu izana erabakigarria izan dela handia zen arazoa are handiago ez bihurtzeko: "Erabaki genuen lasai hartzea eta ez hastea oihuka eta liskarretan sartzen. Badakigu halako kontuek denbora behar izaten dutela, eta uste dugu horrek ere zerikusia izan duela jaso dugun erantzun egokian".

#### Frontoia estaltzeko proiektua

Bestalde, Boluko frontoia estaltzeko proiektuaren berri eman go die Udalak auzotarrei datorren ekainaren 27an, Irizar jauregiko ganbaran (18:30). Proiektua zehaztu aurretik, Udalak bertako bizilagunen iritzia entzun eta ekarpenak jaso gura ditu: "Animatu eta parte hartu, zure iritzia ezinbestekoa da".

**KOMUNITATEKO PRESIDENTEA: "GAIA LASAI HARTU IZANAK ZERIKUSIA IZAN DU ERANTZUNEAN"**





24.000 euro lortu dira Fundamerentzat eta Martinentzat.



Aita, alaba besarkatzeko gertu, Bolura heltzearekin batera.



Doctor Deseoko Francisek ere bat egin zuen Leire Martinekin.



Euskal dantzak plazan. ARGAZKIAK: A.VITORIA, I.SORIANO ETA A.GOITI

## Beharra duenari, ematen dion herria dela berretsiz

Leire Martinen jaialdian parte hartzea handia izateaz gain, Leire Martinendako 16.000 euro eta Fundame elkartearendako 8.000 euro biltzea lortu du IGAMek; familia, oso eskertuta: "Ezinezkoa zaigu paragrafo gutxi batzuetan hilabeteotan bizitakoa adieraztea"

### Jokin Bereziartua BERGARA

Nekez ahaztuko dute Leire Martinek eta haren familiak, Fundamek, IGAM elkarteak eta, orokorrean, Bergarako herri osoak ekainaren 17an bizitakoa. Eguneko ekitaldi guztietan batu zen jende asko; IGAMeko kideak Donostiatik Bergararako bidea oinez egiteko irten zirenetik eta jaiak gaztetxean amaitu zuen arte, 24 ordu iraun zuen egitarauaren barruan, hainbat une gogoangarri bizi izan ziren. Horietako bat izan zen, esaterako, Leire Martinen aita Bergarara iritsi eta alaba besarkatu zueneko -Donostiatik zetorren IGAMeko martxara Azpeitian batu zen aita-. IGAMeko Jon Ander Garitanok hone-laxe gogoratzen zuen Bergarara iritsi zen unea: "Oso hunkigarria izan da. Horrenbeste jende aurkitzea, guztiok elkar besarkatzen...".

Egun bereziko helburu nagusia muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin Pineda-

rendako eta gaixotasun horri aurre egiteko lanean buru-belarri diharduen Fundame elkartearendako dirua lortzea zen, eta bete egin zen. Izan ere, Fundamerendako 8.000 euro lortu ziren eta Leire Martinendako, 16.000 euro.

### "Betiereko esker on" mezua

Senitartekoek ere emozio handiz bizi izan zuten eguna, eta, Goienara helarazitako gutun batean -ikus 8. orria-, "betiereko esker ona" adierazi izan dute: "Zaila egiten zaigu labur adieraztea nola sentitzen garen hainbeste jaso ondoren eta hainbeste jende ezberdinengandik. Eta are zailagoa eskertu ahal izatea Leireren alde eta egoera

**ZOKETAKO ZENBAKI SARITUAK, LEHENETIK LAUGARRENERA: 69.631, 88.716, 44.821 ETA 6.401**

berean dauden pertsonen alde egin den guztia. Azken hilabeteetan askotan izan dugu buruan momentu hau; bagenekien ezinezkoa izango zela paragrafo gutxi batzuetan adieraztea zer-nolako emozioak bizi izan ditugun denbora honetan zehar". Bergarako herriaren elkartasun erakustaldia ere goraiatu du familiak: "Lekuko izan gara, ikusi egin dugu, Bergarak, herri osoak, dena ematen duela beharra duenari laguntza eskaintzeko orduan".

### Zozketako zenbaki irabazleak

Bestalde, zozketako zenbaki sarituen berri ere eman dute: asteburu baterako bidaia, lehen saria, 69.631 zenbakia; Bedelkar elkarteko kide diren dendetan gastatzeko 200 euroko bonua, bigarren saria, 88.716 zenbakia; bi lagunendako afaria Etxagi jatetxean, hirugarren saria, 44.821 zenbakia; eta bi lagunendako afaria Larrea jatetxean, laugarren saria, 6.401 zenbakia.

## Neurri zehatzak igerilekuko ilara luzeak berriro sortu ez daitezzen

Ilara luzeak izan dira bainua hartzeko eta erabiltzaile asko kexatu egin dira; Udalak barkamena eskatu du

### J.B. BERGARA

Hiru neurri hartuko ditu Udalak, epe motzera, azken egunetan Agorrosingo igerilekuetan sortutako ilara luzeak errepikatu ez daitezzen: sorosle bat gehiago jarri dute segurtasuna hobetzeko eta laguntzeko; edukiera betetzen denean, kanpoko jolas igeritokia 20 minutuan behin hustuko da erabiltzaile berriak sartzeko; eta, hirugarrenik, edukiera gaindituko dela aurreikusten denean, ez da sarrerarik salduko leihatilan, abonatuak soilik izango dute igerilekuak sartzeko eskubidea. Aurrerago, epe ertainera, ur jolasak jartzea baloratuko dute.

### Hainbat erabiltzaile kexatu dira

Hainbat erabiltzaile kexatu dira azken egunotan egin duen beroarekin bainua hartzeko aukerarik izan ez dutelako. Horren aurrean, barkamenak eskatu ditu Udalak; gaineratu dute udako denboraldi honen hasieran bizitako egoera ez dela normala: "Orain arte, urtean zortzi edo hamar egunetan betetzen zen edukiera, eta aurten dagoeneko hiru egunetan bete da. Ezinezkoa da 1.500 edo 2.000 lagun aldian berean ematea bai-

nurako aukera: kanpoko igerilekuan 187 lagunentzako edukiera muga dago eta 218 laguneko barruko igerilekuetan".

### Agorrosin Gaua ekainaren 30ean

Bihar, ekainak 24, Agorrosin Gaua egin behar zen igerilekuetan, askotariko ekintzekin. Baina eguraldi iragarpenak ikusita, Udalak ekainaren 30era atzeratu du; betiere, egun horretan eguraldi ona badago.



Ilarak putzura sartzeko, asteon. I.A.



ANE VITORIA

## Omenaldi berezia erreferenteari

Pintura eskolako erreferente ukazina den Mikel Okina omendu zuten domekan Udalak eta Beart-ek; osoko bilkuren aretoa bete egin zen. Ondoren, Okinaren lanetako bat udaletxeko horma baten jarri zuten. "Migelekin hitzartu genuen 20 urtez hutsik egon den tokian bere koadro bat jartzea, eta bi urterako laga digu. Bi urteotan bergarar guztiok gozatuko dugu", adierazi zuen Elena Lete alkateak.



# "Musikoterapiak arima garbitzen du, hein batean"

**AITOR AGIRRE MUSIKOTERAPEUTA**

Bergarako Musika Eskolaren eskutik, saio interesgarria gidatu du, asteon, Betagarri taldeko gitarrista ohiak Irizar jauregian: "Terapia saioak esperientzia zoragarriak izaten dira"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ibilbide luzea dauka Aitor Agirre, musikari –Betagarri taldeko gitarra-jolea izan zen–, musika irakasle –gitarra irakatsi izan du urte askoan– eta, azken urteotan, musikoterapeuta.

**Zer da musikoterapia? Norentzat da, bereziki, onuragarria?**

Musikoterapia, oso era sinplean azalduta, pertsona baten inguruan eta osasun ikuspuntutik egiten den lanketa da, musika edota soinua bidelagun dela. Joera dago musikoterapia patologiarekin bat duen batekin edo adineko jendearekin lotzeko, baina, berez, edozein pertsonarekin landu daiteke. Adibidez, ospitalean jaio berri den ume horrendako egokia da, baita zaharren egoitza batean egoiliar dagoen 100 urtetik gorako horrendako ere.

**Ze ariketa egiten dituzue?**

Berez, ez dira ariketak, eredu jakin batzuetan oinarritutako teknika batzuk dira. Inoiz ez



Aitor Agirre, asteon. JOKIN BEREZIARTUA

dakizunez atetik zer sartuko den –ez dut esan nahi pertsona bera, baizik eta pertsonarekin datorren hori–, ez dakizunez nola etorriko den, zaila da alde aurretik ezer prestatzea; normalean, saioa hasi ahala joaten

naiz egin beharrekoa zehazten, hartzailearen arabera.

**Zergatik erabaki zenuen musikari izatek musikoterapeuta izateko jauzia ematea?**

Irakasle ikasketak egin nituen eta beti gustatu izan zait hezkuntza. Garai batean, gitarra irakatsi nuen, eta psikologia beti gustatu izan zait. Orduan, musikaz eta hezkuntzaz harago triangelua osatzeko, musika terapiaren ikuspegitik hasi nintzen begiratzen.

**Eta nolako esperientzia izan da?**

Oso pozik nago. Oso baliagarria da besteendako, baita niretako ere. Musikoterapiak arima garbitzen dizu, hein batean; asko ikasten dugu guregana datozen guztiarekin, eta *motxila*-n darabaten hori gure egiten dugu, neurri batean. Terapia saioak esperientzia zoragarriak izaten dira, hasten direnetik amaitzen diren arte. Ez daukat beste hitzik, zoragarriak izaten dira. Hartu-eman ederra izaten da, zalantza barik.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

## Ekonomiaren argi-itzalak

Euskadiko industria-sektorea berreskuratze bidean da. Enpresak ondo ari dira lanean: emaitza ekonomikoak lortzen, lanpostuak sortzen eta herrialdearentzat aberastasuna sortzen.

Aldaketa garaia datoz, egoera berrietara egokitu beharko dute enpresek, eta erronka berriei heldu beharko diete. Langileek prestakuntza beharko dute, gaitasun teknologikoak, gure betiko balioekin, ilusioarekin, konpromisoarekin...

Etorkizuna zalantzaz josita dator, joera positiboak momentu batetik bestera alda daitezke; hala ere, ni neu baikorra naiz.

Hala ere, komunikabideetan agertu da Euskadi lehen postuan dagoela, Espainian, absentismoari dagokionez; langabezia daudenetatik %40 ez dabilzala ikasten, ezta lan egiten ere.

Espainian milioi bat absentista profesional daudela: ez dutela lanik egiten eta soldata jasotzen dutela; 450.000 ziren 2011n.

Honek guztionez iruzur kutsua dauka. Diru-xahutze itzela da, ezin dugu onartu; izan ere, gero behar izango dugun lehiakortasun bat galtzen ari gara.

Gauzak horrela, ez naiz hain baikorra gure etorkizunarekin.

## 17. urteurreneko Gaztetxe Eguna ospatuko dute bihar

Kartzela zaharraren 17. urteurrenaren hil osorako egitarauaren barruan, Gaztetxe Eguna ospatuko dute bihar, ekainak 24. Egun osorako plana izango dute: gaztetxetik abiatutako *Pati-poteo-mozorro musikatua* (12:00), gazte bazkaria (14:30), Traka-traka txarangak girotutako poteoa (18:00) eta Asea eta Euskatalites taldeen kontzertuak (22:00).

## Aranzadik jaialdia ospatuko du gaur frontoian, 18:30ean

Aranzadi Ikastolak ikasturte amaierako jaialdia ospatuko du gaur, ekainak 23, Udal Pilotalekuan (18:30). Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek erakustaldi ezberdinak egingo dituzte, askotariko abestiek. Jaialdiak dakartzan gastuak estaltzeko, zozketa egingo dute aurten ere; zerbaki saritua gaur bertan jakinaraziko dute.

## Ondo pasau!

Uztailaren 2an, domekan, San Martzial eguna!



## ETXAGI JATETXEA

- Patata-tortillak
- Oilaskoak
- Erredondoa
- Haragi-bolak
- 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu

Masterreka 8 • 943 76 53 12



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bonboiak

San Pedro 9 • 943 76 10 51

## Mujika

gozotegia



- Bonboiak eta trufak
- Pastelak
- Pastel txikiak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako esne-gain eta marrubi izozkiak

Artekalea 3 - Tel.: 943 76 10 34

## AZPEITXI

Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Aranerrekka 13 • 943 76 55 00



# 'Juntaizua', gaur, San Juan suaren bueltan

Maala guraso elkartearen eskutik, DJ Bull disko-jartzaileak girotuko du festa, 18:30ean. Ogitartekoak 21:00etan banatuko dituzte eta ilundutakoan piztuko dute San Juan sua kiroldegiko kantxa ondoan herriko neska-mutikoen

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Aurten ere berezia izango da San Juan bezpera Elgetan. Herriko neska-mutikoen gertu dute pila, han eta hemen jasotako paperekin, kartoiekin eta egur zatiekin. Ilundutakoan emango diote su. Aurretik, baina, hainbat ekintza izango dira, Maala guraso elkarteak antolatuta. DJ Bull musika-jartzaileak egingo du umeendako musika saioa, 18:30etik 21:00etara. Amaitutakoan banatuko ditu ogitartekoak guraso elkarteak eta jarraian piztuko dute sua neska-mutikoen.

Askorendako aspaldiko sinismenak badira ere, esanahi berezia du San Juan suak. Gaixotasunetatik eta ezbeharretatik babesten du. Sasoi batean sua pizten zen ortu bazterretan zein etxe aurreetan ingurua sorginengandik babesteko. Etxebizitzetako sarreretan ere lore sorta bereziak ipintzen ziren. Elgetan, oraindik ere, izango dira erritual horiek betetzen dituztenak.

**Larrain dantza ikastaroa**

San Juan bezperako ekitaldiak hasi aurretik, jai batzordeak antolatuta, larrain dantza ikastaroa egingo dute, 17:00etan, kiroldegiko gimnasioan. Herriar guztiei dago zabalik; izan



Elgetako neska-mutiko taldea su emateko prestatutako piloaren aurrean. L.Z.

ere, elgetarrek urtero egiten dute larrain dantza Ferixa Nagusiko jaietan. Dantza landu nahi duten herritarrek bi aukera izango dituzte aurten; bata gaur eta bestea hilaren 28an, 18:00etan, frontoian.

Ferixa Nagusiko jaiekin lotuta, Udalak zabalik du domekako karaoke lehiaketan zein zapatu arratsaldeko kuadrillendako jokoetan izena emateko aukera. Jokoetarako sei bat laguneko taldeak eskatu dituzte. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena.

**Udalekuak astelehenean**

Umeei begira, astelehenean zabalduko ditu atek udaleku zerbitzuak. Lerrook idazterakoan, 63 neska-mutiko zeuden izena emanda. Ziurrenik, bost hezitzailek emango dute zerbitzua.

## Herriko jaiak ate joka

Udalak asteon banatu du jaietako egitaraua etxetz. Gaineratu dute Julian Markiegiren kioskoan daudela salgai Herri Eguneko paellarako zein barikuko umeen bazkarirako txartelak. Prezioa bost euro da. Erretiratuen bazkarirako txartelak, berriz, herriko dendetan zein udaletxean daude salgai 10 euroko prezioan. Jaietako argazki lehiaketa ere martxan da aurten. GOIENA papereko zenbaki honetan duzue Ferixa Nagusiko jaietako gehigarri berezia.

## Ikasturte amaiera eta zaintza

Azken eskola eguna dute, gaur, Herri Eskolako neska-mutikoen. Ikasturteari amaiera emateko, bazkari berezia egingo dute; izan ere, jangela zerbitzuko erabiltzaileekin batera bazkalduko dute erabiltzaile ez direnek eskolan. Eskola jardunaldia, gainera, 14:00etan amaituko dute. Lehen Hezkuntzako ikasleek, dena den, notak jasotzera joan beharko dute martitzenean, hilak 27, 12:00etan. Guraso elkarteak, bestetik, goizetako zaintza zerbitzua martxan jartzeko saiakeran jarraitzen du. Eguaztenean elkartu ziren hainbat guraso, eta badaude lauzpabost interesatu. Kopuru zehatza zein den jakitea komeni da, ordea, horren arabera egingo dituzte-eta kostuaren kalkuluak. Harremanetarako kontaktua da: [elgetakogurasoelkatea@gmail.com](mailto:elgetakogurasoelkatea@gmail.com)



L.Z.

## Bilaketa lanak Larrabil auzoan

Eguazten goizaldean sei bat ordu egin zituen etxetik kanpora Larrabiltxoko Juan Arantzetak. Familiak 08:00etan eman zuen abisua. Ertzainak, suhiltzaileak, babes zibileko kideak, Gurutze Gorrikoak eta hainbat herritar aritu ziren bilaketa lanetan. 10:00ak aldera aurkitu zuten elgetarra, onik, etxetik 400 bat metrora Lapurdi baserrirako bidean.

## "Konpost-egileok errealitate egiten dugu ekonomia zirkularra"

**Goiena komunitatea**

Elgetako Zero Zabor / ELGETA

Orain dela urte batzuk dena *green, verde, berdea* izan zen. Berdeak saltzen zuen eta mugimendu, enpresa, logo guztiak gurdin hartara igo ziren. Berdeak naturaren erreferentzia modura ingurumenarekiko errespetua, zaintza lotura eginez guztiek bat egin zuten korrante harekin. Gaur egun beste lelo bat darabilte guztiek: ekonomia zirkularra.

Orain arte ekonomia linealaren sistema ezarri eta aritu gara: gauzak ekoiztu, erabili eta bota, hondakin bilakatuz. Ekonomia zirkularrean, berriz, garrantzi handia ematen zaie baliabideei,

murriztu, berrerabili, birziklatu eredu jarraitzen du, produktuei bizi berri bat eman behin eta berriz, balioa duen ezer ezin baita bota, erabilitako produktua berriz ere lehengai bilakatzen delako.

Herriko konpost-egile guztiok bai gaudela ingurumenarekin elkar lotuta eta ekonomia zirkularra errealitate egiten dugula, gure etxeetako janari hondakinak ondo sailkatuta, inongo energiari ustiatu gabe (garraio, ur), konposta egiten dugunean eta bertatik lortutako ongarria berriz ere lurrari eskaintzen diogunean lehengaiak elikatzen jarraitzeko. Behin eta berriz etengabeko gurgipila martxan.

## OHARRAK

### Musika ikasleak

Ikasturte amaierako saioa bihar, zapatua, 12:00etan, antzokian.

### Argazki erakusketa

Iazko jaietako argazkiak ikusgai buztin gelan.

### Jaki bilketa

Saharar umeen aterpetxerako elkartasun bilketa martxan da hilaren 28ra arte udaletxean.

## Euskara ikastaroa egiteagatik diru laguntzak

Elgetatik kanpo egindako euskara ikastaroak diruz laguntzeko deialdia kaleratu du Elgetako Udalak. Aurten, gainera, %50 igo du Udalak diru-lerro hori, eta, hain zuzen, 900 eurokoa da. Interesatuak hilaren 29ra arte dute udaletxean eskaera egiteko. Bete beharreko baldintzen gaineko informazioa [elgeta.eus](http://elgeta.eus) udal webgunean dago.





Eskoriatza Kirol Elkarteko konpainiak entsegu batean ateratako talde argazkia. ESKORIATZA KE

# Plaza txiki geratuko da nagusien danborradan

200 pertsonatik gora izango dira aurtengo danborradan, ekainaren 28an, herriko kaleak danbor hotsez betetzen, eta, urtero moduan, herriko plazan emango diote amaiera. Konpainia berri bat izango da: Kirol Elkartea, hain zuzen ere

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Ohiturari jarraituz, nagusien danborrada ekainaren 28an izango da, San Pedro jaien bezperan, eta aurten inoiz baino parte-hartze handiagoa izango da.

Ibilbidea urterokoa izango da: San Pedro, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala eta Fernando Eskoriatza plaza. Danbor hotsek herriko kaleak beteko dituzte. 20:30ean, afaria egingo dute Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta 22:30ean emango diote hasiera ekitaldiari. Cirilo Perea, Eguzkilore konpainiako zuzendaria, buru-belarri aritu da entseguak gidatzen ekaineko astelehen eta martitzen guztietan, eta egunerako gogoz agertu da:

## Haurren danborradako karroza

Etxeko txikienek ere aukera izango dute, urtero moduan, danborradaz disfrutatzen. Iaz, laurogeita hamar haurrek hartu zuten parte Eskoriatzako haurren danborradan. Zazpi batailoi osatu zituzten, eta, adibidez, berri bat ere aterata estreinakoz. Aurten, parte-hartzea antzerakoa izango da, eta ekainaren 30ean 18:00etan irtengo dira haurrak urteroko ibilbidea egitera. Karrozari dagokionez, berriz, Beheko Errota Eskoriatzako musika eskolari omenaldia egingo dio, 1989an sortu zenetik gaur egun arte egindako lana eskertuta.

Gaur egun, 276 ikasle ditu Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolak, hamasei musika-tresna jotzen irakasten dute bertako irakasleek, eta dantza eta musika eskoletan erakusten diren beste ikasgai batzuk ere irakasten diete ikasleei. Eta ezin da ahaztu Eskoriatzaren eta eskoriatzarren bizitzaren zati den musika bandak egiten duen lana; benetan harro egoteko modukoa musikariek herrian egiten duten lana.

"Guztira, zazpi konpainiak osatuko dugu aurtengo danborrada, eta azkenengo entseguan, ekainaren 26an, erabakiko dugu nola jarriko garen ibilbide amaieran, Fernando Eskoriatza plazan. Izan ere, ez dakit denok sartuko garen, aurten jende gehiagok hartuko duelako parte, eta errepidearen zati bat hartu beharko dugu, agian..."

### Parte-hartze handia

200 pertsonatik gora izango dira danborradan, eta aurten, karrozarik izango ez den arren, Eskoriatzako txosna batzordeko gazte taldean 30 pertsona gehiago izango dira. Bestalde, Kirol Elkartea osatu berri duen konpainian beste horrenbeste batu dira nagusien danborradara.

### Kirol Elkartea estreinakoz

Eskoriatzako Kirol Elkarteko kideek eta kirolariek hartuko dute parte aurtengo danborradan estreinakoz. Guztira, 32 pertsona batu ditu konpainiak, eta ilusioz agertu dira ekintza horretan parte hartzearekin.

Honela azaldu du Kirol Elkartearen konpainiako Antonio Regañok: "Hainbat urtez egon gara pentsatzen danborradan irtetea. Kirol Elkartea herriko elkarte garrantzitsua da, eta danborradan errepresentazioa behar zuela uste genuen. Azkenean, animatu egin gara".

Batailoian, jokalaria, delegatuak, entrenatzaileak eta elkarteko taldekide ohiak irtengo dira, eta bandera eramaten duena urtero aldatzea erabaki dute. "Aurten, Maite Uribe izango da bandera eramango duena, elkartearikiko duen maitasunagatik eta kirol elkarteko partaide izan delako harrotasunez...", azaldu du Regañok.



Martin Perez. GOIENA

## "Praktika modura baliagarria izango zait"

**MARTIN PEREZ**  
PREGOILARIA

**I.B** ESKORIATZA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen (Huhezi) 40. urteurrena dela eta, unibertsitatea arduratuko da jaietako emateaz. Martin Perez Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea eta Oihana Mata langilea izango dira San Pedro jaietako pregoilariak.

**Pregoia botako duzu jaietan. Pozik zaude?**

Bai, oso pozik nago nire Eskoriatzako jaietako pregoilaria izatearekin. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari naiz eta niretzako aukera aparta dela uste dut. Izan ere, isil samarra naiz, eta jendaurrean hitz egitea askorik ez kostatu arren, praktika modura ere baliagarria izango zait.



ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

*Ondo ibili jaietan!*



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza. Tel.: 943 71 45 06  
www.mirvat.com



AGURRA

JOSER RAMON  
ZUBIZARRETA

## Guztiondako prestatutako jaiak

Hemen ditugu, berriz ere, herriko festa nagusiak: sanpedroak. Urtea azkar pasatzen zaigu, konturatu orduko uda ate joka dago, eta udaldia ondo hasteko, herriko jaiak, San Juan suaz berriztatutako gogoaz, herritarrok ondo baino hobeto ospatzen ditugunak.

Askoren lan bikainari esker, egitarau oparoa aurkeztu beharrean nago, eskerrik asko egin duzuen lanagatik. Adin guztiak kontuan hartzea ez da erraza egiten, baina zorionez, guztiok dugu gure tartetxoa jaiez gozatzeko. Hala espero dut. Prestatu den egitaraua oparoa izateko guztion partaidetza behar dugu, guztiok kalera irtetea eta prestatutakoaz ondo pasatzea.

Zabaldu gaitezen kanpotik gurekin jaiak partekatzea datozen guztiei, guztion artean egin dezagun Eskoriatza alai eta koloretsua. Esan beharrik ez badago ere, argi eta garbi izan behar dugu guztiok dugula jaiez disfrutatzeke aukera; beraz, erabat bazterten dugu edozein indarkeria mota, eraso sexistak barne.

Jaiak bai errespetua ere bai. Gora Eskoriatzako sanpedroak!

# EGITARAUA

## EKAINAK 28

### BEZPERA

**12:00 Marrazki lehiaketa eta jolasak;** Txirikila-ren eskutik. (4-12 urte). Herriko plazan.

**17:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton junior** 'Erromirria' ikuskizuna. Gorosarri plazan (euria bada Zaldibar antzokian).

**18:00 'Eduardo Gorosarri' erakusketaren** inaugurazioa. Ibarraundi museoa.

**18:30 Arientzako kanpai joleak** Kanpandorretik.

**18:45 Leiho eta balkoietako loreen X. lehiaketaren sari ematea** Osoko bilkuren aretoan.

**19:00 Txupinazoa eta pregoia** Herriko plazan.

**Ondoren: Musika Eskolako bandaren eta txistulari taldearen kalejira buruhandiek.**

**19:30 Eduardo Gorosarriren salvea,** abestuko du parrokiako abebatzak. San Pedro elizan.

**19:30 'Andonik mugitzen nau'** Herriko plazan.

**22:30 Nagusien danborrada**

**00:30 'Andonik mugitzen nau'** DJak. Herriko plazan.

## EKAINAK 29

### SAN PEDRO EGUNA

**10:00 Diana,** txistulari taldearekin.  
**11:45 Elizbira**



GOIENA

### Buruhandien txirindulari lasterketa

Bizkleta gainean eta buruhandia jantzita lehiatuko dira, zein bizkorrago. **Plaza ondoan da lasterketa, 16 urtetik gorakoei zuzenduta, eta ondoren buruhandi txikiak irtengo dira, kultura etxetik, 19:30ean.**

**11:50 Korporazioa elizara** Txistulariek lagunduta. San Pedro elizan.

**12:00 Meza nagusia, abesbatzarekin.** San Pedro elizan.

**12:00 'Adarbakar urdina'** Bihar txotxongilo taldea. (3 urtetik). Zaldibar antzokian.

**13:15 Musika Eskolako bandaren kontzertua.** Herriko plazan.

**18:00 Gazteentzako jokoak.** Gaztelekuak antolatuta (12-17 urte).

**18:30 'Goazen denok dantzara'** Herriko plazan.

**18:30 Eskupilota partidak.**  
1. partida: Aritz Zubia (Esko.)- Mikel Etxezarreta (Arras.) vs. Aritz Zugasti (Esko.)-Aimar Markez (Bergara)  
2. partida: Titin III.-Galartza vs. Saralegi-Apraiz.  
Joseba Iñurrategi Pilotalekuan.

**19:30 'Konposteroak'** Zaldibar antzokiaren plazan.

**21:00 Afarria (12-17 urte)** Gaztelekuan.

**22:30 Golden Apple Quartet** Gorosarri (euria bada kiroldegian)

**00:00 Dantzaldia, Basajaun taldea** Herriko plazan.

## EKAINAK 30

**11:00 Diana,** txistulari taldearekin.

**12:00 Herriko hildakoen aldeko meza.**

**12:00 Kartoizko zezenekin entziero txikia** Apotzagako bidetik Intxaurtxuetako plazara; bertan errektadore eskola ibiltaria.

**13:00 Rantxerak, boleroak...** **Arantzeta eta Pantxoarekin** Herriko plazan.

**16:00 XXVI. mus txapelketa** Gernika plazan.

**18:00 Haurren danborrada.**

**19:00 Kuadrillen arteko jokoak.**

**22:30 'Mutis por el forum'** Artistak del Gremio taldearekin. Gorosarri (euria bada kiroldegian)

**23:45 Puro Relajo-ren kontzertua** Plazan.

## UZTAILAK 1

### EUSKAL JAIA

**11:00 Diana,** txistulari taldearekin

**12:00 Dantza taldea** Herriko plazan.

**12:30 Talogileak eta sagardo kupelak** Herriko plazan.

**13:00 Trikitilarekin kalejira**

**14:30 Herri bazkaria eta IV. irrirtzi txapelketa bertan** Herriko plazan. Ondoren erromeria Imanol eta Unai trikitilari eta panderojolearekin.

**17:00-20:00 Txirrista erraldoia eta txikientzako ludoteka.** Eliza parean.

**19:30 Buruhandien txirindulari lasterketa (16 urtetik gorakoentzat)** Plaza ondoan. Ondoren: buruhandi txikiak kultur etxetik irtengo dira.

**23:00 Laiotz-ekin dantzaldia** Herriko plazan.

**24:00 Bandera jaitsiera** Ondoren dantzaldiak jarraituko du.



San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

**MARTIN** frutategia  
Frutan eta txarkuterian  
espezialista

Ondo ibili sanpedrotan!





Bi parte hartzaile kuadrillen arteko jokoetan, iaz. ESKORIATZAKO TXOSNA BATZORDEA



Kide bat, edalontzia ahoan duela. ESKORIATZAKO TXOSNA BATZORDEA

# Berrikuntzekin datoz kuadrilla jokoak

Ekainaren 30ean, egubakoitzean, egingo dituzte kuadrilla jokoak; 19:00etarako finkatu dute hitzordua. Jokoei hasiera eman aurretik, bestetik, bazkaria egingo dute txosnagunean. Aurten, hainbat berrikuntza izango ditu egitasmoak

## Iker Oñate ESKORIATZA

Kuadrilla jokoen prestakuntza lanetan murgildurik dihardute txosna batzordeko kideek. Tartean, jokoen formatua eta taldeak sortzeko era aldatu gura dituzte. "Azken urteetan, behera egin du parte hartzeak; horri buelta ematen saiatzeko bitartekoak jarriko ditugu"; azaldu du Asier de la Florrek, txosna batzordeko

kideak. Egitasmoak zarpigarren edizioa du aurtengoa.

Aldaketei dagokienez, esan bezala, jokoen formatua moldatu dute. "Aurten, herri kirolen bueltako jokoak egiteko ideiarekin dihardugu", dio De la Florrek. Besteak beste, lokotxak, oliba jaurtiketa eta zaku jolasa egingo dituzte. Aipatu beharrekoa, bestetik, joko sorta ez dela

errekan amaituko –kuadrilla jokoen aurreko edizioek hori zuten ohitura–.

Bestetik, izen-emate modua ere aldatuko dute. Alegia, kuadrillak apuntatu beharrean, norbanako bezala eman behar da izena. "Esku hartu gura duen jendea egon badago, baina batzuek ez dute taldea sortzeko behar beste kide lortzen. Apun-

tatzeko aukera eskaini nahi diegu horiei", dio De la Florrek. Hala, talde mistoak izango dira. Esku hartu gura duenak txosna batzordeko kideei jakinarazi beharko die.

## Eguna biziberritzen

Txosna batzordeko kideek azaldu dutenez, egunari bizia eman guran sorturiko egitasmoa da. "Duela zazpi urte ekin genien jokoei. Egun solte bat zen; herriarrari ezer berezirik eskaintzen ez ziona. Horri buelta eman gura genion", azaldu du Mikel Letonak. Gaineratu duenez, "gazte giroa sortzen da horrela".

Kuadrilla jokoez aparte, txosna batzordeko kideek bestelako ekintzak eskaini ohi dizkiete herritarrei; hor daude kuadrillen arteko bazkaria, tiragoma eta beerpong txapelketak eta konzertuak. Esan behar da herri

bazkariko menua ere aldatu gura dutela antolatzaileek.

"Giro polita sorrarazten dute kuadrilla jokoei. Gura beste jendek parte hartzen ez duen arren, ikusle ugari gerturatzen da. Bestalde, herriko kuadrilla ezberdinak elkarrekin ibiltzeko aitzakia ere badira kuadrilla jokoei", esan du De la Florrek.

Amaitzeko, egitasmoan esku hartzeko dei egin diete txosna batzordeko kideek herritarrei: "Kuadrilla jokoetan izena ematera animatu gura ditugu herritarrek, denon artean giro polita sor dezagun".

**JOKOEN FORMATUA  
ETA TALDEAK  
SORTZEKO ERA  
ALDATUKO DITUZTE  
ANTOLATZAILEEK**



## Gora San Pedro jaiak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)



### Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.







Herri bazkaria herriko plazan pasa den urtean. AITOR AGIRIANO

## Eskuragarri daude herri bazkarirako txartelak

Salgai jarri dituzte Eskoriatzako plazan egingo duten herri bazkarirako txartelak; gura duenak eskuragarri ditu Goxo-Txiki eta Inkernu tabernetan. Prezioei dagokienez, 14 urtetik beherakoek 10 eurotan eskura ditzakete eta gainerakoek, 16 eurotan

### Iker Oñate ESKORIATZA

Orain arteko bolada ona mantendu gura dute antolatzaileek; aurreko urtean, esaterako, 350 lagun inguru bildu zituen herri bazkariak. Bide horretan, hainbat aldaketa egin dituzte; hor daude menuaren bueltako berrikuntza eta herriko trikitilarien presentzia. Uztailearen leian egingo dute herri bazkaria, 14:30ean, herriko plazan.

Aurten, tentu handiagoz landu dute menuaren kontua, antolatzaileek diotenez, azken urteetan horren bueltan izan dituzten "kexak" direla eta. Bada, bi menu eskainiko dituzte; bata, 14 urtetik beherakoentzat, eta, bestea, gainerakoentzat. Lehen taldea-

ri dagokionez, makarroiak, hanturgesa eta postrea -flana, jogurta edo natilla- jarri dituzte jaki-zerrendan. Gainerakoentzat, aldiz, udaberriko entsalada, biribilkia saltsan eta San Markos tarta prestatuko dituzte.

### Erreserba egiteko aukera

Azken urteetan gora doa erreserba egiten duten herritarren kopurua. "Jendeak kuadrillan bazkaldu gura du, eta lagungarri zaigu erreserben kontua. Bestela, zaila izaten da lagun talde guztia elkarrekin esertzeko lekua bilatzea", azaldu du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Kultura teknikariak. Hori horrela, erreserba egiteko dei egin die herri-

tarrei. Posta elektronikoz edo telefonoz har daiteke lekua.

### Irrintzi lehiaketa

Bazkalosterako, irrintzi lehiaketa antolatu dute; laugarren edizioa izango da aurtengoa. Lehiakide ugari izaten ez dituen arren, egitasmo parte-hartzailea da, herri bazkariko mahaikideak dira-eta epaile. Alegia, kuadrillek parte hartzaile bakoitzari emandako puntuazioek erabakitzen dute nor izango den garaile.

Iaz, Iratxe Arrese eskoriatzarrak irabazi zuen irrintzi txapelketa, bigarrenen. "Irrintzi luzea botatzea izan daiteke irabazteko trikimailua, baina, ezin ziur esan", dio Arresek.



Haurren danborrada iaz. AITOR AGIRIANO

## Ekintza ugari antolatu dituzte neska-mutikoentzat

Askotariko ekintzekin gozatzeko aukera izango dute umeei. Berrikuntzaren bat ere izango da tartean

### I.O. ESKORIATZA

Aurtengoan ere, umeei zuzenduriko ekintza ugari biltzen ditu egitarauak. "Adin guztietako jendea bildu gura dugu jai-giroan; eta, horretarako, guztientzako ekintzak biltzen dituen egitaraua prestatzen saiatzen gara", dio Arantxa Unzuetak, Kultura teknikariak. "Umeei egunero izango dute zertaz gozatu", gaineratu du.

Besteak beste, marrazki lehiaketa, pailazoak eta entzierro txikia -kartoizko zezenekin eginkoa- antolatu dute. Horien artean, marrazki lehiaketa azpimarratu du Unzuetak: "Arrakasta handia izan ohi du marrazki lehiaketak. Aurreko urtean, adibidez, 100 haur inguruk esku hartu zuen ekimenean". Ekainaren 28an egingo dute aipaturiko ekintza.

Horrez aparte, zezen txikiak eta poneyak egongo dira Intxaur-

txueta auzoko plazan. Bergarako errektadoreek erakustaldia eskainiko dute bertan. "Jende ugari bertaratzen da Intxaurtxueta plazara. Giro polita sortzen da", azaldu du Unzuetak.

### Txirrista erraldoia

Bestetik, aurten, berrikuntzekin dator egitaraua. Aipatu beharrezkoa da uztailearen leian txirrista erraldoia eta umeentzako ludoteka jarriko dutela eliza parean. 40 metroko luzera eta 10 metroko altuera izango ditu txirristak.

### Danborradan beherakada

Bestalde, erronka bat dute haurren danborradan. "Gero eta jende gutxiagok parte hartzen du haurren danborradan. Adinez aurrera egin ahala, haurrei gehiago kostatzen zaie danborra jotzen segitzea. Hori aldatu gura dugu", dio Unzuetak.

**Ondo pasau San Pedro jaixetan!**

### ESKORIATZAKO CAMPUSA

Dorleta auzoa z/g  
20540 Eskoriatza

### ARETXABALETAKO CAMPUSA

Bedarreta auzoa. Otalora 31  
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 71 41 57

[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)  
[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)

**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

**40**  
URTE  
1976-2016  
Irakaste  
Eskola

**40 URTEAN EUSKAL  
GIZARTEAN ERAGITEN**



# Sanpedroetan ere, herriko seme kuttuna gogoan

Eduardo Gorosarri apaiz eta musikari eskoriatzarrari buruzko erakusketa inauguratuko dute San Pedro bezperan Ibarraundi museoan, eta abuztuaren 31ra arte ikusgai izango da. Haren heriotzaren 70. urteurrena betetzen da aurten

## Maite Txintxurreta ESKORIATZA

Herriko semea zen Eduardo Gorosarri apaiz, organista eta txistulariari gorazarre egingo diote eskoriatzarrek aurtengo San Pedro jaietan eta datozen asteetan, haren heriotzaren 70. urteurrenean.

Batetik, ekainaren 28an, San Pedro bezpera, Eduardo Gorosarri buruzko erakusketa berezia inauguratuko dute Ibarraundi museoan. Arratsaldeko seietan izango da inaugurazio ekitaldi hori. Bertan, Goikobalu abesbatzak emanalditxo eskainiko du, Eduardo Gorosarri berak konposatutako zenbait pieza abestuta.

Segidan, Gernika plazara joango dira, Gorosarriren senideekin, udal ordezkariekin eta hainbat elkartetako kideekin, Gorosarriren omenez jarrita dagoen eskulturara. Koldo Merinok 1989an egindako eskultura horri plaka bat jarriko diote.

## Musikaria eta erbesteratua

Eduardo Gorosarri buruzko erakusketa horrek eskoriatzarraren bizitzaren bi arlotan jarriko du fokua: batetik, bere musikari eta konpositore fazeta ezagutzeko aukera izango da; eta bestetik, erbesteratu moduan



Eduardo Gorosarri. IBARRAUNDI MUSEOA

## Nor izan zen Eduardo Gorosarri?

Eduardo Gorosarri Maiztegi 1889an jaio zen, Eskoriatzan. Apaiza, organista eta txistularia izan zen, baita musika konpositorea ere; hogeita hamarren bat erlijio obra konposatu zituen, baita organorako, txisturako eta abesbatzarako musika ere.

1936ko altxamendu faxistaren ostean gerrak leher egin zuenean, Euskal Herriko 4.000 neska-mutikorekin batera erbesteratu zen Gorosarri, *Habana* itsasontzi famatuan, eta Erresuma Batua joan zen. Handik itzultakoan, berriz, Madrilera joan zen, apaiz jardutera, eta, ondoren, atzera ere Eskoriatzara itzuli zen. 1947an hil zen, jaioterrian, 58 urte zituela.

bizi izan zuenaren inguruan gehiago jakiteko.

Erakusketan, besteak beste, Gorosarriren txistua egongo da ikusgai, baita argazkiak eta hark idatzitako pieza desberdinen partiturak ere. Piezok entzuteko aukera ere izango dute Ibarraundi museoan bisitatzen dutenek.

Organo jole moduan Salamanca apaiztegia eta Bilboko Be-goñako basilikan aritu zen Gorosarri. Txistulari gisa ere pertsona garrantzitsua izan zen; hala, 1927an, Euskal Herriko Txistularien lehendabiziko batzarrean, Txistularien Elkarte-ko lehendakari aukeratu zuten.

Gerrako umeekin Ingalaterrara erbesteratu zen garaiko postalak ere ikusgai jarriko dituzte; guztia, nola ez, historia eta testuingurua azaltzen duten informazio panelez lagunduta.

1937ko maiatzean abiatu zen *Habana* itsasontzia Bilbotik Southamptonera, eta gerratik ihesi zoazen 4.000 umek bidaiatu zuten bertan. Eduardo Gorosarri apaiza haiekin batera erbesteratu zen.

## Erakusketaren ordutegia

Ekainaren 28tik aurrera, eguerdian 12:00etatik 14:00etara bitartean egongo da ikusgai Gorosarri buruzko erakusketa Ibarraundi museoan, eta arratsalde, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan itxita egongo da museoan. Domekan, berriz, eguerdian izango da zabalik, (12:00-14:00).

Uztailaren 17tik aurrera, ordea, udako ordutegiarekin hasiko dira. Eguerdian irekiko dute, eta zapatu eta domeketan itxita egongo da. Abuztuaren 14tik 20rako asteen itxita egongo da, baina, gainontzean, hilaren 31ra arte goizez zabalik egongo da.

## 'Salbea', abesbatzaren eskutik

San Pedro bezperan, txupin jaurtiketaren ostean, 19:30ean, parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren *Salbea* abestuko du San Pedro parrokian, urtero egin ohi duten moduan. Gorosarri oso presente izango dute, beraz, aurtengo jaietan.

Horrez gain, San Pedro eguneko elizbira txistulariek Alkate Soinuaren Gorosarriren moldaketa bat joko dute.



Abesbatzako kideak kantuan. GOIENA

# SAN PEDRO

## Jaiak 2017

Tanborra gerrian hasi  
edo baserritar  
trajearekin bukatu  
baina sanpedruak  
probatu!!!

Eskoriatza  
ekainak 28, 29, 30  
uztailak 1

eskoriatza  
udala

# Txosnagunea, herritar guztien festa eremu

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek egitarau zabala prestatu dute aurten ere San Pedro jaietarako. Eremu alternatiboa izateko helburuarekin, antolatutako ekintzak gazteei zuzendutakoak dira, orokorrean, baina herritar guztiei irekitakoak izango dira

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek San Pedro jaietarako egitarau zabala prestatu daute aurten ere. Santa Marina plazan jarriko dute karpa, eta ekainaren 28tik uztaillaren 1era arte, egunez egun ekintza ugari prestatu dituzte herritarrentzat.

Mikel Letona *Motelo* Eskoriatzako txosna batzordeko kideak azaldu duenez: "Urtero moduan, alde alternatibo bat eratzten saiatzen gara, tabernaz taberna ibiltzeaz gain, beste eremu bat jarritz. Hala, auzolanean egiten ditugu prestaketa lanak, eta gazte jendea hurbiltzea izaten dugu urtero helburu. Batetik, antolakuntzan laguntzeko, eta bestetik, egunez egun txosnaguneko ekintzetan parte hartzeko. Beti izaten dugu jende falta...".

## Hitzordu garrantzitsuak

Kuadrillen Eguna izan ohi da txosnaguneko egun handia, eta honela adierazi du Letonak: "Kuadrillen arteko bazkariak eta urtez urte errotu den Bandera jolasaz gain, kontzertu potenteak egun honetan jartzen ahalegintzen gara. Aurten ere hala izango da, baina San Pedro egunean izango diren herriko taldeen emanaldiak ere izango dute zer esana...".

## Txosnaguneko egitaraua

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek egunez egun antolatu dituzten ekintzak honako hauek izango dira:

### Ekainak 28, eguaztena. Bikote Eguna

- **18:00** Txosnen irekiera.
- **Ondoren** Triki-poteoa txosnetatik hasita.
- **22:30** Danborrada.
- **01:00-03:00** Bikote jokoa.
- **01:00** DJ Moto.

### Ekainak 29, eguna. Kontzertu gaua

- **19:00** Pintxo-potea herrian zehar.
- **19:30** Bertso-poteoa.
- **00:00** Herriko taldeen kontzertuak: Jasan, Screaming For Change, San Peters Oi!

### Ekainak 30, egubakoitza. Kuadrillen Eguna

- **14:30** Kuadrillen arteko bazkaria.
- **17:00** Tiraxina lehiaketa / Beerpong lehiaketa.
- **19:00** Kuadrillen jokoak: VII. Banderia.
- **01:00** The Wood Strings.
- **03:00** Patxuko Nice.

### Ekainak 1, zapatua. Eskoitzara Eguna

- **18:30** Euskal preso eta lheslarien aldeko kontzentrazioa plazan.
- **18:45** Argazki erraldoia Mikel eta Marixolentzat.
- **20:00** Elektrotzaranga.
- **00:00-00:30** Happy Hour.
- **01:00** Iratzar taldea.
- **04:00** DJ Txingorra eta DJ Baltasar.

Iaz izandako arrakastaren ostean, Kuadrillen Egunean, ekainaren 30ean, tonbola ere izango da txosnagunean.



Iaz, txosnagunea beteta izan zen momentu bat. ESKORIATZAKO TXOSNA BATZORDEA



Taldeakideak entsegu lokalean. I.B

## Bertsioak, San Peters Oi!-ren eskutik

San Pedro jaietarako soilik osatutako taldeak bertsioz betetako kantuak eskainiko ditu ekainaren 29an txosnagunean. Xabi Zugasti, Ibai Iregi, Harri Anzizar, Gorka Idigoras eta Eneko eta Joseba Zubizarreta anaiek osatzen dute taldea, eta gogo biziz daude emanaldi egunerako. Honela adierazi du Gorka Idigoras bateria-joleak: "Gogotsu gaude, eta, lau edo bost entsegu bakarrik egin ditugun arren, ondo pasatzea da gure asmoa. Sagardotegira joan ginen egun batean sortu zitzaigun taldea sortzearen ideia, eta, burugogor samarrak garenez, egitea pentsatu dugu. Taldekide batzuk beste talde batzuetan ari dira eta hori lagungarri zaigu; izan ere, Joseba eta Eneko anaiek, esaterako, abestu egingo dute, eta beraien lehenengo aldia izango da".

Heriotza, Cicatriz, RIP, Puñetazo, Iskanbila, Hell Beer Boys... halako taldeen bertsioak eskainiko dituzte, eta egunerako soilik prestatu duten kontzertuan jende asko izango dela aurreikusten dute, bai taldekideek, bai txosna batzordeko antolatzaileek.



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Ondo pasa sanpedrotan!



# Berrikuntzak, aurten, Ferixa Nagusiko jaietan

Zapatu gauean helduendako hiru puzgarri ipiniko ditu jai batzordeak Salbador kalean. Domeka arratsalderako, berriz, herriko neska-mutikoendako karaoke lehiaketa antolatu dute. Amaia DJk egingo du eta zabalik da izen-ematea, udaletxean

## Larraitz Zeberio ELGETA

Bi berrikuntza nabarmenekin datoz 2017ko Ferixa Nagusiko jaiak. Zapatu gauean helduendako hiru puzgarri ipiniko ditu jai batzordeak. *Espabila y salta*, *Troncos locos* eta *Boom splash* dira, eta, puzgarriak baino gehiago, trebezia jokoak dira. "Iazko umeendako jolas parkean aurretik egon barik zeuden hainbat joko ipini genituen, eta ikusi genuen zenbait heldu oso gustura ibili zirela trebezia apur bat eskatzen zuten jokoetan, bereziki. Pentsatu dugu egokia izan daitekeela joko horiek gau giroan ipintzea, jende gehiago animatuko delakoan", esan du jai batzordeak. Ekimen berria da eta ikusteko dago zein harre- ra izango duen. Jokoak Salbador kaleko plazatxoan ipiniko dituzte zapatu gauean. Berez, domeka izango da, 00:30 ingururako iragarri dituzte eta.

Neska-mutikoendako jolas parke- a, urtero moduan, barikuan ipiniko dute. Hiru puzgarri eta hiru trebezia joko daude eskatuta: *Pendulo*, *Gira loco* eta *Balance bike*.

## Karaoke lehiaketa domekan

Domeka arratsaldean, berriz, herriko neska-mutikoak izango dira protagonista aurten. Amaia

DJrekin karaoke lehiaketa antolatu du jai batzordeak. 18:30ean emango diote hasiera, Mendizaleen Plazan. "Orain urte batzuk, playback lehiaketa egiten zen Ferixa Nagusiko jaietan. Bertan parte hartutakoak gara asko eta asko. Aurten, gaztetxoei zuzendutako ekintza bat antolatu nahi izan dugu domeka arratsalderako. Ez dadila izan jarri eta emanaldi bat ikustea; lehenetsi

dugu parte hartzea gehiago bul- tzatuko duen ekintza bat".

Gaztetxoen artean karaokea eta dantza modan daudela ikusi- ta, Amaia DJrekin harremanetan jarri eta karaoke lehiaketa antolatzearen alde egin dute. "Hainbat kantu aukeratu ditugu eta zerrenda bat osatu dugu. Zerrenda hori eskolara eramane- du, neska-mutikoek gustokoren bat aukeratzeko".

Karaoke lehiaketan parte har- tu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena. Zenbait lagu- nek dagoeneko aukeratu dute kantua. "Karaoke lehiaketa her- ritar guztiei dago zabalik. Saria gitarra elektriko bat da", azaldu du jai batzordeak. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena. Domekan nork bere aur- kezpena egingo du, banaka edo taldeka. Amaia DJ ere gogotsu dago. "Ziur nago Elgetako nes- ka-mutikoek oso ondo egingo dutela", adierazi du.

## Jaietako kartela

Jaietako kartela ere lehiaketa bidez aukeratu dute aurten. Bi lan aurkeztu ziren eta 177 her- ritarrek eman zuten botoa gustu- koena aukeratzeko. "Pozik gaude boto-emateen parte har- tzearekin. Pena da ez direla kar- tel gehiegi aurkeztu. Akaso, lehen urtea izan delako da".



ENERITZ LARREA

## "Festa irudikatu nahi izan dut"

ENERITZ LARREA  
KARTELAREN EGILEA

Jaietako kartelaren egilea da eta egunean jasoko du saria Mendizaleen Plazan.

### Zer dakar kartelak?

Ordenagailuz egin dut, orain urte batzuk feria egunean ateratako argazki bat eredu hartuta. Behi bat ageri da kolore pila baten artean. Jaietako umore ona, festa... irudikatu nahi izan ditut.


### Bi kartel aurkeztu dira.

Tristea izan da soilik bi pertsonak parte hartu izana. Udalak berriz antolatzen badu lehiaketa, parte hartzera animatzen ditut herritarrek. Zenbat eta kartel gehiago, orduan eta handiagoa da botoa emateko aukera.

### Ikusiko zaitugu jaietan?

Ez ditut herriko jaiak sekula galdu eta aurten ere bertan izango naiz. Jaietan herrian egoten den giroa gustatzen zait.

## Jokoak barikuan eta zapatuan



Jolas parkea, iaz, Ferixa Nagusiko jaietan. GOIENA

**Gauerako puzgarriak** laz umeendako jolas parkean egondako hainbat joko ipiniko dituzte aurten helduendako. laz ere animatu ziren batzuk.



Iazko herri kiroleko parte-hartzaileak. L.Z.

**Zapatuan jokoak** Bazkalosterako kuadrillendako jokoak egingo dituzte. Umeekin kanpalekuan egiten diren antzerakoak izango dira aurten.

**GOIKOETXE  
HARATEGIA**



Salbador kalea 1 ELGETA  
Tel.: 943 78 82 06

**Zorionak!**  
**Ondo ibili jaietan!**

## AGURRA

## ELGETAKO JAI BATZORDEA

## Gora Ferixa Nagusiko jaixak!

Ferixa Nagusiko jaixok antolatzen, Jai Batzordian ahalegina egin dogu danontzako moduko jai batzuk prestatzen. Batzar irekixen bitartez, jaixetako kontzertuak aukeratu doguz, eta bozketaz Ferixa Nagusiko Jaixetako kartel ofiziala. Danon artian egindako lan honek, baina, bere fruitua emoten dau: lau egunian zihar alaitasuna, jai-girua eta elkarlana izango diralako nagusi Elgetan. Beraz, deia luzatzen dotsugu zuri be ekitaldietan parte hartu, kaliak girotu, zapi eta mozorroak jantzi eta jaixez gozatzeko, euskaraz eta berdintasunez! Eskerrik beroenak, jaixen antolakuntzan jardungo dozuen danoi, baita jai honek posible egiteko laguntza ekonomikua emon dozueno be. Gora Elgeta! Gora Ferixa Nagusiko jaixak.

## EGITARAUA

## EKAINAK 29

## MOZORRO EGUNA

**12:00 Buruhaundixak Plazan.**

**19:30 Mozorruen jaitsiera,** Elgetako trikitilarekin. Brindisa, alkate txikia izendatzea eta kartel lehiaketako saria ematea. *Salbador kaleko goikaldetik.*

**20:00 Mozorroen argazkiak ateratzeko gunea**

**20:15 eta 23:00 Erromeria Trikitio taldearekin**

**00:00 Larrain dantza.** Ondoren erromerixiak jarraituko du.

## EKAINAK 30

## UME ETA ERRETIRATUEN EGUNA

**11:00 Umientzako puzgarri eta jolasak** *Salbador kalean.*

**11:15 Salda banatuko da** *Intxorta elkartiaren aurrian.*

**13:00 Meza Nagusixa, iazko**

jaixetatik hil diren jubilatuen alde, Xalbadorpek antolatuta.



GOIENA

## Mozorren argazkiak

Mozorroen jaitsieren ondoren, berauen argazkiak ateratzeko aukera izango da, Herriko plazan. Iaz egin zuten lehen aldiz ekimen hori, Udalaren eskutik. *Mendizaleen plazan, 20:00etan.*

**13:45 Jubilatuen argazkia ataratzia**

**14:00 Jubilatuentzako bazkarixa;** ondoren bingo jolasa eta erromerixia. *Espaloian.*

**14:00 Umientzako bazkarixa**

**15:30 Puzgarri eta jolasak umientzako**

**18:30 Buruhaundixak**

**19:00 Sokamuturra**

**20:00 DJ Bull.** *Plazan.*

**23:00 Suzko zezena**

**23:15 En Tol Sarmiento + DJ Bull** *Plazan.*

## UZTAILAK 1

## HERRI EGUNA

**11:15 Esna deiza, dultzaineroekin**

**11:30 Kuadrillen hamaiketakua**

*Ozkarbi elkartian.*

**12:30 Jaioberrixei harrera** *Udaletxian.*

**13:00 Soka dantzia**

**14:30 Bazkari herrikoia** *Plazan.*

**16:00 Erromerixia Jainaga eta Narbaiza**

**18:30 Talde-jolas parte hartzaileak eta txaranga**

**19:30 Pintxo morunoak Intxortako Lehoiak** *peñaren eskutik*

**20:00 Buruhaundixak**

**20:00 Erromerixia, Kupela taldiarekin**

**23:00 Suzko zezena**

**01:00 Helduentzako puzgarri eta oreka jolasak**

## UZTAILAK 2

## FERIXA NAGUSIA

**09:00 Ferixa** ganadu erakusketia, artisauek, makinariak..

**18:00 Buruhaundixak**

**18:30 Karaoke lehiaketa,** Gauargirekin. Saria gitarra elektriko bat.

**20:15 Txitxiburduntzixa** *Gaztetxean*



Jai zoriontsuak elgetar guztioi!

ILE APAINDEGIA

FB: Ileapeluqueria/ileapaindegia



JAI ZORIONTSUAK  
ELGETAR GUZTIOI!



Recyde-Alfa Deco

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
www.cieautomotive.com





# Bertako ekoizleak protagonista Ferixan

Ferixa Nagusiko azoka domekan, uztailaren 2an, izango da, eta produktu eskaintza zabala izango da. Herriko Plaza inguruan artisauak eta janari ekoizleak izango dira, hirurogei postu inguru. Horrez gain, ganadua ere ekarriko dute baserritarrek

## Maite Txintxurreta ELGETA

Herriko jaiei izena ematen dien ekitaldia, Ferixa Nagusixa, uztailaren 2an izango da aurten, eta, urtero legez, goizetik eguerdira bitartean, artisauen eta bertako ekoizleen hainbat janari postu jarriko dituzte herriaren erdigunean, eta baserritarrek euren ganadua jarriko dute ikusgai. Urtero jende dezente erakarki ohi du azoka horrek.

## Jakiak eta artisauak

Herriko Plazan eta inguruan jarriko dituzte domekan postuak, eta hirurogei bat izango dira. "Hogeita bi inguru artisauenak izango dira, eta gai-



Herritarrek ganaduari begira, iazko azokan. IMANOL SORIANO

nontzekoak, gehienak jakienak: gazta, pastelak eta bestelako gozoak, ogia, baserritarrek ekarritako barazkiak...". Horrez gain, bi etxek baserriko tresnak ere jarriko dituzte salgai Ferixa Nagusian.

Hala, aurten ere azokan izango diren postuak, gutxi gorabehera, urtero etortzen direnak izango dira, baina nobedaderen bat edo beste ere izango da tartean. Esaterako, Mikel Irazabal elgetarrak berak ekoizten duen Baobeer artisau-garagardoarekin postua jarriko du aurten. Herriko baserrietako ekoizleak ere jakiak jarriko dituzte salgai, eta artisauen artean lau bat ordezkari elgetar izango dira, baita ganadua ekarriko dutenen artean ere.


## Ganadu feria

Domekako Ferixa Nagusixan ganadua izan ohi da beti protagonista nagusietakoa. Leku desberdinetako baserritarrek ekarritako behiak edota behorak izango dira ikusgai egun horretan, baina, beti bezala, idiak izango dira protagonista. Hala, 24 idi pare inguru etorriko dira

Elgetara, Gipuzkoako txoko desberdinetatik zein Bizkaitik edota Araba aldetik ekarriko dituztenak.

"Feria honek urte askoko tradizioa dauka. Andramaritan feria izaten zen urtero, eta hona, Elgetara, idi gazteak ekartzen zituzten eta helduak erosten zituzten, lanerako fuertek zirenak, Araba aldera eta. Ohi-tura horri jarraiki, orain, gehienbat idiak izaten dira Ferixa Nagusixan", azaldu du ganadu azoka antolatzen ibiltzen den Agustin Beretxinaga elgetarrak. Kanpotik ere idizaleak gerturatzeko dira urtero-urtero Elgetara Ferixa Nagusiko ganadua ikustera.

Azokaren inguruko antolaketan lanetan aritzeaz gain, baina, Agustin Beretxinagak hogeita baina gehiago daramatza bere ganaduarekin azoka horretan parte hartzen. Behiak ekartzen ditu hark, eta aurten ere hala egingo du. Beretxinagaz gain, Javier Ormaetxea elgetarrak ere behiak ekarriko ditu feriara eta Roberto Basaurik, berriz, behorak jarriko ditu ikusgai eta salgai.



## Elgeta Ferixa Nagusiko Jaixak 2017

Ekainaren 29etik  
uztailaren 2ra



*Ondo ibili!*



# Mozorro jaitsiera jaiei hasiera emateko

Koloretsua eta zaratatsua izan ohi da Elgetan Ferixa Nagusiko jaietako hasiera, eta aurten ere mozorro jaitsiera egingo dute herritarrek, egunean. Irudimen eta umore erakustaldi ederra izaten da, eta erronka berezia elgetar askorendako

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Garrantzitsua da Elgetan festei hasiera egokia ematea, eta mozorrotuta botatzen dute jaietako etxafuegoa herritarrek. Kuadrilla askotan, gainera, Inauterietarako baino lan handiagoa hartzen dute jaietako mozorroa prestatzen. Iaz ere mozorro egunean pertsonaia ugari ibili ziren kalean gora eta behera. Hegazkinlari talde batek nahikoa lan izan zuen hegazkinarekin atzera eta aurrera. Okin talde batek irinez zikindu zituen bazter guztiak, txaranga zaratatsu batek itzelezko iskanbila sortu zuen eta gospel abesbatza batek kantuz bete zituen bazter guz-



lazo jaietarako Elgetan lur hartu zuen hegazkinlari taldea. ELGETAKO HEGAZKINLARIAK

tiak. ONCEko saltzaileak, egip-toar talde bat, hippyak, amama talde bat eta animalia mordo... denetik izan zen herrian.

Aurten ere 19:30ean egingo dute mozorro jaitsiera. Mendizaleen Plazara iritsitakoan, Iraitz Lazkano alkateak alkate txikiari emango dio aginte-makila. Horren ondoren, brindisa eta kartel lehiaketako sari ematea egingo dituzte. Hain zuzen ere, Eneritz Larreak jasoko du.

Aurretik, 12:00etan, udalekue-tako neska-mutikoeek buruhandien etorrera ospatuko dute.

**Argazkien gunea eta erromeria**

Iaz bezala, jai batzordeak mozorroei argazkiak ateratzeko gunea gertatuko du Mendizaleen Plazan. Herritarrak gonbidatuta daude bertatik pasa eta talde-argazkia ateratzera.

Mozorro egunean, Trikizio taldeak egingo du erromeria. 20:15ean ekingo dio lehenengo tarteari, eta, afaltzeko atsedena egin ostean, 23:00etan jarraituko du erromeriak. Gauerdian, beste atsedena txiki bat egingo dute, Elgetan hain errotuta dagoen larrain dantza egiteko.

## Musikak ez du etenik izango Elgetako Ferixa Nagusikoetan

Musikari dagokionez, ez da aspertzeko tarterik izango jaietan; izen handiko taldeek joko dute Herriko Plazako agertokian.

Ekainaren 29an, mozorro eguneko iluntzea Trikizio taldeak alaituko du, 20:15ean hasi eta gauera arte.

Barikuan, berriz, DJ Bull eza-guna izango da agertokira igotzen lehena (20:00etan), eta giroa berotuko du gauean, 23:15ean, En Tol Sarmiento arabarrek eskainiko duten zuzenkorako.

Herri Egunean, uztailaren 1ean, arratsaldean, Elgetako plaza ondo ezagutzen duten Jainaga eta Narbaiza trikitilarien txanda izango da. Iluntzean, eta gauera arte, erromeria giroak jarraituko du, Kupela taldearen eskutik.

Bukatzeko, domekan, azoka egunean, karaoke lehiaketa izango da arratsaldean (18:30), Amaia Txintxurretarekin eta Gauargi taldearekin. Lehiaketako onenarentzako saria gitarra elektriko bat izango da.

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

*Ondo pasatu!*

**ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!**



**MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta**



# "Alardearen historia aztertuko dugu sakon"

**PILAR ETXANIZ MAIRUAREN ALARDEA ELKARTEKO KIDEA**

Uztailaren 15ean ospatuko da aurtengo Mairuaren Alardea. 'Aurten ni ere Alardean' kanpaina abiatu du elkarteak antzuolarren parte hartzea bultzatzeko helburuarekin

**Maidar Arregi ANTZUOLA**

Urtero ikusmina sortzen duen ekitaldia da Mairuaren Alardea. Aurten, gainera, herritarrak animatzeko kanpaina berezia abiatu du Alardearen Elkarteak. **Errelebo falta dagoela sumatu du-zue Alardean?**

Alardea eta bere balioa gizartearatzea da helburua; baita jendea erakartzea ere. Kanpaina hau abiatu dugu azaltzeko zer den Alardea eta zeintzuk diren bere balioak. [Bideoa ikusgai: [antzuolakolardea.com](http://antzuolakolardea.com)] Sare sozialetan eta Whatsappen zabaltzeko egin dugu. Norbaitek parte hartu gura badu, oraindik ere badauka aukera, elkarteko kide batengana jota edo Kultura Sailarekin harremanetan jarrita.

**Nola doaz prestaketa lanak?**

Azken uneko urduritasunekin. Izan ere, arrazoi ezberdinengatik hutsuneak gertatu daitezke eta azken orduko ezustekoei aurre egin behar zaie.

**Herri osoa mobilizatzen duen ekitaldia da, ezta?**

180 lagun pasatxok hartzen du parte Alardean, zuzenean. Baina atzean jende asko dabil lanean. Bi mila biztanle pasatxo duen herri batendako oso esanguratsua da; ia %10ek parte hartzen dute. Herritarrek oso-osorik aurrera ateratzen duten ospakizuna da. Kultura adierazpen guztiak plazaratzen dira -txistulariak, abesbatza, dantzariak, musikariak...-; oso aberatsa da. **Baina aurten erronka berria duzue. Izan ere, Alardearen gaineko ikerketa bat abiatu duzue.**

2009an hasi ginen Alardearen jatorria ikertzen. Nondik zetorren eta ze izaera duen. Baina, batez ere, herritarrak nola identifikatzen ziren eta gustura ote zeuden. Ondorioztatu genuen Alardea gaurko balioetara egokitu behar zela. Eta azken urtetan egokitzen joan gara Alardea aberastuz. Baina ez gara hor geratu. Izan ere, gura izan dugu



Pilar Etxaniz, Goiena Tebistako platoan asteen. M.A.

## "ALARDEA, ONDARE IMMATERIAL GISA IZENDATZEKO LANEAN JARRAITUKO DUGU"

alderdi historikotik aztertu. 1881ean dugu Mairuaren pertsonaia azaltzen den lehen zantzia. Ordutik hona izan duen eboluzioa aztertu gura dugu. Zeintzuk izan diren bere elementu aipagarrienak. Kultura adierazleen eboluzioa: musika, dantza... alderdi historikoaren bilakaeraren gaineko lanketa sakona gura dugu eduki. Oraindik ez dugu finkatuta nola eta noiz egingo den, baina epe laburrean egin gurako genuke.

**Alarde honek, baina, besteekiko baditu berezitasunak.**

Bai. Ez du erabiltzen ikur eta elementu erlijiosorik. Mairuaren figura ere ez da azaltzen hemen inguruan. Eta gainera, aipatu bezala, hainbat kultura adierazpen elkarrekin batzen dira.

**Alardea biziberritzeko urratsak egin zenituzten; urteak pasa dira. Zein balorazio egiten duzue?**

Erantzun ona, positiboa izan du aldaketak: bereizkeriarik gabekoa eta errespetuz beterikoa. Alardean sekula ez da, ordea, debekatu emakumeak fusilari, kanoiak eramaten edo bestelako jardunbideetan aritzea. Aldaketa oso naturala izan da. Gura genuena zen emakumearen presentzia indartzea edozein postutan eta berak nahi duen tokian. Bestetik, Mairuaren kultura gutxitu egiten zen diskurtsoan eta plazan zeukan trataeran. Gatazka modu paketsuan tratatzearen alde ere egin dugu diskurtsoan.

**Alardea ondare immaterial izendatzeko bidea abiatu zenuten. Nola dago gaia?**

Aldundira jo genuen orain dela lau urte; baita Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera ere. Baina gelditu dago gaia. Izan ere, hori egiteko marko legalik ez dago. Eta lehenik, lege hori sortu behar litzateke aurrera egin ahal izateko. Hau da, ondare immateriala zer den definitu behar luke lege horrek. Baina lehen urrats hori egin gabe dago. Dena den, urtero jartzen gara harremanetan Jaurlaritzako ordezkariarekin, gaia ateraz.

## San Juan suaren eskutik etorriko da sagar dantza

Gaur iluntzean altxatuko dute arbola Herriko Plazan eta San Juan zortzikoa dantzatuko dute suaren bueltan

**M. A. ANTZUOLA**

Aurtengo Kalebarrengo festak San Juan bezperako festaren eskutik datoz. Hala, gaur emango zaie hasiera Kalebarrengo festei haurren danborradarekin, 19:30ean. Ondoren, plazan, arbola altxatuko dute eta 21:00etan, herri afaria egingo da. Sua piztu ostean, San Juan zortzikoa dantzatuko dute Oinarineko dantzariak; dantza herrikoiagoa ere izango da nahi duten guztiak dantzatzeko. 23:00etan, Patxi Luque antzuolarren zuzeneko emanaldia izango da Zurrategin.



San Juan sua iaz, plazan. JABI ETXANIZ

**Sagar dantza, zapatuan**

Mural kooperatiboa egingo dute zapatu goizean, 11:00etan hasita, eta ondoren, ginkana Peña Aias-tuiren eskutik. Arratsaldeko lau eta erdietan, haurrendako jolasak izango dira Idolaz aisialdi taldearen eskutik. Baita mus txapelketa ere, 16:00etan hasita. Buruhandiak, berriz, 18:00etan irtengo dira. Iluntzean, Arbola jasotzea egingo da Ondarreko gaiteroekin. 20:30ean, Aldats elektrotzarangak girotuko du iluntzea; ondoren, afaria egingo da Zurrategin. Afalostean, Tri-

kimailu taldearekin dantza egiteko aukera izango da; eta gauerdian, herriko bikoteek sagar dantza tradizionala egingo dute.

Domekan, aldiz, goiza txistularien goiz-eresiak abiatuko du. Ondoren, meza izango da eta salda eta txorizoa banatuko dute Kalebarrenean. 12:00etan, dantzari gazteek emanaldia egingo dute. 18:00etan, Kiki eta Koko pailazoaren eskutik, *Katapun txispun* haurrendako ikuskizuna izango da.



PATXI KORTABARRIA

## Pilotari gazteak bikain Errioxan

Santo Domingo de la Calzadan jokatu da II. Fausto txapelketa. Antzuolatik hiru bikote joan dira eta emaitza bikainak lortu dituzte. Olatz Insausti eta Leire Galeano finalerdietara iritsi dira. Maren Atxa eta Nagore Galeano bikoteak eta Iraia Larrea eta June Garaikoetxeak, aldiz, antzuolarrez osatutako finala jokatu dute.



# Sanjuanak, iragana gogoan

San Juan egunaren baitan, hainbat ekintza antolatu dituzte astebururako, atzera begirako ohiturei eutsita. Herriko plazan eta Garagaltzan egingo dituzte ekintza horiek. Gaur hasiko da hitzordu sorta, bezperako su ematearekin

**Iker Oñate** OÑATI

Sanjuanek aspaldi ekindako tradizioa daramate soinean. Gaur-gaurkoz, Garagaltza auzoan eta herriko plazan egiten dira egunaren bueltako ekintzak; horietan lehenak aspalditik dihardu San Juan eguna ospatzen. Orduan, baina, herriko beste gune bat zuen ospakizunerako kide: San Juan kalea. Azken horrek 60ko hamarkadan utzi zion eguna ospatzeari.

"Kale-baserri ugari zituen San Juan kaleak; eta, Garagaltzan bezala, egunaren bueltako ospakizuna egiten zuten bertan. Noski, plaza ondoko eremua izanik, bere berezitasunak zituen", dio Jerardo Elortza idazleak. Esaterako, erromeria –sona handikoa– beharrean, musika bandaren kontzertua eskaintzen zuten San Juan kalean.

## Atzera begirako ohiturak

San Juan egunaren eta horren baitan egiten diren hainbat ekintzaren jatorria ulertzeko, iraganari erreparatzea komeni da sarri. Bada, bestelako ekintzak egiten zituzten –edo egungo berak, bestelako esangurarekin–. Gaur-gaurkoz, dena den, bada mantendu duten ohiturarik; Garagaltzan egiten dituzte.

Batetik, lorez eta fruituz egindako sendorrak bedeinkatzeko ohitura mantendu dute San Juan ermitan. Duela zenbait hamarkada, askoz hedatuago zegoen tradizioa; eta herriko eliza edo ermita batean bedeinkatu ostean, etxeetako balkoietan zein atarrietan jartzen zituzten sendorrak. Urtebetez egoten ziren bertan, San Juan sura bota arte. "Garbiketa eta berritze erritu moduko bat zen", dio Elortzak.

Bestetik, iragana akorduan, ihiz estaltzen dute San Juan

ermitaren lurra. Horretarako, Garagaltzako zenbait auzotar mendira joan ohi dira egun batzuk lehenago, hondatu gabeko ihi bila. "Belaunaldiz belaunaldi pasa da honako ohitura hau. Lehen, guk egiten genuen; orain, alboko baserrikoen ardura da", argitu du Garagaltzako auzotar Jesus Mari Albisuk.

Aurrekoek gain, apaingarri gisa huntzez eta lorez egindako arkuak jartzearen tradizioarekin ere jarraitzen dute Garagaltzan. Horri lotuta, San Juan kaleko arkuak dakar gogora Elortzak: "San Juan kalean arku bat egoten zen; berria egiten zuten urtero. Bada, San Juan egunean, Garagaltzako ermitarako bidean, arkuaren azpitik igarotzen ziren herritarrak". Sanjuanak ospatzeari utzi arte heldu zioten ohitura horri San Juan kalekoek.

Dena den, bada galdurik dagoen tradizioarik; ihintza zapaltzearena, besteak beste. Duela zenbait hamarkada, kaleko neska gazteak San Juan ermitara joaten ziren, belarra ortozik zapaltzera. "Horrek indarberri tu egiten zituela uste zuten garaiko neska gazteek", azaldu du Elortzak.

## Herriko plazan, bezperan

Garagaltzan ez ezik, egun, herriko plazan ere ospatzen dira sanjuanak; zehatz esanda, bezperako su ematea egiten da ekainaren 23an. Hori horrela, gaur, egubakoitza, egingo dute ekintza, 22:30ean; horren bueltan, bestelako hitzorduak ere prestatu dituzte antolatzaileek. Honako ekimen honek Oñatiko Udalaren eta herriko ikastetxeen elkarlana du oinarrian.

## Sanjuanak ospatzeko ekintzak

Asteburuan bi ospakizun-leku izango dituzte sanjuanek: Foruen plaza eta Garagaltza auzoa.

### Egubakoitza (herriko plaza)

- **18:30** Erraldoi eta buruhandiak, Jose de Aspiazu musika eskolako trikitilariekin.
- **22:00-22:30** Gai zaharrak sutara botatzeko aukera.
- **22:30** Txondorraren su ematea eta dantzak, musika eskolako txistulariek lagunduta.
- **23:00** Erdizka Lauetan taldearekin dantzaldia.

### Zapatua (Garagaltza)

- **13:30** Etxafuego jaurtiketa, jaiari hasiera emateko.
- **14:00** Auzotarren bazkaria.
- **Ostean** Soinu-joleekin dantzaldia, mus txapelketa eta haurrentzako jolasak.

### Domeka (Garagaltza)

- **12:00** Meza, San Juan ermitan.
- **Ostean** Luntxa eta saihebidetik ermitarainoko gurpil-bidearen inaugurazioa.



San Juan kaleko bizilagunak, arkuak atzean dutela. FELISA DORRONSORO



Haurrak sendorarekin, San Juan kalean. RAFAEL KERNSTOCK



Garagaltzako erromeriara bertaratutakoen talde-argazkia. PATXI ELORTZA



Goizaldeko ihintza zapaltzera joan zen neska taldea. ARTXIBOA





Ingurumen irteeren antolatzaileak, Araotzen, egitasmoaren kartelarekin. ENOKO AZURMENDI

# Ingurumen irteerak egingo dira uztailean

Ingurumen irteerak antolatu dituzte ibarreko hiru gaztek, "Oñati eta bere altxorrek ezagutarazi" guran. Bide horretan, adin tarte ezberdinei zuzenduriko irteera sortak antolatu dituzte, belaunaldi bakoitzaren ezaugarriak aintzat harturik

## Iker Oñate OÑATI

Egitasmoari azken ukituak ematen dihardute antolatzaileek. Guztira, hiru irteera sorta antolatu dituzte uztaileko; bost irteerak osatzen dute horietako bakoitza. Bada, hiru taldetan banatuko dituzte parte-hartzaileak, adina aintzat hartuta: 11-12, 13-15 eta 16tik gorakoak. Xanti Ugarteren esanetan –ekimenaren antolatzaileetako bat–, "adinaren arabera egokituriko irteerak izango dira". 09:00-13:00 bitartean egingo dituzte ibilaldi guztiak.

Oñatik ingurumenaren bueltan dituen balioak ezagutarazi –eta ezagutu– guran antolaturiko egitasmoa da. "Faunaren, flora-ren eta nekazaritzaren bueltan, balio aberatsa du herriak. Horiek jorratuko dira, modu dinamikoan", azaldu du Ugarterek. "Antolatzaileen eta parte hartzaileen arteko elkarlanetik sortuko dira azalpenak", gaineratu du Julen Astigarragak, antolakuntza taldeko kideak.

Bide horretan, Ugarteren arabera, saio "eramangarriak" antolatu dituzte, "teoria hutsalez beteriko saio astunen formatutik aldenduz". Hala, Araotz eta Urbia inguruak bisitatuko dituzte, besteak beste.

Maddi Mujika antolakuntzako kidearen esanetan, bestalde, kokapen geografikoak eraginda, "askotariko espezieak" aurki daitezke inguruan: "Arabarekin mugan dagoenez, baldintza klimatologiko ezberdinak nahasten dira ingurunean. Horrek, askotariko espezieentzat baldintzak sortzen ditu".

## Azken bultzada

Oñatiko Udalak ingurumen proiektuetarako onarturiko diru

**EGITASMOAN ESKU HARTU GURA DUENAK EKAINAREN 26A BAINO LEHEN EMAN BEHARKO DU IZENA**

laguntzak bultzatuta ekin zioten proiektuari. Alegia, Ugarteren hitzetan, "aspalditik" zuten ingurumen irteera antolatzeko asmoa, baina "proiektua ez zen errealitate bilakatzen". Beraz, aukera sortu zenean, Udalariren euren egitasmoa aurkeztea erabaki zuten. Gainera, uztailean gazteriarri zuzenduriko ekintzen bueltan dagoen eskasiari aurre egiteko balioko die ekimenak.

## Izen-ematea, zabalik

Zabalik dute izen-ematea. Uztaileko egitasmoan esku hartu nahi duenak [ingurumenirteerak@gmail.com](mailto:ingurumenirteerak@gmail.com) bidez jarri beharko du harremanetan antolatzaileekin, ekainaren 26a baino lehen. Bestetik, azaldu dutenez, zalan-tzak argitzeko, sare sozialen bidez jar daiteke eurekin harremanetan.

Herritarrei parte hartzeko dei egin die Mujikak: "Motibazioz eta gogo handiz antolaturiko ekimena da. Beraz, parte-hartzaileak ondo pasako du, seguru".



## NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

## ETaren bukaera

Denok pozez beteta hartu genuen ETaren borroka armatuaren bukaera eta, une honetan, armen entregatzea. Hasieran, euskal kultura defendatu nahian sortu zen, Francoren diktaduran.

Horregatik, lehenengo hamar urteetan ez zen hilketarik izan, baina, eztabaida asko izan ondoren, armak hartzea erabaki zuten. Balorazio eta iritzi desberdinak izango ditu ETaren ibilbideak, baina, orokorki, une honetan pozik hartu da bere bukaera.

Harrigarriki, bere poza azaldu ez dutenak Espainia aldeko agintari eta politikari asko izan dira. Bitartean, lege berezi asko egin dituzte herri honen aurka; eta Espainiaren aldeko kazetari askok gogor kritikatu dute euskal gizartea. Batzuek, oraindik ere, bide horretatik jarraitzen dute.

Beste aldetik, orain azaltzen ari diren neurrigabeko ustelkeriak ezkutuan gelditzen ziren. Alde horretatik begiratuta, batek baino gehiagok faltan igarriko du ETaren jardura.



ULMA

## Umeendako tailerrak ULMAn

ULMA Fundazioak umeendako tailerrak antolatu ditu, bigarren; ekainaren 12an ekin zioten egitasmoari, eta 30era bitartean izango dute martxan. 70 neska-mutikok baino gehiagok osatzen dute aurtengo taldea. Besteak beste, eskulanak, esperimentuak eta jolasak egingo dituzte. "Lanaren eta familiarren kontziliazioan" lagundu gura dute antolatzaileek.

## Elkar Hezik bere eguna ospatuko du zapatuan

Urtero legez, aurten ere ospakizun jaialdia antolatu du Elkar Hezik; biharko finkatu dute hitzordua. Ikastetxeko ikasleak, gurasoak eta irakasleak batu gura dituzte ekimenaren bultzatzaileak.

Bide horretan, egun osoko egitaraua prestatu dute; 10:30ean hasiko da ospakizun eguna, adin tarte ezberdinetara egokituriko

ekintzekin. Tartean, bizikleta konponketa ikastaroa, kantuen letrak sortzen ikasteko saioa eta puzgarriak izango dira.

Gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute kiroldegian; menu ezberdinak eskaini dituzte bazkarirako. Azaldu dutenez, 500 pertsonako muga izango du hitzordua.

Horren ostean, bestetik, kontzertuak, Batxilergoko bigarren mailako ikasleak omentzeko ekitaldia eta Amaia DJren emanaldia egongo dira.

# 6,6ko nota ipini diote herritarrek Udalarari

Udal politiken inguruan herritarrek duten iritzia jaso du Udal Gobernuak. Aztiker Iker-guneak egin du azterketa eta 585 herritarri egindako galdeketa baten bitartez atera dituzte ondorioak; Udal Gobernuak kideak pozik agertu dira emaitzekin

## Miren Arregi OÑATI

Udal Gobernuaren politiken inguruan herritarrek dituzten balorazioak eta iritzia jaso ditu Udal Gobernuak Aztiker Iker-gunearen bitartez eta atzo egin zuten emaitzen aurkezpena udal-letxean. Bost gai nagusiren gainean egin da galdeketa: udal kudeaketa, mugikortasuna, komunikazioa, hondakinak eta igerilekua. "Herritarrengandik gertu jardutea da Udal Gobernuaren helburua eta inkesta hau norabide honetan kokatzen da. Autokritikarako bidea ere irekitzen digu eta jarduna hobetzeko baliagarria da", zioen Mikel Biain alkateak.



Asier Etxenike eta Mikel Biain atzo, inkesten emaitzen aurkezpenan. M.A

## Udal kudeaketaz

Esan bezala, Udalaren lanaren balorazioa 6,6koa da, batez beste. Bestetik, Udal Gobernuak Oñatiko arazoak konpontzen ari dela uste duten herritarrek %36,2 inguru dira. Ia beste horrenbeste dira arazoak nola konpondu jakin bai baina denbora luzeagoa behar duela uste dutenak. %16,6k arazo horiek nola konpondu ez dakitela uste dute.

Oposizioaz ere galdetu du Udal Gobernuak. %41,5en ustez, Udal Gobernuari kritika eta oztupoak jartzen dizkio oposizioak. %17,3k diote Oñatiko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela eta %42,3k ez dute erantzun. Argitu behar da lehen bi aukerak aukeratzeko bidea eman duela Aztikerrek, eta, horregatik, %100 baino gehiago da hiruren arteko batuketara.

Bestetik, oñatiarren kezka nagusiak hiru eremutan sailka daitezke: kezka nagusia lan merkatuari eta ekonomiari lotutakoa da; mugikortasunarekin lotutakoa daude bigarren mailan eta adineko pertsonen arazoak hirugarren. Oñatik duen arazorik garrantzitsuenaz galdetuta, %16,5ek erantzun dute hori apartakaleku falta dela.

## EKONOMIARI, MUGIKORTASUNARI ETA ADINEKOEI LOTUTAKOAK, KEZKA NAGUSIAK

### Mugikortasunaz

Aztikerreko eta Udaleko ordezkariek azaldu dutenez, mugikortasunaren alorrean hartu diren erabakiak, orokorrean, positiboki baloratzen dituzte herritarrek. Horren adibide da hartutako bost neurri 7tik gorako nora ipini diotela herritarrek. Horiek dira *Eskolara oinez* egitasmoa (7,8), bidegorri sarea (7,6), herribusa (7,5), auzotaxia (7,4) eta Atzeko kalearen oinezkotzea (7,1). Aldiz, ez dira hain begi onez ikusten TAO (OTA) sistema (5,4) eta Zazpibidietako bidegurutzea oinezkotzea (4,8).

### 'Kontzejupetik', baloratuena

Udal informazioa eskuratzeko medioei dagokienez, "korrelazio handia dago ezagutzaren eta erabileraren artean", dio Aztikerreko Asier Etxenikek. Era-

biliena eta baloratuenetarikoa *Kontzejupetik* aldizkaria da. Gutxienez egutegi eta erabiltzen direnak, berriz, asteroko udal buletin elektronikoa eta *Berbia Oñatin* Facebook orria dira. Aldi berean, ondoen baloratuenak dira azken horiek.

### Hondakin bilketa

Hondakin bilketa sistemaz ere galdetu du Udal Gobernuak. Galdetutakoan %79,3 ondo edo oso ondo moldatzen dira gaur egungo bilketa sistemarekin. %48,9k diote sistemak ondo funtzionatzen duela eta %30,1ek uste dute sistema ondo dagoela baina egokitzapenak behar dituela. Sistema aldatzearen alde %21,1 azaldu dira.

### Igerilekuan inbertitu beharra

Kiroldegien eta igerilekuaren gainean ere galdetu du Udal Gobernuak. Hala, igerilekuaren berrikuntza proiektuaz berba egiten entzun dutenen kopurua %68,6koa da. Igerilekuak berri-itu beharra duela uste dutenen batez bestekoa, berriz, %69,1ekoa. Igerilekuan ez beste zerbaitetan inbertitu beharko litzatekeela uste dute %22,3k.

## Oñatitik Kursaalera doa 'Pinotxo hariekin lotu gabe' musikala

Joan den asteburuko estreinaldi bikainaren ostean, Kursaal konkistatuko du Ganbara faktoriaren musikalka

### M.A OÑATI

Asteburuko hiru emanaldietako bat bera ere ikusi ezin izan zutenak badu oraindik aukera Ganbara faktoriaren *Pinotxo hariekin lotu gabe* musikala ikusteko; izan ere, Kursaal aurkeztuko dute hori, urriaren 21ean.

Ganbara faktoriako neska-mutikoen esperotako maila eman zuten. "Pozik gaude", zioen zuzendari Aitor Biainek, asteburu gogorraren ostean. "Oso gogorra izan da, baina aktoreek oso ondo erantzun dute eta sekulako lana egin dute. Beroak asko baldin-

tzatu ditu emanaldiak, baina txalotzeko lana egin dute, zalan-tza barik", gaineratu zuen.

Protagonistak eurak ere pozik azaldu dira emanaldien ostean. "Oso esperientzia polita izan da", zioen Pinotxoren papera egin duen Irene Urzelaik. "Asko disfrutatu dut. Lan handia izan da musikala prestatzea, baina merezi izan du", gaineratu du iratxoaren papera egin duen Ainhoa Urzelaik. Txirritx kil-kerra da musikalean Teo Maiztegi. Hura ere pozik gelditu da: "Asko disfrutatu dugu".



Pinotxo eta iratxo, joan den egubakoitzeko emanaldian abesten. IMANOL SORIANO

## Pedro Berriotxoak hitzaldia egingo du Nekazaritza Eskolaz

Pedro Berriotxo historialari eta unibertsitateko irakasleak hitzaldia egingo du datorren eguaztenean, hilak 28, kultur etxean, 19:00etan. Artixa taldearen eskutik etorriko da Berriotxo Oñatira, eta, oraingo honetan, XIX. mende erdialdean Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean egon zen Nekazaritza Eskolaren gainean arituko da. Nekazaritza Eskola izen handiko eskola izan zen garai hartan eta Berriotxoak haren gaineko ikerketa du argitaratuta. Duela urtebete eskas ere izan zen Berriotxo Oñatin; orduan ere, Artixa taldeak gonbidatuta. Orduko hartan, XIX. mendeaz eta baserriaz aritu zen berbetan.

## LGTBI+ egunaren bueltan, bi zinema emanaldi berezi

Gaur izango da lehena, eta datorren egubakoitzean, hilak 30, bigarrena. LGTBI+ egunaren bueltan antolatuta ditu Udalak bi zinema emanaldiok, eta biak ere 19:00etan izango dira, doan.

Gaurkoa *Chavela* izango da. Berlinalean estreinatutako dokumentala da *Chavela*, abeslari mexikar ezagunaren bizitzari buruzkoa. Bere ibilbide profesionala azaltzen du, bizitza pertsonala eta amodiozkoa ahaztu barik. Datorren egubakoitzean, bestetik, *Rara* filma eskainiko da. Donostiako Zinemaldiko Horizontes Latinos saileko irabazlea da *Rara*. Familiari buruzko kontakizuna da, neska baten ikuspuntutik.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**  
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)  
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**  
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**  
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**  
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**  
Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**  
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**  
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**  
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**  
Bergara / Masterreka kalea 11, behe  
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA**  
**ZUATZU KLINIKA**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA**  
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA**  
**ZULUETA, LURDES DOKTOREA**  
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA

**IGONE MORRAS**  
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18, solairuartea esk.  
685701796

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11  
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**  
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**  
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**  
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**  
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**  
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)  
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**  
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**  
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**  
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA**  
(AITA MENNI OSPITALEA)  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**  
Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

**SADHANA YOGA**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM  
690 79 21 55



Ikusle bat Udanako auto igoeran poltsikoko telefonoarekin lasterketa jarraitzen. IMANOL SORIANO

## Pilotu kopuru ona, baina oñatiar gutxiagorekin

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, zapatua, 15:00etan hasiko dute Udanako XII. Igoera. Guztira 63 pilotu batuko dira irteera puntuan, eta horietako sei izango dira oñatiarrak: "Parte-hartze kopuru polita da, baina iaz baino hiru oñatiar gutxiago izango dira"

**Xabier Urzelai OÑATI**

Udana Racing taldeko lagunek dena dute gertu Udanako XII. Igoerarako, eta, Oñatiko lasterketarekin, dagoeneko Mendiko Sariko egutegi erdia jokatuta izango dute pilotuek –bederatzi lasterketatik lau Debagoienean antolatzen dituzte—. Hala, bihar-ko lasterketak ikuskizun ederra eskaintzeko osagai guztiak ditu: "63 pilotuk eman dute izena, eta zenbateko polita da, lasterketa txukuna egiteko modukoa. Egia da beste urte batzuetan oñatiar gehiago izan ditugula, baina halaxe tokatu da aurten. Batzuek autoa matxuratuta daukate, beste batzuk kanpoan dabilta lanean eta iaztik hona autoa saldu duenik ere bada; horrenbestez, hainbat motibo daude beharakada horren atzean", dio antolaketa taldeko kide Koldo Txintxurretak.

Lasterketan bai izango dira Jagoba Txintxurreta (Seat Leon 1.8 Turbo), Julen Altuna (BMW 325) Txema Campos (BMW 325),

Xabier Elgarresta (BMW M3), Aitor Arnaiz (R5 GT Turbo) eta Monika Muñoz (Citroen ZX) herrikideak, eta eurekin batera debagoiendar kuadrilla ona: "Monoplazen kategorian Aitor Zabaletaren eta Joseba Iraolaren arteko borroka ikusi ahal izango dugu, eta turismoetan, esaterako, Cestafe bergarrara eta Corcuera arrasatearra ere aurrean ibiliko dira", dio Txintxurretak.

**Segurtasuna, zorrotz**

Aste barruan antolatzaileak eguraldi iragarpenei begira egon dira, oso aldakorrak izan dira eta. Baina badirudi ona egingo duela: "Dezente baldintzatzen du lasterketa, bai. Pilotuek gurpil

**"MONOPLAZEN KATEGORIAN ZABALETAREN ETA IRAOLAREN BORROKA POLITA IZANGO DA"**

ezberdinekin lehiatu behar izaten dute, eta segurtasuna bermatzea zailagoa izaten da, nahiz eta Udanan izandako istripurik larriena eguraldi onarekin izan genuen. Orduetik hona asko zorrotz dira segurtasun neurriak, eta, esaterako, aurten ere paelletan hormigoizko harriak jarriko ditugu. Eta kurba horietan ondo egongo da adierazita publikoak non jarri daitekeen eta non ez. Horretarako, baina, ikusleei errespetua eskatu behar diegu, errespetua lasterketako zuzendariari, baita kurba bakoitzean egongo diren komisarioei". Guztira 50 lagun izango dira zeregin horretan, eta beste hamar kolaboratzaile izango dituzte. Dena, lasterketa ondo joan dadin segurtatzeko.

**"IKUSLEEI, BESTE BEHIN, ERRESPETUA ESKATU BEHAR DIEGU, KOMISARIOEK DIOTENA BETETZEKO"**



Antartik Studios-koek egindako aurrerapen bideko irudi bat, Gorlan. ANTARTIK STUDIOS

## Bihar du Uriartek urteko erronka: 'Everesting Wheelie Challenge'-a

**TXIRRINDULARITZA** Etxauri mendatean 8.848 metroko desnibela gainditu gura du, gurpil bakarraren gainean

**X. U. ARETXABALETA**

"Beroa egin ala euria bota, horrek ez nau horrenbeste arduratzen. Baina haizeak bai, horrek arduratzen nau, albo batetik jotzen badu ezinezkoa izango delako erronka egitea", dio Markel Uriartek. Orbeako ziklista urtarrilean hasi zen 2017ko erronka prestatzen, 2016an Guinness errekorra egin eta gero. Beste txapelketa batzuekin tartekatuta baditu ere –joan den astean North Face Enduro Race de Vielha proba irabazi zuen–, sei hilabete ibili da prestaketa lanetan: kilometroak pilatzen, giharrak indartzen, lan espezifikoa egiten, lekua aukeratzen...

Hasiera batean, Tourmalet aukeratu zuen Uriartek, baina Etxauriko mendateak erraztasun handiagoak ematen ditu, eta bertan egingo du erronka, Iruñetik kilometro gutxira.

**Zapatuan, 04:00etan hasita**

Uriarte eta ondoan izango dituen lagunak gaur abiatuko dira Etxauri aldera. Goiz oheratuko dira, iratzargailua 03:00etan hasiko da-eta zarataka. Goizean goiz hasi gura dute erronka, 04:00 aldera. Eta erronka egiteko 21 ordu inguru aurreikusten dituzte: "Ordubeteko zikloak egin gura ditut, denbora tarte horretan mendatea igo, jaitxi eta atsedean apur bat hartzeko tarte izango dut, hurrengoa hasi arte.

**Guztira ia 300 kilometro.**

Datu batzuk nabarmentzekotan, Etxauri mendateak 6,8 kilometro ditu (%6,5eko desnibelarekin) eta 21 alditan igo beharko du. Horrek esan gura du 285 kilometro egingo dituela bizikletan, eta horietatik erdia gurpil bakarraren gainean.

**FUTBOLA Debagoieneko Kuadrillen zarpiko txapelketa abian**

Uztailaren 15ean egingo dute, Ibarrako futbol zelaian, Debagoieneko Kuadrillen Arteko VI. Zarpiko Futbol Txapelketa. Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea: [udaretxabaleta@gmail.com](mailto:udaretxabaleta@gmail.com) helbidean edo 635 20 63 33 zenbakira *whatsapp*-a bidalita; azken eguna uztailaren 13a izango da. Talde bakoitzak 100 euro ordaindu beharko ditu.

**ZIKLISMOA San Martzialeko lehen igoera hilaren 30ean**

Lokatza antolatuta egingo dute emakumezkoen zuzendutako San Martzialeko lehenengo kro-noigoera. 1.300 metro ditu, eta igoerako punturen baten %25eko desnibelari egin beharko diote aurre ziklistek. Besteak beste, Eider Merino (Lointek) eta Lorena Llamas (Bizkaia Durango) ziklistek malda gora duten abilezia erakutsiko dute.



# "Hiruko txapelketaren atzean lan handia dago"

**MARIAN MELLADO BERGARAKO SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA**

**SASKIBALOIA** Asteburuan, hamargarren urtez, saskibaloia kalera aterako dute BKEko saskibaloia sailekoek: "Pozgarria da noraino iritsi garen ikustea"

**Xabier Urzelai BERGARAN**

Marian Melladok (Bergara, 1967) hamar urte daramatza BKEko saskibaloia saileko presidente, eta klubak antolatzen duten Hiruko Txapelketak ere hamargarren urteurrena beteko du. Bada, aste barruan izan da GOIENA Melladorekin, torneora begira azken detaileak lotzen dabilela. Eguraldi iragarpenei begira dagoela aitortu du: "Txarra egiten duenean pena da, Labegarietan jokatzeko ditugulako partiduak, baina ez duelako xarma bera. Torneo hau kalean jokatzeko pentsatuta dago, gazteak San Martin plazan jokatzeko ikustea da polita. Ea eguraldiak laguntzen duen".

**Zelan dator aurtengo txapelketa?**

Itxura polita du, nahiz eta egia den talde askok azken ordura arte itxaroten dutela izena emateko, eta horiei ere telefonoa hartzen diegu. Iaz beste edizio batzuetan baino talde gutxiago izan genituen, 70 inguru, baina asteburu hartan beste ekitaldi mordoa egon ziren inguruan, eta horrek eragina izaten du. Aurten, seguruenik, igarri egingo dugu Arrasaten San Juan jaiak ospatuko dituztela.

**Nongoak dira Bergarako txapelketa jokatzera etortzen diren taldeak?** Herriko taldeekin batera, ingurutik ere talde asko etortzen dira, baina baita Donostiatik eta Gasteiztik ere. Hamar urte hauetan txapelketa ezagun egin da, eta jendea gustura ibiltzen da. Gainera, polita izaten da beste kirol jarduerak batzuetatik datozen gazteak bertan ikustea, edota saskibaloia federatua baztertuta daukatenak osterera ere jokatzeko ikustea.

**Lan handia egongo da halako baten atzean....**

Bai, lan galanta dago. Zuzendaritza taldeko seiok ibiltzen gara jo eta su, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da gurasoen laguntza, haiek gabe ezinezkoa



Marian Mellado. X.U.

## "EA EGURALDIAK LAGUNTZEN DUEN, KALEAN EGITEKO PENTSATUTA DAGOEN TXAPELKETA DA ETA"

izango litzateke halako bat antolatzea. San Martin plazan saskiak jarri, dena markatu, hesiak jarri, txosna muntatu, txikienendako puzgarriak, txapelketaren jarraipena egin... Lan handia dago atzean.

**Halakoak lagungarri izaten dira saskibaloien familia batzeko.**

Bai, gure artean gehiago batzeko balio du. Lan egiten dugu, baina guk ere ondo pasatzen dugu. Izugarri gozatzen dugu gazteak herriko plazan saskibaloian jokatzeko ikusita, eta zapatu arratsaldean, edo domeka goizean, esate baterako, giro aparta egoten da. Egia da eguraldi txarra egiten badu Labegarietara joan behar izanez gero ez dela gauza bera, txapelketa desitxuratu egiten da apur bat, ikusle gutxiago joaten direlako hara, txosna ezin izaten dugulako muntatu... Baina guk

ezin dugu aukeratu ze eguraldi egingo duen.

**Noiz erabakitzen duzue txapelketa San Martinen egingo den ala Labegarietan?**

Zapatuan goizean goiz batzen gara, eta orduan erabakitzen dugu zer egin, eguraldi iragarpenen arabera. Noski, bezperan esan badute oso eguraldi txarra egingo duela, zuzenean joaten gara Labegarietara, baina aha legintzen gara azken ordura arte itxaroten; izan ere, halako torneo bat kalean jokatzeko pentsatuta dago, hor dago xarma [Zapatuan 10:00etan hasiko dira infantil, kadete eta juniorrak eta 16:00etan senior mailakoak. Domekan, aldiz, alebinak eta benjaminak (10:00) izango dira protagonista]. **Zeintzuk dira aurtengo nobedadeak?** Batetik, senior mailako kategoria hiru multzotan banatu dugu aurten: eliteak, kuadrillak eta beteranoak, eta txapelketa ostean ikusiko dugu berritasun horrek ze emaitza eman duen. Bestetik, domekan (11:00) kirol egokituko erakustaldia egingo dute Bera Bera saskibaloia taldeko jokalariek. Gazteek ikus dezatela zailtasun fisikoak izanda ere posible dela kirolaz gozatzea.



Euskal Herriko Txapelketako podiuma, senior mailan. EMF



## Debagoiendar ugari izan dira Euskal Herriko onenen artean

**ESKALADA** Iruñean egindako txapelketan, senior mailan Debagoieneko lau eskalatazaileak igo ziren podiumera

**I.Larrañaga ARRASATE**

Debagoiendar ugari hartu zuten parte asteburuan Iruñeko BiHatz eskalada gunean egin zuten Euskal Herriko Boulder Txapelketan. Senior mailan, Mikel Linazisoro bergararrak eta Huarteko Muriel Ruiz de Larramendik nagusitasunez irabazi zuten, baina orokorrean egon zen maila "ikusgarria" izan zela azpimarratu zuten antolatzaileek.

Hala, Linazisoro ez zen podiumera igo zen debagoiendar bakarra izan. Izan ere, senior mailako sailkapena kontuan izanda, Arrasate Ander Mendieta bigarrena izan zen, eta emakumezkoetan, kategoria berean, Maria Amasene aramioarra bigarren sailkatu zen eta Miriam Mulas arrasatearra hirugarren.

**Ehun eskalatazaile baino gehiago** Guztira, 104 eskalatazailek hartu dute parte aurtengo Euskal

Herriko Boulder Txapelketan. Iruñeko BiHatz eskalada gunean adin askotariko eskalatazaileek jardun zuten; 12 urtez azpikoe-tatik, seniorretaraino. Maila nagusian, Mikel Linazisoro bergararrak eta Muriel Ruiz de Larramendik eskuratu zuten txapela. Biak ere Tokioko 2020ko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko hautagaiak izanik, aurtengo txapelketari "sekulako indarra" eman diotela adierazi dute antolatzaileek.

**Puntako parte-hartzaileak.**

Txapelketako arduradunak pozik agertu dira txapelketan egon den mailarekin. Belaunaldi berriek jada lekukoa hartu dutela eta etorkizunak "ilusio handia" sortzen duela adierazi dute. Gainera, euskal eskaladak "garai onenetako sasoi" berreskuratu duela nabarmendu dute.

## FUTBOLA Jon Iturbe, Beasainekin, mailaz igotzeko pauso batera

Bigarren B mailara igotzeko igoera fasea jokatzeko dabil Beasain, eta bertako atezaina da Jon Iturbe, duela urte gutxi Antzuolako atea defendatzen ibili dena. Joan den asteburuan 2-2 egin zuten Sportingek kontra Loinazen -hasierako hamaikakoan egon zen Iturbe- eta asteburuan itzulikoa jokatu dute Gijonen.

## ZIKLISMOA Garazi Estevezek bigarren jarraitzen du Kopan

Espainiako Kopa barruan zazpi lasterketa jokatu dituzte, eta Garazi Estevez aretxabaletarrak bigarren jarraitzen du sailkapen orokorrean, 320 puntu batuta. Gipuzkoa-Ogiberri taldeko txirrindulariak 38 puntura du lehenengo sailkatua, Madrid Team taldeko Eva Anguela, eta Kopako egutegia amaitzeko bi lasterketa geratzen dira.



Txorbela otxoteko taldekideak. TXORBELA OTXOTEA

# Txorbela otxoteak disko berria plazaratu du

Duela ia hamar urte sortu zen otxote arrasatear horrek euskal kantuz osaturiko erreperitorio zabala du. Txorbelak atzo bertan plazaratu zuen disko berria, eta Arrasateko erdiguneko hainbat tabernatan egongo da salgai

**Ane Vitoria** ARRASATE

2008an sortu zen hamasei bat kidez osatuta dagoen Txorbela otxote arrasatearra. Zaletasun bera izanik, musika, alegia, lagun talde bat elkartu eta musika gozatzea erabaki zuten. Beraien helburua Euskal Herriko kultura ondasunean ahaztuta geratu diren abestiak errekupe-ratzea da. Urte hauetan, Euskal Herriko hainbat agertokitan izan da Txorbela: Arrasaten, Bergaran, Hondarribian, Urretxun, Donostian, Durangon eta Bilbon, hain zuzen ere. Baina beste hiri batzuetan ere izan da; besteak beste, Granadan eta Madrilan. Guztira, 47 kontzertu eskaini ditu taldeak eta 107 bat

ekitaldi, omenaldi, inaugurazio, eta abarretan ere izan da.

## Lan gogorraren emaitza

Euskal kantuz osaturiko erreperitorio oso zabala du Txorbela eta, gainera, beste otxote batzuekin elkarlanean ere aritu da. 2014n, disko berriaren grabazioari ekin zion Txorbelak: "Estudio batean grabatu genuen, baina emaitzak ez gintuen guztiz konbentzitu; horregatik, akustika aldetik emaitza onagoa lortu guran, Aramaioko Azkoagako elizan grabatzea erabaki genuen", esan du Txorbelako kide Mikel Balanzategik. Bertan, 2015ean eta 2016an bitartean grabatu zuten disko berria, guz-

tira 23 abesti dituen. "Grabazio lana gogorra izan da, baina gustura gaude egindakoarekin", adierazi du kideak. Horretan, ganberako abesbatzarik finenarentzako abesti zailak eta melodia herrikoiak tartekatuta daude. Gainera, diskoaren hasieran, Seber Altuberen musika dago eta amaieran, Jose Ramon Vitoriaren musika eta hitzak. "Vitoriak sortutako *Oroimena* abestia diskoan gehitu dugu eta emaitza asko gustatu zaio; hori guretzat pozgarria da oso", esan du Balanzategik. Diskoa atzo kaleratu zen eta hamar euroren truke Arrasateko erdiguneko taberna ezberdinetan eskura daiteke: Monte, Itzala, Ezkiña...



The Vartools, aurreko urteko lehiaketaren irabazlea, oholza gainean. VIMEO

## 'Osintxun musikara!' lehiaketak dagoeneko baditu finalistak

Red Iron Squad, Bolbora eta Pomeray dira aurten Osintxuko jaietan kontzertuak eskainiko dituzten taldeak

**A.V. BERGARA**

Osintxuko jaietako kontzertu eremuari beste zentzu bat eta eskaintza ezberdina eman guran sortu zen *Osintxun musikara!* lehiaketa. Txapelketa hori bigarren aldiz jokatu da aurten, eta edizio honetan lehiatuko diren finalistak dagoeneko aukeratu ditu epaimahaiak: Red Iron Squad talde gasteiztarra, Lizarrako Bolbora taldea eta Pomeray musika talde bilbotarra. Horieta bakoitzak 35 minutuko emanaldia eskaintzeko aukera izango du, baina, horiez gainera, talde gonbidatua ere izango da: Eskean Kristo, hain zuzen ere.

## Hautaketa prozesua

Bigarren edizio honetan, 21 musika taldek eman dute izena eta horien guztien arteko aukeraketa egin behar izan du epaimahaiak. Hautaketa egiteko, lau irizpide hartu dira kontuan:

abestien konposizioa, emanaldiaren beraren joaldia, ahotsa eta instrumentala. Ezaugarri horien balorazioa egiteko, zerotik hamarrerako puntuazioa eman behar izan dio epaimahaiak talde bakoitzari; horrela, puntuazio altuena lortu dutenak finalerako sailkatu dira. Aipatu behar da balorazioa epaimahai-kide bakoitzak bere kontu egin duela, ez da beraien arteko inongo influentziarik egon.

## Aurtengo hiru finalistak

Finalean lehiatuko den taldeetako bat da Red Iron Squad. Gasteizko talde horrek rock fresko eta alaia eskaintzen du emanaldietan. Beste sailkatuetako bat Lizarratik gerturatuko den Bolbora taldea da, ska-reggae musika estiloa jotzen duena. Azkenik, Pomeray talde bilbotarra ere izango da Osintxun, oso rock sofistikatua eskaintzeko prest egongo dena.

## #HRMT

**GOIENA TELEBISTA,**  
EKAINAREN 27AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN  
**ARRASATE-UDALATX ANTOLATZEN**

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE





# Euskaraz, bertsoaritzaz eta feminismoaz 'EKT'-n

Ainhoa Agirreazaldegi eskarmentu handiko bertsolaria izango da seigarren 'EKT' (Euskal Kulturgintzaren Transmisioa) telebista saioko gonbidatua; Goienako Aitziber Aranburuzabala kazetariak aurkeztuta, eguenean 21:00etan izango da ikusgai

**Ubane Madera** ARRASATE

Elgetan jaioa eta Bergaran urteetan bizi izan ondoren, gaur egun Zarautz du bizitoki Ainhoa Agirreazaldegik. Euskal Filologian eta Alemaniako Filologian lizentziaduna da eta Ingeles Irakasle ikasketetan diplomaduna. Hainbat bertso-eskolan irakasle aritua eta Bertsozale Elkarteko ikerkuntza saileko kidea izan da urte askoan. Xenpelar Dokumentazio Zentroan ikerketa lanak egin izan ditu eta gaur egun helduen euskara irakaslea da Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Euskaltzaletasunaz, bertsoaritzaz eta feminismoaz jardun zuten ordu erdiko iraupena duen elkarrizketa saioan Agirreazaldegik eta Aranburuzabalak.

**"Euskara naiz"**

Etxetik jasotakoa gutxiesteko joera dagoela esanaz ekin zioten solasaldiari. "Nire izate kulturala etxean eraiki zen. Gurasoek



Ainhoa Agirreazaldegi. GOIENA

balio handia ematen zioten eta oso eskura jarri zizkidaten beti iturri asko: ipuinak, Xixupika eta bestelako euskal kanten bildumak, udan euskal udalekue-tara joateko gonbidapena egiten zidaten... Era berean, txikitatik

ikusitu ditut etxean *Argia* eta *Jakin* aldizkarietako harpidetzak", dio Agirreazaldegik.

Horregatik guztiagatik, euskara, harendako, jolasa eta sormena da. Era berean, euskara maitatzeak beste hizkuntza eta kultura batzuk maitatzera eramandu.

**9 urterekin, bertsoan**

Aita bertsozalea du, eta harekin bota zituen lehenengo bertsoak -autoan eta etxean-, Bergaran sortu berria zen eskolan izena eman zuen arte. "Adin ezberdineko jendea topatu nuen han. Bertsoaren maitasunetik abiatzen zen hezkuntza. Bertsoaritzak, bereziki, bi gauza eman zizkidan: nire pentsamenduaren ardura, batetik, eta hizkuntza beraren maitasuna eta jolasa, bestetik. Geroago, baina, hutsuneak sumatzen nituen emakume bertsolaria naizenetik; zorionez, elkarlanaren bitartez horietako batzuk konpondu ditugu".

## Udarako proposamen berriak udal liburutegien eskutik

Aurtengo liburu, disko eta film berrien zerrenda jasotzen duen 'Biblioporrak' gida eskuragarri dago

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko, Oñatiko, Aramaio-ko, Bergarako eta Legazpiko udal bibliotekek urtean bi gida argitaratzen dituzte elkarrekin: Gabon inguruan bat eta uda sasoiara begira bestea.

Bergarako Udal Liburutegiak koordinatu du orainoa. "Urte askotako ibilbidea eginga dugu; hortaz, aspaldi finkatutako bideak jarraitu ditugu. Bi sailetan banatzen dugu: haur liburutegietako eskaintza eta helduen liburutegietan aurkitu daitezkeen

argitalpenak, filmak eta musika euskarriak. Liburutegi bakoitzak, saileko proposamen bana egiten du eta guztion artean adosten dugu, gero, behin betiko zerrenda, ahalik eta genero, sortzaile eta argitaletxeen eskaintza zabalena egiteko asmoz, sarritan errepikatu egiten dira-eta gomendioak. Zerrenda osatuta, urtero liburutegi batek du, Iraide Olaizola diseinatzailearekin elkarlanean, gidari itxura emateko ardura", azaldu du Bergarako Liburutegiko arduradun Mila Agirrezabalak.

**7.400 ale argitaratu dituzte**

Udal liburutegi eta bestelako udal zerbitzuetan eta ikastetxeetan eskura daiteke *Biblioporrak*. "Liburutegi bakoitzak erabakitzen du, duen aurrekontuaren eta dituen beharren arabera, banatuko duen gida kopurua. Erabiltzaileendako gida erabilgarriak direla erakusten dute ondoren liburutegietan egiten diren eskaerak".

Argitalpen berrien artean egingako aukeraketa bat da *Biblioporrak*. Aurreko edizioetakoak bezala, adin tarteka banatuta dago: 0 eta 6 urte artekoentzat; 6 eta 9 urte artekoentzat; 9 urtetik gorakoentzat, gazteentzat eta helduentzat. "Hizkuntzari dagokionez, saiatzen gara eskaintza erdia euskarazkoa eta beste erdia gaztelaniazkoa izan dadin".

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko ekaineko zozketa!


Ekainaren 30eko **PUNTUA** eta Goiena aldizkarietan, ekaineko sarien irabazleak zeintzuk diren esango dugu. Adi egon, beraz!



### Irabazi bi lagunendako otordua

**GAZTAINUZKETA JATETXEARI ESKER**

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Plateruena Kafe Antzokiari esker**

*Mikel Urdangarin-en* kontzerturako sarrerak ditugu.

Plateruena, Durangon. | Ekainaren 30ean, 21:30ean.

**PARTE HARTZEKO:**

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Mikel Urdangarin"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzeko.

Eskubidea izango duzute datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (ekainetik aurrera): 30 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!





**OROIGARRIA**




**Marcelino Larrañaga Basauri**

2016ko ekainaren 25ean hil zen, 70 urte zituela.



---

*Maitea, urtebete zu barik. Urtebete zure babes faltan.  
Itsasora begiratzean zure alaitasun eta indarra sumatzen dugu.  
Zauden lekuan zaudela, mila laztan eta muxu etxeko denon partetik.*

---

Bergaran, 2017ko ekainaren 23an.

**OROIGARRIA**


**Felix Ugarte Igartua**

Jon Ugarte zinegotziaren aita

2017ko ekainaren 19an hil zen, Oñatin, 84 urte zituela.

---

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



**ARAMAIOKO UDALA**  
ARABA

---

Aramaioko Udala.  
Aramaion, 2017ko ekainaren 23an.

**OROIGARRIA**




**Arantzazu Zuazabeitia Zuazua**

(Ikastolako gurasoa)

2017ko ekainaren 21ean hil zen, 45 urte zituela.

---

*Har beza familiak gure atsekabe-mina.*



**arizmendi**  
ikastola

---

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.  
Leintz bailaran, 2017ko ekainaren 23an.

**OROIGARRIA**




**Arantzazu Zuazabeitia Zuazua**

2017ko ekainaren 21ean hil zen, 45 urte zituela.

---

*Zer da lagun on bat  
bihotz zati bat ez bada.  
Eguzki zati bat  
laino ilunen artien.  
Eta zu, Aran, gure eguzkixa  
izango zara betiko.*

---

Zure lagunak.  
Aretxabaletan, 2017ko ekainaren 23an.

**OROIGARRIA**




**Arantzazu Zuazabeitia Zuazua**

2017ko ekainaren 21ean hil zen, 45 urte zituela.

---

*Maitte zaittugu, Aran.*

---

Txaro, Ana, Iratxe eta Inma.  
Aretxabaletan, 2017ko ekainaren 23an.

**ESKER ONA**




**Arantzazu Zuazabeitia Zuazua**

2017ko ekainaren 21ean hil zen, 45 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Aretxabaletan, 2017ko ekainaren 23an.

**ESKER ONA**




**Antoni Zabarte Beitia**

Jose Miguel Irizar Lascurainen alarguna

2017ko ekainaren 21ean hil zen, 94 urte zituela.



---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Bergaran, 2017ko ekainaren 23an.

**ESKER ONA**

**Arantxa Umerez Urrutia**

2017ko ekainaren 10ean hil zen, 76 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 24an, 19:30ean,  
Oñatiko agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerririk asko.

---

Oñatin, 2017ko ekainaren 23an.

**ESKER ONA**




**Milagros Letamendi Garai**

Juan Mari Garairen alarguna

2017ko ekainaren 7an hil zen, 84 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza larunbatean izango da, ekainaren 24an, 19:30ean,  
Oñatiko agustindarren elizan.  
Aldez aurretik eskerrak bertaratuko zareten guztioi.

---

Oñatin, 2017ko ekainaren 23an.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 23	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 24	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Domeka, 25	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 26	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 27	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 28	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 29	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 23	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 24	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 25	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 26	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 0
Martitzena, 27	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 28	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 29	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 23	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 24	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 25	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 26	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 27	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 28	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 29	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

**HILETA**




**Ignacio Vikuña Arrazola**

Amalia Iturraldearen alarguna

2017ko ekainaren 22an hil zen, 89 urte zituela.

---

Seme-alabak: Iñaki, Miren eta Carlos Elorza, Gotzon eta Ana Diaz, Imanol eta Asun Arroyo. Bilobak: Urtzi eta Sandra, Saioa eta Jeancar, Naroa, Urko. Birlobak: Kyara, Julen. Anai-arrebak, koinatu-koinatak, ilobak, lehengusu-lehengusinak, laguntzaile Emi eta gainontzeko senide guztiak.

Azken agurra eta hileta elizkizuna, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da, gorpua bertan delarik, gaur, egubakoitza, ekainak 23, 19:00etan.  
Gure esker onak denoi.

---

Familiak Eguzkiloren hartuko zaituzte, 11:00-13:00 eta 16:30-18:20ak artean.  
Oñatin, 2017ko ekainaren 22an.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*  
**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua**  
**AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



**maribi 617 44 21 55**  
**BERGARA**

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Mende erdi elkarrekin**

1967ko ekainaren 10ean ezkondu ziren Maruja Ayllon eta Paco Arizpeleta, Tuteran. Urrezko ezteiak ospatuz, Erromara egin dute bidai. "Zorionak, bikote!", diote ingurukoek.

**2. Ikasturte amaierako otordua**

Urtea amaitzeko, afari-merienda egin zuten Beti-Bustikoek egubakoitzean. Eskerrak eman gura izan dizkiete Bergarako Eruan jatetxekoei, jana prestatzearren.

**3. Eskubaloiko zenbaki saritua**

Roberto Maizteginen txartelak zuen Eskubaloiko XI. Corpus txapelketako zenbaki saritua: 6.445. Beraz, harentzat dira 300 euroak eta bi pertsonarendako asteburua.

**4. Sedanoren eta Garciaren ezkontza**

Zapatuan ezkonduko dira Anabel Sedano eta Carlos Garcia, Eskoriatzan. Bikotea zoriondu gura izan dute familiakoek: "Zorionak eta egun zoragarria pasa dezazuela".

**5. Agur festa, Kolonbiara joan aurretik**

Oñatiko kuadrilla batek agur festa izan zuen zapatuan, horietako bat Kolonbiara doa eta. Fan Hemendik eguna zela aprobetxatuz, herri bazkarian izan ziren.

**6. Saiz eta Asenjo ezkondu ziren**

Ekainaren 17an, zapatuan, ezkondu ziren Javi Saiz eta Joana Asenjo, Armentiakoko El Caseron jatetxean. "Oso ondo pasa eztei-bidaian", diote ingurukoek.

**7. Mizpirualde egoitzakoak, Altsasun**

Altsasuko elkartearen bazkaldutik zuten Mizpirualde egoitzakoek zapatuan. "Primeran pasa genuen", diote. Bide batez, gonbidapena eskertu gura izan dute.

**8. Galdamesko Loizaga dorrera irteera**

Bergarako Helduen Eskolako ikasleek eta irakasleek ikasturte amaierako irteera egin zuten ekainaren 15ean. Besteak beste, Galdamesko Loizaga dorrean izan ziren.

**9. AIKUR erleen museora bisita**

Antzuolako Eguneko Zentroko kideek bi irteera egin zituzten Zumarragako AIKUR erleen museora: ekainaren 9an eta 16an. Primeran ibili ziren.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguztu eta bidalguztu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatuz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



**UDALATX MENDI LASTERKETAREN ANTOLAKUNTZA**  
 '#HRMT' Martitzena, 21:30



**SAN JUAN JAIEK EMANDAKOIA, IRUDITAN**  
 'Jaiak' Eguaztena, 21:00

EGUBAKOITZA, 23

- 10:00 Hemen Debagoiena
- 11:00 Onein
- 11:30 Hemen Debagoiena
- 12:30 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 13:00 Kantari 3
- 13:30 Hemen Debagoiena
- 14:30 Gaurkoak
- 14:45 EKT Mixel Ducau
- 15:15 Hemen Debagoiena
- 16:15 Gaurkoak
- 16:30 Ur eta Lur
- 17:00 Gaurkoak
- 17:15 Zer jan halako Baztan
- 17:45 Gaurkoak
- 18:00 San Juanak: Makalaren igoera
- 19:00 Gaurkoak
- 19:15 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 20:00 Gaurkoak
- 20:15 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 20:45 EKT Mixel Ducau
- 21:00 Gaurkoak
- 21:30 San Juanak: Errementari dantza
- 23:00 San Juanak: Nagusien danborrada

ZAPATUA, 24

- 09:00 Kantari
- 09:30 Korapil
- 10:00 Kantari
- 10:30 San Juanak: makalaren igoera
- 11:30 San Juanak: Errementari dantza
- 13:00 San Juanak: Nagusien danborrada
- 14:30 Jaiak 2016: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio
- 15:30 Hemen Debagoiena
- 16:30 Korapil
- 17:00 Kantari
- 17:30 Amaia DJ
- 18:00 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 19:00 Hemen Debagoien
- 20:00 Kantari
- 20:30 Amaia DJ
- 21:00 Jaiak 2016: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio
- 22:00 Hemen Debagoien
- 23:00 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues

DOMEKA, 25

- 09:00 Kantari 3
- 09:30 Zer jan halako Baztan
- 10:00 Korapilo
- 10:30 Kantari 4
- 11:00 EKT Mixel Ducau
- 11:30 Ekonomia Gurean: Urola garaia
- 12:30 Onein: Oilagorra armagnac erara
- 13:00 Hemen Debagoiena
- 14:00 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 14:30 EKT Mixel Ducau
- 15:00 San Juanak: Makalaren igoera
- 16:00 San Juanak: Errementari dantza
- 17:30 San Juanak: Nagusien danborrada
- 19:00 Jaiak 2016: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio
- 20:00 Kantari 4
- 20:30 Hemen Debagoiena
- 21:30 Ekonomia Gurean: Urola garaia
- 22:30 Ikustenda Iparrerat: Maider Egues
- 23:00 Hemen Debagoiena

ASTELEHENA, 26

**UDANA AUTO IGOERA BARRUTIK**

'Harmailatik'  
 Astelehena, 21:30

MARTITZENA, 27

**ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK**

'Hemen Debagoiena'  
 Martitzena, 18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
 Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 28



**EGUNeko ALBISTE GARRANTZITSUENAK**  
 'Gaurkoak'  
 Eguaztena, 14:30

EGUENA, 29

**AINHOA AGIRREAZALDEGIREKIN**  
 'EKT'  
 Eguena, 21:00

ZORION AGURRAK



**BERGARA Elene Contreras Arakistain**  
 Ekainaren 29an, 4 urte. Zorionak, maitia. Patxo handi bat, familiako guztion partetik. Potoloena, Junerena. Ondo pasatu zure eguna.



**OÑATI Laiatz Altube Arkonada**  
 Ekainaren 27an, 4 urte. Zorionak, preioxo! Izugarri maite zaitugu, politt hori. Muxu asko aitaxoren, amatxoren eta, batez ere, Lexuriren partetik.



**ARETXABALETA Ainhitze Kerejeta Abril**  
 Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu, etxeko guztion partetik. Muxu handi bat Arkaitzen, amatxoren eta aitaxoren partetik.



**OÑATI Oihan Agirrezabal Galdos**  
 Ekainaren 26an, 2 urte. Zorionak urte askotarako, Oihantxo! Zure poztasunak eta maitasunak betetzen gaitu! Muxu potolo bat, familiako partetik!



**OÑATI Zuhaitz Irizar Aramburu**  
 Ekainaren 25ean, 2 urte. Egun zoragarri hau heldu da berriz. Pozaren pozez bihotzak beterik! Zorionak, Zuhaitz!



**ARETXABALETA Markel Elorza Arkauz**  
 Ekainaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Marke! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



**ARAMAIO Amets eta Kerman Garcia Zubia**  
 Ekainaren 25ean, 3 urte. Zorionak, bikote, aita-taren eta amaren partetik. Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bana!



**BERGARA Erika Yue Borge Murillo**  
 Ekainaren 24an, 13 urte. Zorionak, familiako printzesari. Oso ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, maitxia.



**OÑATI Paul Montero San Vicente**  
 Ekainaren 24an, 9 urte. Zorionak, politt hori! Munduko laztanik beruena zuretzat! Askotarako zure urtebetetze egunian! Maitte zaittugu!



**OÑATI Palmira Rodriguez**  
 Ekainaren 23an, 80 urte. Familia osoaren partetik, zorionak!



**BERGARA Jon Maiztegi Uribesalgo**  
 Ekainaren 22an, urtebete. Zorionak, pitxinko! Muxu asko, Hodeiren partetik.



**ARAMAIO Jakes Valoria Garcia**  
 Ekainaren 22an, 5 urte. Zorionak, bihotza! Azkenean heldu da hainbeste espero zenuen eguna. Muxu pilo-pilo bat, etxeko partetik!



**ARRASATE Jon Sanchez Oncala**  
 Ekainaren 22an, 11 urte. Zorionak, Jontxu, familiaren partetik! Oso ondo ospatu eta txurroak erosi guretzako!



**BERGARA Yasmina Moreno**  
 Ekainaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, tia Yas! Egun ona pasatu eta disfrutatu zure egunaz. Ilargiraino eta bueltan maite zaittugu.



**ARRASATE Julen eta Sara Hierro Kortabarria**  
 Ekainaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Sara eta Julen! Musu handi bat amatxoren, aitaxoren eta Aneren partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.



**ANTZUOLA Lore eta Peru**  
 Ekainaren 21ean, Lorek 9 urte eta Peru 5. Ondo ospatu zure egunak eta muxuak, aitaren eta amaren partetik!



**ARETXABALETA Lahe Maria Tercero**  
 Ekainaren 21ean, urtebete. Zorionak, etxeko printzesari! Orain dela urteko bat gure bizitza gehiago poztu zenuen! Muxu erraldoi bat. Askotarako zaitugu. Aner eta Unax.



**OÑATI Iker Arenaza Arriaran**  
 Ekainaren 21ean, 2 urte. Zorionak, bitxito! Ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



**ARRASATE Luken Oncala Arroitia**  
 Ekainaren 20an, 14 urte. Zorionak, Luken! Oso ondo ospatu zure eguna. Besarkada handi bat, zure familiaren partetik!



**OÑATI Elene Urzelai Larrañaga**  
 Ekainaren 20an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Hiru belarri tirakada eta patxo zaparrada etxeko partetik, asko-asko maite zaitugu-eta!



**OÑATI Izaro Arzuaga Romano**  
 Ekainaren 19an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo ospatu urtebetetze eguna laguntxoekin! Patxo handi bat, etxeko danon partetik. Askotarako maite zaitugu!



**ARRASATE Jon Leiba Foronda**  
 Ekainaren 18an, 12 urte. Zorionak, Jon! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pila bat, etxeko partetik!



**ARRASATE Illart Hernando Ezcurra**  
 Ekainaren 18an, 5 urte. Zorionak eta muxu eta besarkada handiak! Gozatu egun hau. Muxu handi bat! Aitaxo, amatxo, tio, tia, amama eta aitiite.



**ARETXABALETA Haitz Eskibel Gomez de Segura**  
 Ekainaren 17an, 7 urte. Zorionak, pitxin! Askotarako zaittugu familia osuak. 7 belarri tirakada eta patxo asko. Ama, aita eta Maddi.



**OÑATI Jon Garitano Moia**  
 Ekainaren 17an, 4 urte. Zorionak, Jontxo! Ze handia egin zaren! Ondo-ondo ospatuko dogu zure laugarren urtebetetzea! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



**BERGARA Maialen Agirre Unzueta**  
 Ekainaren 15ean, 8 urte. Zorionak, etxeko izarra! Egun politta pasatu deizula eta segi beti bezain alai. Muxu erraldoiak: aitaxo, amatxo eta amama.



**DEBAGOIENA Elene Otxandategi Lasagabaster**  
 Ekainaren 15ean, urtebete. Zorionak, Elene! Ondo pasatu zure lehen urtebetetze eguna! Patxo bat, etxeko danon partetik!



**BERGARA Anartz Calleja Arrbillaga**  
 Ekainaren 14an, 10 urte. Zorionak, maitia! Hamar urte alaitasunez beteta! Maite zaitugu, pitxin! Muxu handi bat, etxeko partetik!

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitarteak; hiru bide dituzte:  
**Internet**  
 Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.  
 Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.  
**Posta elektronikoa**  
 Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.  
**Ordezkaritzak**  
 Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 23

### ARRASATE Patxin eta Potxin pailazoak

Piramideen bila ikuskizuna egingo dute umeendako.  
*Seber Altuben, 16:30ean.*

### ELGETA Larrain dantza ikastaroa

Ferixa Nagusiko jaiei begira. Irekia eta doan.  
*Gimnasioan, 17:00etan.*

### OÑATI Txokolate-jana eta dantzaldia erretiratuendako

Pake Lekuko Astearen baitan.  
*Erretiratuen elkartean, 17:30ean.*

### ESKORIATZA Musika eskolakoan kontzertua

Beheko Errotakoen ikasturte bukaerako emanaldia.  
*Zaldibarren, 18:00etan.*

### ESKORIATZA San Juan sua

18:00etan txorimaloak, 19:00etan buruhandiak, 22:00etan tantaia jasotzea, eta, 22:30ean, San Juan sua.

*Fernando Eskoriatza plazan, aipatutako orduetan.*

### ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak

San Juan jaiak ospatuko dituzte, astelehenera arte. Informazioa osoa Antzuolako orrietan. Jaiak haurrentzako meriendarekin hasiko dituzte.

*Kalebarrenen, 18:30ean.*

### ELGETA DJ Bull-en emanaldia

18:30ean hasiko du saioa. 21:00etan ogitartekoak. Eta ondoren piztuko dute San Juan sua.  
*Kiroldegi inguruan, aipatutako orduetan.*

### OÑATI Udako solstizioa

18:30ean txorimaloen kalejira, 22:30ean txondorrari su ematea eta Oñatzen dantzak, eta, 23:00etan Erdizka Lauetan taldearen saioa.  
*Foruen plazan, aipatutako orduetan.*

### OÑATI 'Chavela'

Chavela Vargasen bitzita kontatzen duen dokumentala.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

### BERGARA Orkestra Sinfonikoa

San Juan bezperako emanaldia.  
*San Pedro parrokian, 20:00etan.*

### OÑATI Elkartasun afaria

Misio taldearen eskutik. Afaldu ostean, Yago Abeledo misiolariak egingo du berba.  
*Bidaurretan, 20:30ean.*

### BERGARA San Juan sua

Xaxau elkartean eskutik eta Bergarako txistulari bandakoen laguntzarekin.  
*San Martin plazan, 21:00etan.*

### ARRASATE Errementari dantza

Sanjuanak.  
*Herriko plazan, 21:00etan.*

### ARAMAIO San Juan sua

22:00etan kalejira Azkoagako plazatik Santa Agedatxo ermitara, eta, ostean, sua piztuko dute.  
*Aipatutako lekuan eta orduetan.*

### BERGARA Issuna eta Neke Politikoa taldeak

Txapa Irratiko *Jarri itzazu tapoiak, mesedez!* saioaren denboraldi bukaerako kontzertua. Sarrerak, hiru euro.  
*Gaztetxean, 23:00etan.*

## ZAPATUA 24

### ARRASATE Entzierroa

Erdiko kalea-Kanpantorpea-Zerkaosteta-Arizmendiarieta plaza ibilbidea. Sanjuanak.  
*Erdi kalean hasita, 09:00etan.*

### OÑATI Elkar Hezi ikastetxearen eguna

Askotariko ekintzak.  
*Foruen plazan, 09:15ean.*

### ESKORIATZA 15. kontzejupe pilota txapelketa

Atxorrotx kultur elkartearekin. 10:00etan, 16 urtetik beherakoak, eta, 15:00etan, helduak.  
*Kontzejupean, aipatutako orduetan.*

### ELGETA Iazko Ferixa Nagusiko argazkiak ikusgai

Orduetgia: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00.  
*Zeramika gelan, aipatutako orduetan.*

### BERGARA San Juan auzoko jaiak

11:30ean zuhaitz landatzea, 12:00etan meza, San Joxepekoen kontzertua eta luntxa, 13:00etan lore sorta lehiaketa, 13:15ean 80 urtetik gorakoei omenaldia eta 14:00etan erretiratuen bazkaria.  
*San Juan auzoan.*

### OÑATI Garagaltzako jaiak

13:30ean jaien hasiera eta 14:00etan bazkaria. Ostean, dantzaldia, mus txapelketa eta umeendako jolasak.  
*San Juan auzoan, aipatutako orduetan.*

### ELGETA Musika ikasleen saioa

Ikasturte amaierako ikuskizuna, Lorea Larrañagaren eskutik.  
*Spaloian, 12:00etan.*

### ARRASATE Street boulder txapelketa

Sanjuanak.  
*Herriko hainbat txokotan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Xtrem jolasak

Oreka zinta, erronka jolasak eta errobera bakarreko bizikletak.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ANTZUOLA Eburne

Uribesalgoren ikasleen lanak Gaur, zapatua, eta, bihar, domeka, ikusgai.  
*Olaranen, 18:30ean.*

### ARRASATE 'Zapatos en el aire' ikuskizuna

La Furtiva taldearen emanaldia. Sanjuanak.  
*Seber Altuben, 18:30ean.*

### BERGARA Sutargi abesbatza

Aitor Garitanok sortutako ahots baxuen abesbatzaren lehen saioa.  
*Santa Marina parrokian, 20:00etan.*

### ARAMAIO Kantu-afaria

Sanjuanak.  
*Azkoagako plazan, 21:30ean.*

### BERGARA Igerilekua gaez zabalik

Uretako puzgarriak, baloi erraldoiak, ur jolasak eta musika.  
*Agorrosinen, 22:00etan.*



FERNANDO LEZAUN

### ARRASATE Gatillazo taldearen kontzertua

Aguraingo taldearen kontzertua. Evaristo lider duen taldeak, besteak beste, 2016an kaleratutako *Cómo convertirse en nada* diskoko kantuak joko ditu sanjuanetako emanaldian.  
*Hilaren 26an, Herriko plazan, 20:00etan.*

### BERGARA Asea eta Euskatalites taldeak

Ska doinuak protagonista. Doan.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

### ARRASATE Mikel Urdangarin

Sanjuanak.  
*Monterronen, 23:15ean.*

## DOMEKA 25

### ARRASATE Entzierroa

Erdiko kalea-Kanpantorpea-Zerkaosteta-Arizmendiarieta plaza ibilbidea. Sanjuanak.  
*Erdi kalean hasita, 09:00etan.*

### ELGETA Iazko Ferixa Nagusiko argazkiak ikusgai

Orduetgia: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00.  
*Zeramika gelan, aipatutako orduetan.*

### BERGARA Musika banda

11:30ean kalejira egingo dute eta 12:30ean kontzertua Espoioian.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

### OÑATI Garagaltzako jaiak

12:00etan meza ermitan, eta, ostean, luntxa.  
*San Juan auzoan, aipatutako orduetan.*

### ARRASATE Eguzkilaruri ongietorria

Makal txikia altxatu ostean, kalejira egingo dute trikitalarien laguntzarekin.  
*Biteri plazan, 12:00etan.*

### OÑATI Erretiratuen Eguna

12:00etan meza parrokian, eta, ostean, bi nagusiri omenaldia eta bazkaria. Bertsoak, oparien zokketa eta dantzaldia ere egongo dira.  
*Aipatutako lekuan eta orduan.*

### OÑATI Garagaltzako jaiak

12:00etan meza ermitan, eta, ostean, luntxa.  
*San Juan auzoan, aipatutako orduetan.*

### ARRASATE Apar jolasak

Sanjuanak.  
*Jokin Zaitegin, 13:30ean.*

### ESKORIATZA Xtrem jolasak

Oreka zinta, erronka jolasak eta errobera bakarreko bizikletak.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARRASATE Txatxilipurdiren ikuskizuna

Sanjuanak.  
*Biteri plazan, 23:00etan.*

### OÑATI Teresa Diazen erakusketa

Paisaiak eta erretratuak ikusgai, hilaren 28ra arte.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

### ARRASATE Bertso jaialdia

Igor Elortza, Eneritz Artetxe, Aitor Sarriego eta Oihane Perea bertsoan, AEDK gonbidatuta.  
*Seber Altuben, 20:00etan.*

### ARRASATE Esne Beltza eta CRAP taldeak

Sanjuanak.  
*Txosnaganean, 23:00etan.*





IMANOL SORIANO

**OÑATI 'Herrixa kantuan' egingo dute**

Txantxiku Ikastolako eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideen eskutik ikasturteko azken kantu jira egingo dute. Euskal musika oinarri hartuta, Foruen plazan elkartu, eta, ostean, kalerik kale ibiliko dira. *Bihar, zapatua, Foruen plazan, 12:30ean.*

**ASTELEHENA 26****ELGETA Udaleku zerbitzuaren hasiera**

Udalak lau astez emango du zerbitzua. *Ludotekan, 09:00etan.*

**ARRASATE Entzierroa**

Erdiko kalea-Kanpantorpea-Zerkaosteta-Arizmendiarieta plaza ibilbidea. Sanjuanak. *Erdi kalem hasita, 09:00etan.*

**OÑATI Udako kirol kanpainaren hasiera**

Lehen txanda eta txanda bakarra. *Kiroldegian.*

**ARRASATE 'Goazen dantzatu eta abestera'**

Telesaileko aktore batzuen ikuskizuna. *Monterronen, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Rosa Aguilarren ikasleek lanak**

Ikasturtean zehar egindako margolanak ikusgai daude hilaren 29ra arte. *Arkupen.*

**MARTITZENA 27****ARAMAIO 'Kontzertu ekonomikoa eta kupoa' berbaldia**

Gai horri buruzko hitzaldi irekia, Alaiak taldearen eskutik. *Kultura etxean, 18:30ean.*

**ANTZUOLA 'Eltzikorta' presoaren egoerari buruzkoak**

*Ez dot moztuko bizarra* taldearen eskutik. Preso ohi batek eta abokatu batek egingo dute berba. *Olaranen, 19:30ean.*

**EGUAZTENA 28****ESKORIATZA Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior**

*Errorirria* delako ikuskizuna egingo dute, San Pedro jaien hasieraren bezperan. *Gorosarri plazan, 11:30ean.*

**OÑATI Udaleku irekietako gurasoekin batzarrak**

Metodologiari buruz egingo dute berba: 18:00etan gaztelaraz eta 19:00etan euskaraz. *Biak ala biak, gaztelekuan.*

**ELGETA Larrain dantza ikastaroa**

Ferixa Nagusiko jaietegi begira. Irekia eta doan. *Pilotalekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Gorka ipuin kontalaria**

*Itsasoan* delako saioa egingo du, txotxongiloen laguntzarekin. *Santa Ritan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Joseba Irazokiren kontzertua**

Loramendi elkarteak gonbidatuta egingo du emanaldia Berako kantariak. *Kixkor tabernan, 19:30ean.*

**BERGARA Sexu askapena aldarrikatzeko manifestazioa**

*Nire identitatea ez dago hanka tartean! Transfobiarik ez!* lelopean egingo dute bailarako deialdia. *Kixkor tabernan, 19:30ean.*

**EGUENA 29****ESKORIATZA 'Adarbakar urdina' ikuskizuna**

Bihar txotxongilo taldearekin, 3 urtetik gorakoendako. *Zaldibarren, 12:00etan.*

**OÑATI Furgobaratza**

Ikasturteko azkena. *San Martingo ortuetan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Goazen dantzatu eta abestera'**

Telesaileko aktore batzuen ikuskizuna. *Fernando Eskoriatza plazan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Golden gran selección' ikuskizuna**

Golden Apple Quartet taldearen kontzertua. *Gorosarri plazan, 22:30ean.*

**ESKORIATZA Jasan, Screaming For Change eta San Peters Oi! taldeak**

San Pedro jaietako kontzertua egingo dute taldeek. Eskoriatzako musikariak dira guztiak. Jaietarako musika taldea sortu duten gazteak, hain zuzen. *Txosnagunean, 22:30ean.*

**ZINEMA****GASTEIZ****FLORIDA****Wonder woman**

Egubakoitzetik martitzenera eta eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Capitan calzoncillos**

Zapatutik eguenera: 12:00, 16:45.

**Paris puede esperar**

Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 18:35, 20:30, 22:30.

**Hermanos del viento**

Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 20:30, 22:30.

**El bebe jefazo**

Zapatutik eguenera: 12:00.

**Señor, dame paciencia**

Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 18:35, 20:30, 22:30.

**Los vigilantes de la playa**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Norman**

Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**Maudie**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Selfie**

Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 20:00, 22:30.

**La momia**

Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

**Ignacio de Loyola**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Nur y el templo del dragon**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**BOULEVARD****Wonder woman**

Egubakoitzetik eguaztena: 16:00, 16:10, 18:10, 19:20, 20:20, 22:30.

00:00, 23:15. Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 16:45, 18:30, 19:30, 20:30, 21:15, 22:15.

**Wonder women 3D**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

**La casa de la esperanza**

Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:15, 21:45.

**La momia**

Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:15, 20:30, 21:15.

**Gru 1**

Zapatua: 16:00.

**Gru 2**

Domeka: 16:00.

**Señor, dame paciencia**

Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 16:10, 18:10, 19:20, 20:20, 22:30.

**El bebe jefazo**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Alien**

Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

**Capitan calzoncillos**  
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:00, 20:00.

**Los vigilantes de la playa**

Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:15, 21:45.

**La momia**  
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:15, 20:30, 21:30, 22:45.

**Piratas del Caribe**  
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:35, 21:10.

**Dejame salir**  
Egubakoitzetik eguenera: 21:00.

**El bebe jefazo**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Alien**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

**KRITIKA****Cartas de la guerra ★★★★★**

**Zuz.:** Ivo M. Ferreira. **Herr.:** Portugal (2016). **Aktoreak:** Miguel Nunes, Margarida Vila-Nova, Ricardo Pereira.

**Maitasun eskutitzak guda garaian****ANTONIO ZABALA**

Pelikula joan den mendeko 70eko hamarkada hasieran kokatzen da. Medikua bat Angolarako joango da Portugalgo armadako kide gisa. Bere gogo-aldartea azalduko zaigu. Angolarako bidea, hara iristen denean, denboraren eragina... Eskutitz batzuen bitartez zer sentitzen eta zer pentsatzen duen ezagutuko dugu. Eskutitzak Portugalen utzitako emaztearendako dira. Antonio Lobo Antunes, medikua izateaz gain, idazlea ere bada. Guda garai horretan emazteari bidalitako gutunekin batera, gudari eta sentitzen duenari buruzko idatziak egingo ditu. Beraz, literaturak garrantzi handia du kontatzen zaigun istorioan. Bai, irudia oso zaindua dago. Argiaren erabilera, argiaren eta

itzalaren joko hango gauak erakusteko, eguneko argia, paisaiako hodei zuria, pertsonaien lehen planoak... Pelikulan, estetikak garrantzi handia du eta alde horretatik polita da ikusteko.

Eskutitzak emaztearen ahotsaren bitartez entzungo ditugu. Poetikoak dira, baina hainbeste entzutean, une batzuetan, ahulezia eta monotonia sentsazioa sortzen du. Dena polita eta zaindua da. Hori horrela, gudaren zurrumbiltoa apur bat baretua heltzen da.

Eta, azkenean, nahiz eta irudiak ederrak izan eta estetikoki dena oso polita izan, hitzaren pisua nabarmentzen da, eta, emaitza zer da: neurtuegi dagoen filma da.





AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

## Edgardoren kasua


"Badakizu zein dan Edgardo Mortara?", galdetu zidaten duela hilabete inguru. "Idearik be ez". Sekula entzun gabe neukan. Mortara edo mortadela, niretzat berdin. "Ba laster oso famosua bihurtuko da". Mortara hori 26 urtean Oñatin bizi izan zen apaiz bat zen, eta Spielberg berari buruzko pelikula bat egiten ari da. Zein eta Spielberg!

Nolatan interesatzen zaio ba Spielbergi apaiz xume bat? Euskarak erakarritu etorri omen zen Italiatik Oñatira. Euskara ikasi zuen, eta sermoiak ere eman zituen euskaraz (oñatieraz, seguruenez) Euskal Herriko hainbat lekutan. Hori interesgarria da, bai.

Baina Spielbergi bost axola horrek. Pelikulan ez da Oñati agertuko. Eta gutxiago Mortara euskaraz hitz egiten. Haren haurtzarora interesatzen zaio: Vaticanoak bahitutako ume judu bat izan zen Edgardo. Sei urterekin etxera joan zitzaizkion bila, hura fede kristauan hazteko. Familia mutikoa berreskuratzen saiatu zen urte luzez. Aske utzi zutenerako, baina, majo kristaututa zegoen. Eta horixe da Spielbergerekin kontatuko duena.

Aita Mortara izeneko kalea dago Oñatin. Unibertsitate atzeko kaletxo da. *Ocho apellidos vascos* filmarekin gertatu zena ikusita... Parke Jurasikoa bezain ezaguna egingo ote da aurki?

## BUKATZEKO



MUko Arrasateko fakultateko ikasleak, martitzenean, Robot-Sumo lehiaketarako prestatutako robotekin. JOKIN BEREZIARTUA

# Roboten arteko sumoa, hobeto ikasteko bultzada

'Robot-Sumo' lehiaketa batean hartu du parte, asteen, MUko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Mekanikoko ikasle talde batek Ordiziako fakultatean; sailkapenez harago, irakasleak eta ikasleek eurek onartzen dute halako aitzakiekin hobeto ikasten dela

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Sumoa eta robotika batzetik datorren diziplinan oinarritzen dira *Robot-Sumo* lehiaketak. Laboraz, bi roboten arteko borrokak dira eta robot batek bestea *Dohyo* izeneko zirkulutik -sumoko borroka gunea- ateratzea da jokoaren funtsa. Robot horiek autonomoak edo erabil-tzaile batek gidatuak izan dai-

tezke eta robotak bere lehiakidea aurkitzeko eta gailentzeko mugimenduak osatzeko beharrezkoa den mekanismoak diseinatzean eta eraikitzean dago lehen erronka. Bigarrena lehian bertan dago. Eta bi erronka horiek gertu-gertutik bizi izan ditu Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Mekanikoko ikasle talde batek.

**Aitzakia ikasgaia barneratzeko**

Izan ere, *Sumobot*-ak eraikitzen aritu dira ikasturte honetan eta eguaztenean lehiaketa izan zuten Ordiziako fakultatean. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko hirugarren mailako Mekanika ikasleen taldea izan zen irabazlea, eta Goierriko fakultateko taldeak izan ziren bigarren eta hirugarren. Sailkapena, baina,

ez da lehentasuna izan, Jurgi Barreña irakaslearen arabera: "Azken finean, aitzakia bat da ikasleek teorikoki ikasten dutena praktikara eramateko. Hala, kontzeptuak eta orokorrean ikasgaia bera askoz hobeto barneratzen dute; betiere, taldean lan eginda. Paperean dagoen hori errealitate bihurtzen hasten direnean sortzen diren arazoei irtenbide bat eman behar izaten diete eta hor ikasten dute gehien".

Lehiaketan parte hartzeko arau batzuk zehaztu zituzten: besteak beste, *Sumobot*-ak gehienez 25 kilo izan behar zituela, 500x400 milimetroko azalera izan behar zuela gehienez -altueran ez zegoen mugarik- eta lehiakidea ezin zuela suntsitu; trakzio gabe utzi edo bultzatu egin behar zuen *Dohyo*-tik irteke. Aipatzekoa da Arrasateko talde guztien kasuan, robota bluetooth bidez kontrolatzeko aplikazio bat erabili dutela.

Aurretik beste esperientzia batzuk ere izan dituzte robotikaren bueltan: tenis pilotak botatzen zituen robota, intxaurrak apurtzen zituena, eskailerak igotzeko egindakoa...

**Ikasleak ere gustura**

Ikasleek ere eskertzen dituzte halako ekimenak. Lehiaketaren aurretik urduri zeuden gehienak, baina asko ikasten dela diote: "Beti dago zer hobetu, baina pozik gaude egindako robotarekin. Tailerlean ez gara oso trebeak eta hor izan ditugu arazo handienak, baina, azkenean, moldatu gara. Klasean egotea baino askoz gehiago ikasten da, dibertigarriagoa da. Amaieran emaitza ikustea oso pozgarria da", uste du Joseba Etxebarte ikasleak.

**Elikagaien industrian**  
goi mailako teknikaria

Profesional honek elikagaien industriako enpresa txikietan, ertainetan edo handietan egingo du lan, eta zeregin hauek burutu ahal izango ditu:

- Elikagaien produkzioko arduraduna
- Produktu berrien garapenerako arduraduna
- Laborategiko kalitate-kontrolako teknikaria
- Elikagaien segurtasuna kudeatzeko arduraduna

**EH-N BAKARRAI**

Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

**Guk gure etorkizuna eraikitzen dugu**

**lea artibai**  
ikastetxea  
Etorkizuna eraikiz